


EUSKARAREN SUSTAPENA NAFARROAN, ERRESONANTZIA SOZIALA DUTEN ELEMENTU DISKURTSIBOETATIK ABIATUTA (metodologia mistoko ikerketa: kualitatiboa eta kuantitatiboa)

**Xabier Erize
Carlos Vilches**



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Ikerketaren zuzendariak eta txosten honen egileak

Xabier Erize Etxegarai

Soziolinguista. Filologian Doktorea

Carlos Vilches Plaza

Soziologoa. Soziologian Doktorea

Bi zuzendarien erakundea

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos

Ikerketa hau Eusko Ikaskuntzak sustatu du
eta Nafarroako Gobernua-Euskarabideak babestu du

Txostenaren data: 2024ko iraila

IKERKETAREN LANTALDEA

Zuzendaritza, azterketa eta txostena idaztea

Xabier Erize eta Carlos Vilches

Fase kualitatiboko taldeak osatzea eta bilerak transkribatzea

ADG investigación

Landa-lan kuantitatiboa

CPS Estudios

Datu kuantitatiboen tratamendua eta grafia

Carlos Vilches

atiboen tratamendua eta grafia: Carlos Vilches.

Proiektuaren kudeaketa

Amaia Nausia

Proiektuaren faseak

Fase kualitatiboa: 2023

Fase kuantitatiboa: 2024

Esker ona

Yolanda Arana

Aurkibidea

1.	Sarrera	9
1.1.	Ikergaia eta bere garrantzia	9
1.2.	Testuinguru soziolinguistikoa	11
1.3.	Kontzeptuak	13
1.4.	Gaiari buruzko lanen egoera	14
1.5.	Helburuak	16
1.6.	Hipotesia	16
1.7.	Metodologia	16
1.7.1.	Ikuspegi kualitatiboa	16
1.7.2.	Ikuspegi kuantitatiboa	18
2.	Emitzen analisia	23
2.1.	Txosten kualitatiboa	23
2.1.1.	Talde-dinamiketan antzera agertu diren euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsiboak	23
2.1.2.	Euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsibo horien banaketa soziala	32
2.1.3.	Bestelako elementu diskurtsiboak	32
2.1.4.	Begirada sintetikoa eta gogoetatsua	34

2.2. Txosten kuantitatiboa	36
2.2.1. Populazioaren tipologia	36
2.2.2. Euskararen ezagutza	40
2.2.3. Hezkuntza sistema	51
2.2.4. Euskara Administrazioako lanpostuetan	58
2.2.5. Euskararen sustapena	60
2.2.6. Hizkuntza-komunitatea	62
2.2.7. Euskarari buruzko jarreraren inguruko aldagaiak	65
2.2.8. Euskarari buruzko jarrerak: analisi faktoriala	69
3. Sintesi moduan	77
3.1. Biztanleriaren % 50etik gorako babesa duten elementu diskurtsiboak	77
3.2. Biztanleriaren % 50etik beherako babesa duten elementu diskurtsiboak	79
3.3. Biztanleriak euskara sustatzearen alde duen jarrera	80
3.4. Euskal hiztunen komunitatearen erreferentzia positiboa Nafarroako gizartean	82
4. Ondorioak eta eztabaida	85
4.1. Laburpena eta emaitzen interpretazioa	85
4.2. Helburuen eta hipotesiaren betetze-maila	86
4.3. Ikerketaren indarguneak eta mugak	86
4.4. Inplikazio praktikoak eta etorkizunari begirakoak	87
5. Erreferentziak	91
6. Eranskina: fase kuantitatiboan erabilitako galdetegia	97

1. Sarrera



1. SARRERA

1.1. Ikergaia eta bere garrantzia

Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen¹ eta hizkuntza nagusien arteko harremanak gai konplexuak dira, hala gizarte-mailan nola kontzeptu- edo ikerketa-mailan².

Ikerketa honek era berritzaile eta bereizgarrian aztertzen du euskarak eta eskualdeetako edo eremu urriko beste hizkuntza batzuek duten premia sozial garrantzitsu bat: nola lortu gutxiengo linguistikoak errespetatuko dituen hizkuntza-politika bat gizarte demokratiko batean, gizartearen askotariko interesak onarpen sozialaz arbitratzeko gai izango dena (Gazzola et al., 2024). Ikerketaren emaitzak berriak eta desberdinak dira.

Hain zuzen ere, esparru orokor horretan kokatzen dira euskaldunen eta gaztelaniaz hitz egiten duten biztanleen arteko harremanak. Azterlan honek Nafarroako Foru Erkidego (edo Nafarroa)³ osoari heltzen dio, eta gizarte guztiari galdetzen dio, bertan dauden ikuspuntu desberdinak jaso eta aztertzen dituen metodologia mistoa (kualitatiboa eta kuantitatiboa) baliatuz.

Beraz, Nafarroa da ikerketa honen eremu geografiko-administratiboa; hain zuzen ere, euskaraz hitz egiten den lurraldeetako bat da, Euskal Autonomia Erkidegoarekin (EAE) eta Ipar Euskal Herriarekin batera. Unibertsoa Nafarroako biztanleria osoa da: euskaldunak, gaztelaniadunak eta beste hizkuntza batzuetako hiztunak ("1.7 Metodologia" atala). Landutako denbora-espazioa, berriz, oraina da: gaur egungo errealitatea. Eta diziplina zientifikoa soziolinguistika da.

Ikertutako gai zehatza da ea ba ote dauden Nafarroako gizarteko sektore desberdinen artean erresonantzia soziala duten elementu diskurtsiboak ("1.3 Kontzeptuak" atala), euskara babesteko edo sustatzeko aukera eman dezaketenak.

1 "Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza" esaten die *Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunak* (Europako Kontseilua, 1992) euskarari edo antzeko egoeran dauden hizkuntzei: "Gutun honen ondorioetarako: a) «Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza» aipatzerakoan, hauek adierazi nahi dira: i) Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatu biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; eta ii) hizkuntzok ez dira Estatu horretako hizkuntza ofizialak izango; eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak" (1. artikulua). Espainiako Estatuan, hain zuzen, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza dira "honako autonomia-erkidego hauetako estatutuetan ofizialtzat hartzen direnak: Euskal Autonomia Erkidegoa, Katalunia, Balear Uharteak, Galizia, Valentzia eta Nafarroa; eta (...) autonomia-estatutuek babesten dituztenak" (Jefatura del Estado, 2001, 34733. or.).

2 Auzia ez da berria, eta, mendealdeko pentsamenduan, gutxienez XVI. mendetik dator (Berlin, 1995). Berriki, Joshua Fishman (2001) soziolinguistik berriaz galdegin zuen mehatxatutako hizkuntza bat sustatzeko zailtasunaz, eta hizkuntza hura sustatzeko bide posibleak justifikatzen eta proposatzen saiatu zen. Gaiak ez du gaurkotasunik galdu, eta horren erakusgarri da Euskal Herriko Unibertsitatearen 2023ko Udako Ikastaroetan antolatutako ikastaroa: *Hizkuntza gutxiak globalizazioaren testuinguruan: Zergatik? Zertarako?* (Garabide Kultur Elkarte, 2023). Gauza bera galdetzen du Cristian Camposek (2023): "¿Para qué sirven el euskera, el catalán y el gallego?" [Zertarako balio dute euskarak, katalanak eta galegoak?].

3 1978ko Espainiako Konstituzioaren babesean Estatuaren lurralde antolaketa osatzen duten 17 autonomia-erkidegoetako bat da Nafarroa. 2024ko uztailaren 1ean, 680.296 biztanle zituen (Instituto de Estadística de Navarra, 2024c).

Prozesu sozial eta historiko konplexuen ondorioz⁴ —zeinetan hizkuntzari eutsi zaion, atzera egin duen eta berreskuratu den—, euskal hiztunak gutxiengoa dira Nafarroako gizartean, gaztelaniaz mintzo den biztanleriarekin alderatuta. Euskararen estatusa legez araututa dago 1986. urtetik (18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa), eta haren garapenean askotariko faseak izan dira. 2015etik gaur egunera arte, oro har esan liteke euskara sustatzea eta herritarren hizkuntza-beharrei arreta eskaintzea xede duten hizkuntza-politikako prozesuak aplikatzen ari direla Nafarroan, Nafarroako Gobernuaren (2023-2027, 2019-2023 eta 2015-2019 legealdietan, era desberdinetan⁵), gizarte-mugimenduen eta gobernuz kanpoko bestelako eragileen aldetik.

Soziolinguistikaren arloan, ikerlan honetan euskarak eta gaztelaniak Nafarroan duten egoera sozialaren dimentsio subjektiboari (Erize, 2016) heldu zaio nagusiki. Hala, aipatutako hizkuntzetako hiztunen artean sor daitezkeen elementu diskurtsiboei, jarrerei edo erresonantziei erreparatu zaie, besteak beste (“1.3 Kontzeptuak” atala). Agerikoa da dimentsio subjektiboak hizkuntzen egoera sozialean (erabileran, ikaskuntzan, transmisioan, hautaketan, mantentzean) duen eragina, literatura soziolinguistikokan etengabe landu denez (ikusi, sintesi gisa: Dragojevic et al., 2021).

Bestalde, Medda-Windischerrek eta Carlàk (2022) hizkuntza bat baino gehiago dituzten gizartei buruz adierazi dutenaren ildotik, Nafarroan ere hizkuntzari buruzko eztabaidak identitate-auziekin eta gai soziopolitikoekin⁶ gurutzatzen dira. Era berean, Medda-Windischerrek eta Carlàk (2022) esandakoaren haritik, gerta liteke Nafarroako euskal hiztunek eta/edo gaztelaniadunek segurtasun falta eta gatazka-giroa sentitzea, mehatxutzat hartzeagatik era bateko edo besteko hizkuntza-politikako jarduketak: gaztelaniadunentzat haien segurtasuna areagotzea litzatekeena euskal hiztunek mehatxutzat har lezakete, eta alderantziz. Horrek guztiak are eta konplexuagoa egiten du aztertutako gaia.

Nafarroatik kanpo ere sozialki konplexua da euskara edo bestelako eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak sustatzea, bai eta haien legitimazioa ere; gai horietan, gainera, eragina dute etengabe landu eta berritu beharrekoak diren akordio eta desadostasun sozialek.

Horregatik, garrantzitsua da ikerketa enpirikoak egitea, honako lan honen eta beste batzuen ildokoak, euskarak Nafarroan duen errealitate soziala aztertu eta interpretatzeko, eta, Nafarroaren kasutik abiatuta, euskararen beste lurralde batzuetan nahiz beste hizkuntza batzuetan sortzen diren gaiak interpretatzen laguntzeko.

4 Azterlan honek egungo egoerari erreparatzen dio, baina kontuan hartu dira Nafarroan gaztelaniadunek eta euskaldunek izan dituzten harremanen aurrekari historikoak ere, urrunekoak eta hurbilekoak, hainbat egilek egin dituzten azterketen arabera (Azcona, 1985; CIES, 1990; Erize, 1997, 1999 eta 2001; Nafarroako Gobernua et al., 2024; Jimeno, 2000; Jimeno Jurio, 1977 eta 1998; Sánchez Carrión, 1987; Ugalde, 1977; Urmeneta, 1996; Vilches, 2002; Vilches eta Cosín, 1995).

5 Ikus 2023-2027, 2019-2023 eta 2015-2019 aldietako Nafarroako Gobernurako programa-akordioak (Parlamento de Navarra / Nafarroako Parlamentua, d.g.).

6 Ikus, adibidez, Nausia et al. (d.g.).

1.2. Testuinguru soziolinguistikoa


Euskararen testuinguru soziolinguistikoa berezia da Nafarroan, euskaraz hitz egiten den beste lurraldeetako testuinguruarekin alderatuta.

Nafarroan, beste lurraldeetan ez bezala, (i) euskaraz dakiten biztanleen ehunekoa txikiagoa da, eta, gainera, lurralde-banaketa oso desberdina da eskualdeen arabera; (ii) akordio eta desadostasun sozialen konbinazio berezia dago (eragile linguistikoen eta eragile soziopolitikoen artean, baita gizartean bertan ere) euskararen babes- edo sustapen-maila gomendagarriaren inguruan; eta (iii) elkarrizketa-maila txikia dago hizkuntza-politikako jardueretan interes legitimoa duten aldean (ingelesez, *stakeholder engagement*), hau da, onuradun, kaltetu edo hartzaile neutro direnen artean (Erize, 2022).

Testuinguru soziolinguistikoa bi adierazleren bidez irudikatzen da: (i) euskararen ezagutzaren bilakaera konparatiboa (1991-2021) Nafarroan eta lurralde guztietan, eta (ii) unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan hizkuntza-ereduen arabeko matrikulazioak Nafarroan izandako bilakaera (2001-2021). Kontuan izan behar da euskararen ezagutza-mailak eta hizkuntza-eredu batean edo bestean matrikulatzeak zerikusia dutela euskararen transmisioarekin, eta hainbat faktoreren ondorio direla, hala nola herritarren jarrera, balio, hautu edo jardun linguistikoen ondorio.

(i) Euskararen ezagutzari dagokionez, euskaraz hitz egiteko gaitasuna (osoa edo partziala) duten pertsonak ugaritu egin dira lurralde guztietan, baina ez denetan modu berean: 2021ean, Nafarroan % 25 ziren; EAE, % 55; eta euskararen lurralde osoan, % 46. Datu horiek 1. grafikoan ikusten dira:

1. grafikoa. Euskararen ezagutza: osoa + partziala (1991-2021) (%)




Elaborazioa: autoreak. Datuen iturria: Nafarroako Gobernuak et al., 2024

7 Alderdi edo alde interesduneko elkarrizketaren kontzeptua (ingelesez, *stakeholder engagement*) R.E. Freemanek txertatu zuen (1984/2010). Kontzeptua oso garatuta dago erakundeei buruzko literaturan, eta esan nahi du kausa sozial batek (edo erakunde edo enpresa batek), bere estrategia arrakastaz garatu eta bere helburuak lortu ahal izateko, elkarrizketa- eta lankidetzazko prozesuak garatu behar dituela bere jardunaren ondorioetan (ondorio onuragarri, neutro edo kaltegarrietan) interes legitimoa duten alde desberdinekin, eta aldean espektatiba desberdinei ahalik eta ondoen erantzun behar diela.

(ii) Nafarroako hizkuntza-ereduen arabeko matrikulazioari dagokionez (2001-2021), hiru alderdi nabarmendu behar dira:

- Euskarak irakaskuntzan lortzen ditu baliorik handienak Nafarroan.
 - Euskaradun erduei dagokionez (D euskarazko irakaskuntza; A gaztelaniazko irakaskuntza euskara irakasgaiarekin; eta B irakaskuntza mistoa, euskaraz eta gaztelaniaz), grafikoa egonkor ageri da funtsean, baina jaitsiera txiki batekin.
 - Gaztelaniazko ereduaren (G erdua) grafikoa ere egonkor ageri da funtsean, baina igoera txiki batekin.
- b. Joera hori 2. grafikoan ikus daiteke:

2. grafikoa. Hizkuntza-ereduak Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan (2001-2021)



Elaborazioa: autoreak. Datuen iturria: Nafarroako Gobernua et al., 2024

1.3. Kontzeptuak

Azterlan honetan oinarritzko bi kontzeptu erabili dira: *Erresonantzia* eta *Elementu diskurtsiboak*. Biak ala biak gizakiaren hizkuntza-portaeraren dimentsio subjektiboaren esparrukoak dira.

Erresonantzia

Erresonantziaren⁸ kontzeptua Snow eta Benford egileek (1988; Benford eta Snow, 2000; Snow et al., 2019)⁹ darabilten zentzuan erabiltzen da ikerlan honetan: kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du, igortzen duen diskurtsoa edo markoa (ideologiak, sinesmenak, emozioak, jardunbideak) bat datorrenean herritarren markoarekin (interesak, balioak, sinesmenak), eta bien artean erresonantzia berri bat sortzen denean. Snow et al. (2019) egileek adierazten dutenez, kausa sozial baten arrakasta baloratzeko, entzuleekin erresonantzia lortu ote duen egiaztatu behar da; hori da funtsezko irizpidea. Euskara sustatzea kausa sozial mota jakin bat dela esan daiteke.

Kausa sozial baten diskurtsoak edo markoak erresonantziak lortzen baditu, bestelako ikuspegi bat zabalduko da gizartearen, eta, horri esker, aldeko pertsonak mobilizatu egingo dira, neutroak direnak hurbildu, eta aurkakoak desmobilizatu. Baina erresonantzia berririk sortzen ez bada, kausa edo mugimendu horrek ez du gizarte-arrakasta lortuko, edo biztanleriaren segmentu jakin batzuetan bakarrik lortuko du, eta beste batzuen artean desadostasunak edo erreakzio negatiboak sortuko dira (Snow et al., 2019).

Elementu diskurtsiboak

Elementu diskurtsiboak, ikerlan honetan, diskurtsoek antolatu eta adierazten dituzten ezagutzak, ideiak edo esperientziak dira; hau da, diskurtso-kate baten edo diskurtso baten katebegi edo pieza errealak dira.

Diskurtsoa oinarritzko zentzuan, eta ikerlan honetarako oso zentzu egokian, zera litzateke: “ezagutzak, ideiak edo esperientziak antolatzeke modu bat, hizkuntzan oinarritua eta testuinguru jakin batean kokatua” [guk itzulia] (Merriam-Webster, d.g.). Antzeko zentzuan, diskurtsoa “komunikazio-ekintzaren forma bat da, hizkuntzaren bidezkoa” [guk itzulia] (Johnstone eta Andrus, 2024). Era berean, diskurtsoa eta testu zehatza bereizi behar dira, ez baitute erlazio unibokorik. Izan ere, diskurtso bat askotariko testu edo elementuen bidez adieraz daiteke, eta testu edo elementu batek askotariko diskurtsoak bil ditzake.

Aipatutako bi kontzeptuak lotuz, euskara sustatzeko lan eraginkorra egin liteke Nafarroako biztanleriaren gehiengoaren artean zabaldua dauden eta gizarte-erresonantzia zabalak lortzeko aukera duten elementu diskurtsibo batzuetatik abiatuta, eta erresonantzien orde desadostasunak sor ditzaketen beste batzuk saihestuta.

⁸ Kontzeptu hori Erizeren (2022) lanean erabili zen, eta lan honetan eguneratuta jasotzen da.

⁹ Snow eta Benforden lanak markoen azterketen (*frame analysis*) korrontean kokatzen dira. Erving Goffman (1974) aipatu ohi da korronte horren hasierako garatzailatzat; gaur egunera arte iristen da korronte hori.

1.4. Gaiari buruzko lanen egoera

Ikerlan hau bakarra eta bereizgarria da. Ez dugu ezagutzen aurrez egindako honelako azterlanik, metodologia misto kualitatibo eta kuantitatiboa erabiliz egina, unibertso gisa Nafarroako biztanleria osoa harturik —ez soilik talde linguistiko bat edo bestea—, eta Nafarroako biztanleriaren sektore desberdinen artean euskararen babesari dagokionez egon daitezkeen elementu diskurtsibo erresonanteak aztertzea xede duena.

Gainera, Nafarroan, euskararekin lotuta egin diren hizkuntza-politikako lan edo plan gehienak, funtsean, hizkuntza sustatzearen aldeko erakundeen eta pertsonen hausnarketetan edo iritzietan oinarritu dira, eta hein txiki batean bakarrik hartu dituzte kontuan gaztelaniadunen edo euskaratik urruti dauden pertsonen ikuspuntuak¹⁰, nahiz eta, paradoxikoki, lan horien xedea gizarte osoan eragitea den, eta ez soilik aldeko sektoreetan.

Aitzitik, Nafarroan badago beste azterketa-ildo bat, ikerketa honen egileek edo Eusko Ikaskuntzak (azterlan honen sustatzailea denak) jorratu dutena, euskara sustatzearen alde egon ohi den nafar biztanleriaren sektoretik haratago erresonantzia soziala izan dezaketen ikuspuntuak identifikatzea xede duena, nahiz eta oraingo lanaren bestelako metodologiak edo dimentsio materialak erabili. Hona hemen ildo horretako zenbait lan: Erize (2001, 2018 eta 2022; Eusko Ikaskuntza eta Gobierno de Navarra-Nafarroako Gobernua (2022); Nausia et al. (d.g.); eta Vilches (2002).

Euskal Autonomia Erkidegoan bada ikerlan bat, Nafarroa aztertzen ez badu ere honako lan honen aurrekaritzat har litekeena: Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016). Ikerlan horretan, antzeko metodologia mistoa erabili zuten, eta eskuartearen dugun lanaren egileetako batek hartu zuen parte.

Ikerketa hau aipatutako ildo horretan kokatzen da, eta bere iradokizun berriak jasotzen ditu; esate baterako, bestea ezagutzeko eta onartzeko lan egin beharra, orain arte baino arreta handiagoa ematea besteari (Nausia et al., d.g.), eta, ikerketa mailan, gaian modu kualitatiboan eta kuantitatiboan sakondu beharra (Erize, 2022).

Badira Nafarroako euskarari buruzko beste azterlan kuantitatibo batzuk ere, hala nola Azcona (1985), CIES (1990) edo Vilches eta Cosín (1995). Azterlan kuantitatiboen kasu berezi bat euskaraz hitz egiten den lurralde guztiei buruzko *Inkesta Soziolinguistikoa* da (bere zazpi edizioak, 1991-2021), eta aurrerago aipatuko dugu. Azterlan horren datuak eskuragarri daude Euskararen Adierazle Sistemari (Nafarroako Gobernua et al., 2024)¹¹.

10 Ikus, esaterako, 2016-2019 aldirako *Euskararen I. Plan Estrategikoaren* (Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra, 2017) mahai teknikoetan parte hartu zuten eragileen zerrenda, bai eta *Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027)* zirriborroaren mahai teknikoetan parte hartu zuten eragileen zerrenda ere (2021).

11 Ikerlan honetan *Inkesta Soziolinguistikoa* lanaren hainbat ediziotako (1991-2021) datuak aipatzen direnean, Euskararen Adierazle Sistematik jasoak izango dira (Nafarroako Gobernua et al., 2024).

Bestalde, badira euskararen edo eskualdeetako nahiz eremu urriko beste hizkuntza batzuen egoera sozialaren dimentsio subjektiboari buruzko zenbait lan aipagarri, eta hemen aipatuko ditugu batzuk (jakinik ezinezkoa dela guztien berri ematea): Amorrortu et al. (2009), Castell et al. (d.g.), Gomashie (2023), Ianos et al. (2023), Massaguer (2022), Murray et al. (2023), edo Weinstock (2015).

Nafarroako euskara sustatzeko jarrerak Inkesta Soziolinguistikoa (1991-2021) lanean

Inkesta Soziolinguistikoa (1991-2021) delakoan jorratutako gai bat euskararen sustapenari buruzko jarrerena da. Inkesta horren arabera, 2021ean hauek ziren euskara sustatzeari buruzko jarrerak Nafarroan: aldekoa eta oso aldekoa, % 30; ez aldekoa eta ez aurkakoa, % 33; eta aurkakoa eta oso aurkakoa, % 37 (Nafarroako Gobernua et al., 2024).

Esan behar da datu horiek (Nafarroako euskarari buruzko lanetan eskuarki onartuak, baita Erizek eta Vilchesek egindako aurreko azterlanetan ere) ez datozela bat ikerketa honetan lortutakoekin (ikus “3.3 Biztanleriak euskara sustatzearen alde duen jarrera”).

Beste hizkuntzetako hizkuntza-jarrerari buruzko azterlanak

Halaber, lagungarria izan daiteke eskualdeetako edo eremu urriko beste hizkuntza batzuen inguruko jarrerari buruz argitaratu diren datuak kontuan hartzea, nahiz eta hizkuntza guztietan ez dauden jarreraren inguruko adierazleak, eta eskuragarri daudenak ez diren era homogeneoan alderagarriak. Honako hauek aipa daitezke:

Europar Batasunean (European Union, 2024): biztanleriaren % 84 ados zegoen “eskualdeetako eta eremu urriko” hizkuntzak babestearekin.

Galesen (Welsh Government-Llywodraeth Cymru, 2018): 2017an, biztanleen % 67k uste zuen lan gehiago egin beharra zegoela Galesko hizkuntzaren alde.

Katalunian (Instituto de Estadística de Cataluña, 2019): 2018an, biztanleen % 69k adierazi zuen nahiago zuela etorkizunean katalanez bakarrik hitz egin, edo gaztelaniaz bezainbeste edo gehiago hitz egin katalanez.

Valentziako Autonomia Erkidegoan: “gaur egun, hizkuntza-leialtasunaren mailari eta hizkuntzaren eta lurraldearen arteko identitate-harremanari dagokienez, leialtasun-indize negatiboa lortu da (...), eta gizarte-identitatearen ikur gisa valentzierak izan duen atxikimendua jaitsi egin da” (Gimeno eta Rodrigo, 2018, 378. or.).

Balearretako katalanaren kasuan, Castell eta beste egile batzuek (Castell et al., d.g.) aipatzen dutenez, haien ikerketan parte hartu zuten zenbait informatzailek eskolaren eremuan hizkuntza ezarri eta derrigortu izanaren pertzepzioa zuten; eta, era berean, derrigortasuna saihestearen alde azaldu ziren informatzaileak, hizkuntza bat inposatzeak gizartean gaitzespena sortzen duela argudiatuta. Ikerlan horren egileen iritziz, litekeena da hizkuntza-plangintzako jarduerak eragina izatea katalana inposatutako hizkuntza dela sentitze horretan; izan ere, jarduera horietan, katalanaren erabilera derrigorrezkoa duten zenbait eremu zehazteko joera dago, eta, halaber, funtzio sozial batzuetan, katalanaren ezagutza egiaztatu beharra dago.

Irlanderaren kasuan ere, Murray eta beste egile batzuek (Murray et al., 2023) esaten dute irlanderak derrigorrezko hizkuntza gisa duen estatusa curriculum nazionalaren alderdirik eztabaidatuenetako bat bezala agertzen ari dela.

Laburbilduz, era desberdinean eta gizartearen onarpen- eta desadostasun-maila desberdinekin bada ere, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza guztietan agertzen da zergatik eta zertarako existitu behar diren galdera. Horixe da ikerketa honen sakoneko gaia, modu berritzaile eta desberdin batean egina.

1.5. Helburuak

Ikerketa honek helburu nagusi bat eta helburu espezifiko bat ditu.

- Helburu nagusia: ikerlaneko parte-hartzaileen artean antzera azaltzen diren elementu diskurtsiboak —Nafarroan euskara sustatzeari buruzkoak— identifikatzea eta aztertzea; izan ere, elementu diskurtsibo horiek ikerketako parte-hartzaileen artean erresonantzia lortu badute, biztanleria orokorrean ere erresonantzia soziala lor lezake, eta lurraldean euskara sustatzea ahalbidetu.
- Helburu espezifikoak: euskararen sustapenaren inguruan identifikatutako elementu diskurtsiboen oinarritzko banaketa soziala aztertzea, hizkuntza-taldeak (euskaldunak eta gaztelaniadunak), adin-taldeak, generoa eta lurralde soziolinguistikoak kontuan hartuta.

1.6. Hipotesia

Hipotesia¹² da badaudela elementu diskurtsibo batzuk, Nafarroako sektore sozial desberdinen artean erresonantzia soziala lor dezaketenak, euskara lurralde horretan sustatzeko aukera ematen dutenak, eta ikerketa honen bidez identifika eta azter daitezkeenak.

1.7. Metodologia

Lan hau ikerketa originala eta enpiriko¹³ prospektiboa da, eta euskarak Nafarroan duen errealitate soziala aztertzen du. Proiektu konplexua da, metodologia mistoan oinarritua, eta behaketa eta analisisa ikuspegi kualitatibo batean eta ondorengo metrika kuantitatiboan txertatzen ditu.

1.7.1. Ikuspegi kualitatiboa

Egiturazko ikuspuntua justifikatuta dago hemen, ikuspegi irekia eta aurreiritzirik gabea ematen diolako Nafarroan iritzien eta jarreraren aldetik etengabe aldatzen ari den bilakaera soziolinguistikoari. Errealitate komunitarioa osatzen duten gizarte-taldeen diotena entzutea bilatzen du, benetan dauden diskurtsoak analitikoki deszifratzeko, bai kristalizatuta dauden dimentsioak eta bai sortze-prozesuan daudenak. Talde-saioetako partaideei ahots aktiboa eta gogoetatsua ematea da kontua, haien diskurtsoa ikertzaileen balizko interesen arabera mugatuko luketen alde aurreko galderarik egin gabe, hiztunen berezko subjektibotasuna lehenetsita. Finean,

12 Lan honen egileen aurretiko ikerketa enpirikoetatik eratorritako hipotesia (ikus "1.4 Gaiari buruzko lanen egoera").

13 Kontzeptuak grezieran du etimologia: "behaketaren edo esperientziaren bidez ikasteko gaitasuna".

saihestu egin behar da erantzunak ikertzaileak zehaztutako eremu semantikoetara mugatzea. Izan ere, mugatze horren ondorioz, oso gutxitan hautematen dira gizarte-egoera berriak, edo ezkutuko aldaketak gizartearen iritzi eta jarretan. J. Ibáñezek (1992) adierazi zuen bezala, galde-sorta bidezko ikerketa kuantitatiboan galdetzen den horri bakarrik erantzuten zaio, eta horrek mugatu egiten du gizarte-errealitatean azaleratzen ari denari buruzko ezagutza.

Kristalizatutako diskurtso sozialak aztertzeke, egokiagoa da eztabaida-taldearen teknika erabiltzea. Kasu honetan, euskarari buruz sortzen ari diren edota aldatzen ari diren diskurtsoak ezagutzeko, oso egokitzat jo dira triangelu erako taldeak —talde pertsonalizatuak ere esaten zaie— (Conde, 2008; Ruiz, 2012). Talde pertsonalizatu horietan, dinamika aktiboagoa da, hitz-jarioa handiagoa izaten da, eta horrek erraztu egiten du parte-hartzaileen diskurtsoa “ni”-aren eremutik “gurea” den diskurtsoa eraikitzea igarotzea, kontakizun intimista, pertsonala eta esperientziala eraikitzeetik hizketa sozialaren eta partekatutako horren eremura igarotzea, eta, kasu gehienetan, gizartearen jada txertatuta eta adostuta dauden hizketen multzoa errepikatzea. Ikerketa kualitatiboaren arloan dugun esperientziari esker eta triangelu erako taldeen jarraibide teknikoak eta preskripziokoak kontuan hartuta, lau kideko taldeak osatu genituen saio guztietan. Hala, genero-parekotasuna ziurtatu dugu diseinu guztietan, eta diskurtso-saturazioa bermatu dugu, isilak diren edo oso gutxi hitz egiten duten taldekideak dituzten taldeetan triangulazioa haustea saihestu baitugu.

Bederatzi talde-saio egin dira guztira. Horiek diseinatzeko orduan, ikerketaren xederako egokitasun handikoak diren kuota selektiboak hartu dira kontuan: adina (35 urtetik beherakoak, 36-55 urtekoak eta 56 urtetik gorakoak), generoa (talde guztietan parekotasuna egon da), jatorria (erkidegoan jaiotako biztanleak, beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako pertsonak eta beste herrialde batzuetatik etorritakoak), hizkuntza (bi talde euskaraz aritu dira), estatus sozioekonomikoa, lanbidea, seme-alabak dituzten ala ez, eta Nafarroako eskualdeak¹⁴. Honako hauek izan dira, laburbilduta, saioen diseinuaren ezaugarriak:

1. Larraun-Leitzaldeak: gazte euskaldunak, 35 urtetik beherakoak; saioa euskaraz.
2. Baztan-Bortziriak: 36 eta 55 urte bitarteko euskaldunak; saioa euskaraz.
3. Tafallako eskualdea: 36 eta 55 urte bitarteko parte-hartzaileak.
4. Tuterako eskualdea: gazteak, 35 urtetik beherakoak.
5. Lizarrerria: 56 urtetik gorako parte-hartzaileak.
6. Iruñerria: etorkinen taldea, 36 eta 55 urte bitarteko pertsonak.
7. Iruñerria: gazteak, 35 urtetik beherakoak.
8. Iruñerria: 56 urtetik gorako parte-hartzaileak.
9. Iruñerria: estatus sozioekonomiko handiko pertsonak, 36 eta 55 urte bitartekoak.

Ikertzaile-taldeak egin ditu saio guztietako gidoiak, eta bilerak bideratu ditu. Saioak euskarri digitalean grabatu eta hitzez hitz transkribatu dira. Azkenik, talde-dinamiketarik sortutako testuen edukiaren analisi kualitatiboa egin da.

14 Konfidentzialtasun handiagoa eta asepsia diskurtsiboa lortze aldera, bilerak hoteletan eta ikerketa kualitatiborako berariazko guneetan egin dira. Parte-hartzaileen hautaketa profesionala ADR enpresak egin du. Landa-lana 2023ko martxoaren 10etik 31ra egin da.

1.7.2 Ikuspegi kuantitatiboa

Ikerketaren bigarren fasean, eta fase kualitatiboan jasotako jarrera eta diskurtso nagusiak kuantifikatzeko, inkesta bat egin da, Nafarroako Foru Erkidegoan bizi diren 16 urtetik gorako biztanle guztiak barnean hartuta.

Lehenik eta behin, ikerketa-taldeak berak berrogeita bat (41) itemeko galde-sorta bat diseinatu du, talde-dinamiketan sortutako elementu diskurtsiboetan oinarrituta. Galde-sorta ez da ikertzaileen aurreiritzietan eta/edo hipotesietan oinarrituta eraiki, baizik eta ikertutako pertsonen iritzi- eta jarrera-ildoen arabera. Horregatik, galde-sortako galderetako batzuk ez daude ohiko beste ikerketa soziolinguistiko batzuen eskari prospektibo klasikoekin lotuta.

Hurrengo urrats metodologikoak azterlanaren unibertsoaren lagin geruzatu eta proportzionala diseinatzea eskatzen zuen, adin-tarteen, sexuen eta Nafarroako eskualdeen arabera.

Nafarroako Estatistika Erakundearen (Nastat) datuen arabera (Instituto de Estadística de Navarra, 2024b), 2023ko urtarrilaren 1ean Nafarroako biztanleria honela banatuta zegoen adinaren eta sexuaren arabera (1. taula):

1. taula. Nafarroako biztanleria adin-taldean eta sexuaren arabera, 2023ko urtarrilaren 1ean

Biztanleria	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA
0 - 14 urte	50.520	47.909	98.429
15 - 44 urte	119.754	116.203	235.957
45 - 64 urte	101.268	99.067	200.335
65 urte eta gehiago	61.033	76.401	137.434
GUZTIRA	332.575	339.580	672.155

Datuen ordezkagarritasun estatistiko handiagoa lortzeko eta lagin-errorea minimizatzeko, elkarrizketa-kopuru handia egitea erabaki zen (900), eta, azkenean, bederatziehun eta hiru elkarrizketa (903) egin dira guztira. Elkarrizketak telefono-dei bidez eta CATI (Computer Assisted Telephone Interview) sistemaren bidez egin dira. 2. taulan, elkarrizketen banaketa osoa jaso da, adin-taldean eta sexuaren arabera:

2. taula. Laginaren banaketa, adin-taldean eta sexuaren arabera

LAGINA Sexua/Adina	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA
16-30 urte	88	83	171
31-45 urte	107	106	213
46-64 urte	151	148	299
65 urte eta gehiago	96	121	217
GUZTIRA	442	458	900

Lagina Nafarroako lurraldeen arteko ezberdintasunen arabera optimizatzeko, elkarrizketak proportzionalki banatu dira Nafarroako zazpi eskualdeetan, biztanleriaren, adin-taldeen eta sexuaren arabera (ikus 3. taula). 3. taulan, eskualde bakoitzari esleitutako elkarrizketa guztiak adierazi dira:

3. taula. Laginaren banaketa Nafarroako eskualdeen arabera

LAGINA, eskualdeka	GUZTIRA
I Ipar-mendebaldea	101
II Pirinioaldea	20
III Iruñerria	468
IV Estellerria	67
V Erdialdea	43
VI Goi Erribera	78
VII Behe Erribera ¹⁵	123
GUZTIRA	900



Laburbilduz, ikerketaren fitxa teknikoak, inkesta-fasean, parametro hauek betetzen ditu:

- Unibertsoa (N) = 558.282 (+ 16 urte).
- Konfiantza-maila: 2σ (% 95,5).
- Lagin-errorea: $\pm$ % 3,3.
- Hipotesia: P = Q = % 50.
- Elkarrizketak (n): 903, telefono bidezkoak. Lagindutako populazio-entitateak ehun eta hogeita hamahiru (133) izan dira guztira.
- Landa-lanaren data: 2024ko otsailaren 14tik martxoaren 17ra (CPS Iritzi eta Merkatu Ikerketak).

Elkarrizketa-prozesua amaituta, galdera irekiak kodetu dira, eta datuak Barbwin 7.0 programa informatikoan tratatu dira. Emaitzak hobeto ulertzeko, datu kuantitatiboen analisiaren kapituluan, aldagai gurutzatuak dituzten grafikoak eta taulak erantsi dira, Khi-karratuaren (X^2) asoziazio estatistikoaren testa gehituta.

¹⁵ Behe Erribera-ko eskualdea: Tuterako Erribera bezala ezaguna baita ere


Sintesi analitiko hobe egiteko, aldagai anitzeko analisia¹⁶ erabili da, bereziki, egokitasun-analisi sinplea (ACS) deritzona (egokitasun-analisi faktoriala ere esaten zaio). Múria eta Gil egileek (1998, 184. eta 186. or.) adierazten duten moduan:

Egokitasun-analisi sinplearen abiapuntua zenbaki positiboen matrize bat izango da, normalean kontingentzia-taula bat; eta haren gelaxkako balioak maiztasun gurutzatuak, batezbesteko aritmetikoak edo batuketak izango dira. Analisiaren helburua da zutabeen erantzun-modalitateen edo -alternatiben eta errenkaden erantzun-modalitateen edo -alternatiben artean zer erlazio dagoen aurkitzea (antzekotasunak edo desberdintasunak aurkitzea). (...) Egokitasun-analisi sinplearen helburua, hain zuzen, zutabeetako itemen eta errenkadetako itemen koordinatuen mapa bat irudikatzea da, puntuen hurbiltasunarekin loturiko asoziazio-erlazio bat sortzeko. Normalean, analisisian garrantzi handiena duten bi faktoreen gainean aurkezten da mapa, hau da, berezko balio handiena duten faktoreen gainean.

Txostenaren hurrengo ataletan, ikerketaren emaitzen analisia aurkeztuko da, bai azterketa kualitatiboarena, bai bigarren fasean garatutako inkesta-prozesuarena.

16 Datuak murrizteko teknikiei eta egokitasun sinpleari dagokienez, Múria eta Gilek honako hau adierazten dute (1998, 183. or.): "Askotan, ikertzaileak informazioaren ikuspegi orokor bat izan nahi du, baina ezin izaten da lortu, informazio-bolumena handia delako. Aldagai anitzeko analisiari esker, lorturiko datuen atzean zer dagoen azter dezake ikertzaileak, eta datuen azpian dauden egituretara hurbildu daiteke".

2. E-mail analysis



2. EMAITZEN ANALISIA

2.1. Txosten kualitatiboa

Talde-dinamika kualitatiboetan parte hartu duten pertsonak esandakoak entzun ondoren, eta haiek beren ikuspuntutik edo subjektibotasunetik adierazi duten informazio ugaria jasota, talde guztietan edo gehienetan antzeko moduan azaldu diren elementu diskurtsiboak identifikatu eta aztertu dira¹⁷, bereziki, txosten kualitatiboaren atal honetan; izan ere, horien inguruan parte-hartzaileen berrespena edo erresonantziak sortu badira, gizartean ere erresonantziak sor litezke. Elementu diskurtsibo horiek elkarren artean lotuko lirateke, kate diskurtsiboen gisara.

Emaizak lau ataletan aurkeztuko dira, ikerketaren helburuen arabera sailkatuta:

- Talde-dinamiketan antzera agertu diren euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsiboak.
- Euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsibo horien banaketa soziala.
- Bestelako elementu diskurtsiboak.
- Begirada sintetikoa eta gogoetatsua.

2.1.1. Talde-dinamiketan antzera agertu diren euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsiboak

Honako hauek dira atal honetan aurkeztu diren euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsiboak:

- Nafar izatearen sentimenduaren bidez batzen dira erkidego honetako pertsonak eta eskualdeak, sozialki eta hizkuntza aldetik oso ezberdinak diren arren.
- Euskara kultur aberastasuna da, babestu beharrekoa.
- Euskara eta politika: euskara ez da alderdikieriaz erabili behar, ez alde batek ez besteak, hizkuntzaren kalterako baita.
- Elkarrekiko errespetua eta tolerantzia euskararen eta gaztelaniaren artean, eta haien hiltunen artean.
- Euskara: borondatezkoa, ez derrigorrezkoa.
- Euskarazko edo euskararen irakaskuntza: bai, hautu hori egiten dutenentzat, gainerakoak behartu gabe.
- Euskara Administrazio publikoetako lanpostuetan: zerbitzua emateko, administrazioa kokatuta dagoen ingurunearen arabera eska daiteke, ez orokorrean.
- Etorkizunean euskarak aurrera poliki egingo duelako pertzepzioa.

¹⁷ Alegia, James P. Spradleyk (2016) ikerketa etnografikoan eremu eta gai kultural izenekin deitzen dituenak identifikatzea eta aztertzea.

Nafar izatearen sentimenduaren bidez batzen dira erkidego honetako pertsonak eta eskualdeak, sozialki eta hizkuntza aldetik oso ezberdinak diren arren

Talde guztiek azpimarratu zuten Nafarroa askotarikoa dela gizarteari, geografiari, ideologiari eta hizkuntzari dagokienez; aldi berean, irizten zioten nafar izateak lotzen dituela elkarren artean hain desberdinak diren herritarrak, hau da, Nafarroakoa izatearen sentimenduak lotzen dituela. Horren laburpena izan daitezke Baztan-Bortziria eskualdeko taldearen hitzok: “Nafarroako euskaldunak gara. Arras desberdinak gara hemengoak eta bertze nafar batzuk, Erriberakoak..., baina ongi moldatzen gara guztiekin. Zerk batzen gaitu?: denak nafartarrak gara. Nafartarra den zerbait aditzen duzu eta hurbil tokatzen zaizu”.

Antzeko ikuspegia agertu zuen Iruñeko estatus altuko taldeak: “Jendea askotarikoa izan arren, azkenean kontua da Nafarroako Foru Erkidegokoak gara; erkidego berezi bat da, bere foruak ditu, bere historia du, eta denok partekatzen ditugu” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Taldeak bat etorri ziren Nafarroa bat baino gehiago daudela esatean, eta pertzepzio hori oso garrantzitsua da soziologiaren eta soziolinguistikaren ikuspegitik. Adibidez, Iruñeko gazteen taldeak hau esan zuen: “Nafarroa askotarikoa da. Paisaiak eta bizitza soziokulturalak bereizten dituzte iparraldea eta hegoaldea, batekoak eta bestekoak oso desberdinak baitira elkarren artean” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Tuterako gazteen taldea ildo beretik mintzatu zen, baina xehetasun batzuk gehitu zituen:

“Nik uste dut batean eta bestean balio desberdinak ditugula. Hegoaldea eta iparraldea ez dira gauza bera. Bien artean aldea dagoela ikusten dut. Agian ez dugu nortasun bera, izaeraz hegoaldekoak eta iparraldekoak apur bat desberdinak baikara. Hori bai, gu bezain nafar sentitzen direla uste dut. Gauza gehiago dira batzen gaituztenak bereizten gaituztenak baino. Nik uste dut nafar sentitzen dena goitik behera sentitzen dela hala. Eta nafar izateaz harro gaude, bai gu eta bai iparraldekoak ere” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Nafarroa bat baino gehiago egote horrek osagai linguistikoak ere baditu. Iruñeko gazteen taldeak adierazi zuenez, “hemen bi hizkuntzatan mintzo gara, euskaraz eta gaztelaniaz” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Eta Lizarrako taldean zehaztu egin zuten: “Nafarroa eskualde txikia da, baina askotarikoa denez eta hizkuntzetan denetarik duenez, ba gizartea bera ere askotarikoa dela uste dut” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Halaber, etorkinen taldearen arabera, “euskara da Nafarroa eta beste erkidego batzuk nabarmen bereizten dituen”.

Aniztasunarekin batera, talde-dinamika batzuetan, iparraldearen eta hegoaldearen artean elkarrekiko ezagutarik ez dagoela aipatu zuten. Larraungo saioan, adibidez, ideia hori azpimarratu zuten: “Nafarroako hegoaldea eta iparraldea desberdinak gara hizkuntza eta kultura aldetik, eta nahiko ezezagunak gara gure artean”.

Euskara kultur aberastasuna da, babestu beharrekoa

Talde-dinamika guztietan, euskara Nafarroako berezko hizkuntza dela esan zuten, eta gehienek nabarmendu zuten babestu beharreko kultur aberastasuna dela. Hala, Lizarrako taldearen esanetan, “euskara hemengo hizkuntza da, Nafarroakoa, bertakoa, geurea, sustraietakoa; euskarak hobera egiten jarrai dezan nahiko genuke” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Iruñeko gazteen taldea ere uste berekoa zen: “Askotariko izaera hori eta aniztasuna Nafarroaren berezko aberastasuna dira. Horregatik, guztia errespetatzea guretzako aukera garrantzitsua izango litzatekeela uste dut, gure onerako izango litzatekeela” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Etorkinen taldea ere bat zetorren: “Euskara hemengo hizkuntza da. Hizkuntza kulturaren bereizgarria da, Nafarroaren kultur aberastasuna da” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Iruñeko helduen dinamikan, honako ideia hauek batu zituzten: euskararen sustapena, naturaltasuna, bertakoa izatea eta pertsonen borondatea: “Euskara naturaltasunez sustatu beharko litzateke. Hori nahi duen jendea dagoelako eta, gainera, geurea delako” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Aipatutakoen aldean bestelakoak diren zehaztasun batzuk adierazi zituzten Tuterako gazteek. Nafarroako hizkuntza-aniztasuna onartu zuten, euskara Nafarroaren iparraldeko biztanleen hizkuntza dela ere bai, baina ez zuten beraientzat aintzat hartzen.

Nafarroan euskara babestearen aurkako iritzirik ez zen plazaratu inongo saiotan.

Euskara eta politika: euskara ez da alderdikieriaz erabili behar, ez alde batek ez besteak, hizkuntzaren kalterako baita

Oro har, taldeak bat etorri ziren honako honetan: euskara hizkuntza da, kultura da, eta ez da komeni alderdikieriaz erabiltzea, horrek sozialki kalte egiten baitio. Ildo horretan, Baztan-Bortzirietako taldeak honako hau adierazi zuen: “Euskara politikatik desbinkulatu beharko zen, joan beharko da bertze alde batetik”. Eta talde berberak azalpen hau gehitu zuen: “Ez bada euskara politikarekin lotzen, honek ez nau ni zanpatzen eta bizitza elkarrekin egiten dugu... hori izan daiteke jarrera on bat”.

Era orokorrago batean, Tafallako taldeak euskara, ondarea, kultura, euskara politikakeriaz ez erabiltzea eta hizkuntzarentzako giro naturala lortzea lotu zituen: “Euskara hizkuntza bat da, ondarea da, kultura da, eta ez da politikoki erabili behar. Euskara bizitza sozialean normaltasun-giroan egon dadin lortzeko modurik onena euskara ez politizatzea litzateke” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Iruñeko gazteen taldeak egoera horrek euskarari egiten dion kaltea azpimarratu zuen: “Batzuen eta besteen arteko gatazka politikoak hizkuntzaren kalterako dira. Politika alde batera utzi beharko litzateke, politikarik eta besterik gabe egin. Politika sartuz gero, jendeak atzera egingo du” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Lizarrako taldea era berean mintzatu zen: “Horrek dena hondatzen du” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Etorkinen taldeak adierazi zuen harrigarria dela Nafarroan eta Espainian, eskuarki, hizkuntza politikoki erabiltzea:

“Tamalez, Espainiara iritsi nintzenean, harritu egin nintzen ikusi nuenean hizkuntza (valentziera, katalana, euskara) zatitu egiten duen kontu politikoa dela, ez dela pertsonen kontua. Hizkuntzak ez du politikarekin zerikusirik, politikatik haratago doa, kulturarekin dago lotuago. Euskara gai politiko gatazkatsua da. Bai. Hori nabaria da ikasgelan, alderdi politikoetan, Erriberan igartzen da, iparraldean ere bai. Badirudi Espainian etengabeko borroka dagoela. Eremutan zatituta dago, oso. Baina lurralde honetan gehiago. Ez dut ulertzen” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Euskararen erabilera alderdikoia egungo arazoa ere badela aipatu zuten saio gehienetan, ez dela iraganeko kontua bakarrik. Hala ere, Iruñeko helduen talde-dinamikan, baten batek uste zuen “gaur egun euskararen auzia gizartearen leundu egin dela” [jatorrizkoa gaztelaniaz]; eta Baztan-Bortzirietako taldean ere iraganeko kontutzat jo zuten: “Lehen nahasi egiten zen hizkuntza politikarekin, orain ez hainbertze”.

Tafallan proposatu zuten “euskararen garapena ahalbidetuko duten gutxieneko adostasunetara iristea, eta alderdi politiko bakoitzak aukera izan dezala gutxieneko horietan bere ideiak aurrera eramateko, inori eskatu gabe onetsiko ez duen konturik” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Beste talde batzuetan ere alderdien arteko akordioen alde azaldu ziren, baina uste zuten zaila dela horrelakorik lortzea, euskararen alde edo kontra egoteak botoak ematen dituen bitartean.

Elkarrekiko errespetua eta tolerantzia euskararen eta gaztelaniaren artean, eta haien hiztunen artean

Talde-saioetan adierazitako beste ideia bat elkarrekiko errespetuari eta tolerantziari buruzkoa da. Baztan-Bortzirietako taldeak honela adierazi zuen: “Euskera errespetatu, erdera errespetatu, elkar errespetatu, eta ongi egongo gara horrela. Ez du hizkuntza batek bertzea zapaldu behar”.

Ildo beretik, Lizarran “bizikidetza eta errespetua” proposatu zuten. Iruñeko gazteen taldeak aniztasunaren, aberastasunaren eta errespetuaren ideiei eutsi zien: “Askotariko izaera hori eta aniztasuna Nafarroaren berezko aberastasuna dira. Horregatik, guztia errespetatzea guretzako aukera garrantzitsua izango litzatekeela uste dut, gure onerako izango litzatekeela” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Tafallako taldeak “bi aldean aldetik tolerantzia handiagoa” [jatorrizkoa gaztelaniaz] eskatu zuen.

Halaber, guztientzako tokia egingo lukeen ikuspegia iradoki zuten. Iruñeko helduen taldean, esaterako, hau esan zen: “Batzuen eta besteen arteko iskanbilak alde batera utzi beharko lirateke, guztiek lekua izan dezaten” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Era berean, Iruñeko gazteen arabera, “euskara guztiona dela esan beharko litzateke” [jatorrizkoa gaztelaniaz], eta “euskara gainerako hizkuntzak bezala sustatu beharko litzateke” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Antzera mintzatu zen etorkinen taldea, eta guztiontzat irekita leudekeen euskarazko jarduerak eskatu zituzten: “pertsona guztiak —eta ez bakarrik euskaldunak— kontuan hartzen dituzten ekitaldiak eta jarduerak sustatzea” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Euskara: borondatezkoa, ez derrigorrezkoa

Talde guztiak bat etorri ziren euskarari gizartean eman beharko litzaiokeen trataera adieraztean: borondatezkoa izan beharko luke, ez derrigorrezkoa.

Hala, Larraungo gazteen taldeak euskaraz esan zuenez, “euskera jakiteak ez du zertan beharrezkoa izan behar”. Gauza bera zioen Baztan-Bortzirietako taldeak: “Ez naiz derrigortzearen alde”. Iruñeko helduen taldean, partaide guztien artean oso ohikoa izan den esamolde bat erabili zuten: “Inposatu gabe” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Talde-saioetan erraz azaldu zuten derrigortasunaren aurkako jarrera. Hauek dira Larraungo gazteen hitzak, adibidez: “Derrigorrezkoa jartzen duzunean zerbait, batzuek erreakzioa izan dezakete justu horregatik, ez delako hautu bat, eta delako zerbait jarri dizutena”. Tafallako taldea ere ildo beretik mintzatu zen: “Derrigortzeak etsaitasuna sortzen du, gaitzespena dakar” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Iruñeko helduen taldeak sinpatia-sentimenduaren galera aipatu zuen: “Zerbait inposatu nahi izatean, horrekiko sinpatia galtzen da” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Iruñeko estatus handiko taldean zehaztu zuten: “Ez dago euskararekiko antipatiarik, inposizioarekiko eta segregazioarekiko antipatia baizik” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Euskara derrigortzeko asmorik balego gatazkak pizteko arriskua egongo litzatekeela adierazten zen, Baztan-Bortzirietako taldeak esan zuen bezala: “Derrigortze horrek gatazkak sortuko lituzke”. Iruñeko helduen taldeak ere ohartarazi zuen euskararen inposaketa orokorrak talka egiteko arriskua zekarrela: “Jende askori inposatuz gero, Erriberakoei, esaterako, liskarra sortuko litzateke” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Eta Tuterako gazteen taldeak euskaraz ez dakitenen bazterketa-arriskua aipatu zuen: “Ez dadila baztertzaileria izan, ez dadila inor baztertua izan euskaraz ez dakielako” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Iruñeko helduen saioan, inbutuarekin sartu esamoldea erabili zuten derrigortzearen sinonimo gisa, eta bi bando egotearen inguruko pertzepzio sozialak aipatu zituzten: euskara inbutuarekin sartuko dietela uste dutenen bandoa (hau da, euskara behartuta pairatuko luketela uste dutenena), batetik, eta euskara inbutuarekin sartu nahi dutenena (hau da, euskara derrigortu nahiko luketen taldea), bestetik; eta gehiengo soziala tartean egongo litzateke:

“Oraindik ere bandoak daude: batean, eskuineko jendea dago, euskara inbutuarekin sartu nahi diguten horiena dela uste dutenak, eta, beste aldean, euskara ustez inbutuarekin sartu nahi diguten horiek daude. Eta tartean gehiengoa gaude, euskara gizartean ondo txertatuko litzatekeela eta gehiago susta litekeela uste dugunok” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Borondatezko jokaera eta derrigortzea aurrez aurre. Derrigortzearen —dela euskarari uko egitera, dela euskara ikastera— ideiaaren aurrean, taldeek borondatezko jokabidea proposatu zuten, hala nola Lizarrakoak: “Ez zu eta ez ni ez gaitzatela behartu, ez hizkuntzari uko egitera ez hura ikastera. Bakoitza libre da, nahi duen hizkuntza ikasteko aukera izan dezala, eta, hori bai, beti errespetuan eta bizikidetzan oinarrituta. Inongo obligaziorik gabe” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Baztan-Bortzirietako taldeak “aukeran ematea euskera” proposatu zuen.

Tuterako gazteen taldeak ere bai: “Euskara hautazko gisa eskaintzea, balio erantsi modura” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Ez zen inongo taldetan azaldu euskara sustatzeari/oztopatzeari buruzko ardatzean muturreko eremuetan koka zitekeen iritzirik: ez euskara Nafarroatik desagertu beharko litzatekeela zioenik, ez eta Nafarroa osoan nahitaez ezarri beharko litzatekeela zioenik ere.

Euskarazko edo euskararen irakaskuntza: bai, hautu hori egiten dutenentzat, gainerakoak behartu gabe

Saio guztietan azaldu zen euskarazko edo euskararen irakaskuntzaren gaia. Etorkinen taldeak izan ezik, gainerakoek uste zuten euskarazko irakaskuntza edo euskara irakasgaia horien aldeko hautua egin dutenek bakarrik jaso behar dutela, gainerakoak derrigortu gabe. Horren adibidea dira Lizarrako taldearen hitz hauek: “Guztia euskaraz ikasi nahi duenak egin dezala, gaztelaniaz ikasi eta euskara ikasgai gisa izan nahi duenak ere egin dezala, eta bata zein bestea nahi ez dituenak ere aukera hori izan dezala” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Baztan-Bortzirietako taldeak ere ildo beretik hitz egin zuen: “Ez derrigortu euskera ikastera, euskera aukeran eman”. Iruñeko gazteen taldeak ere eskolako hizkuntza-eredua borondatez aukeratzearen garrantzia azpimarratu zuen: “Bakoitzak nahi duen eredua aukeratuko du, balioak, sinesmenak edo dena delakoa dela medio, eta guztia da errespetagarria” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Tuterako taldea euskararen ikasgaia (A eredua deritzona) Nafarroa osoan ezartzearen aurka azaldu zen, inposiziotzat hartu baitzuen: “Nik ez nuke nahiko. Nik ere ez. Ez, inposatzen ari zaizkizulako, derrigorrezko ikasgaia da” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Iruñeko estatus altuko taldea ere euskara irakaskuntza osoan ezartzearen aurka azaldu zen: “Euskararen aldeko alderdiak gehiengo osoarekin sartzen badira, eta euskara ikastetxe guztietan inposatzen bada nolabait, haur horiek, inposatuko balitz, hitz egingo lukete, baina horrek aurkako jarrera eragingo luke eta hurrengo hauteskundeetan ez dut uste irabaziko luketenik” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Etorkinen taldean, berriz, bestelako ikuspuntua azaldu zen, euskara ikasgaia Nafarroako hezkuntza-sistema orokorrean sartzeari eskatu baitzuten, ez dadila hautazko ikasgaia izan: “Euskarak ikasgaia izan behar du. Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan sar dezatela, hemengoa delako, gaztelania bezala” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Dena den, proposamena aurrera eramatea zaila dela onartzen zuten: “Ez dakit derrigorrezko egin daitekeen derrigor hitza erabili gabe. Parlamentuan norbait ateratzen bada esanez ‘ezin da derrigorrezkoa izan’, inork ez du halakorik eskatuko” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Etorkinen taldeko partaide baten hitzetan, “Nafarroako gizarteak ez luke euskararen aurka protestatuko, derrigortzearen aurka baizik” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Talde horretako kideek beren jarrera arrazoitu zuten. Beste herrialde batzuetatik etorri zirenez Nafarroara (batzuetan, lehenago beste autonomia-erkidego batzuetatik igarota), nahi izango zuketena irakaskuntza-eredu bakarrarekin topo egin, haur guztiei elkarrekin euskara irakaskai gisa irakatsiko liekeena, eta, horren orde, euskarazkoen eta gaztelaniazkoen arteko hesi batekin topo egin zuten, eta hesi hori desagertzea nahiko lukete. Kexu ziren: “Euskararen aldekoek eta Nafarroako Gobernuak hesia jarri dute eskolan. Euskaraz ikasten dutenak eta gaztelaniaz ikasten dutenak bereizten dituzten hesiak daude ikastetxeetan. Ai ene! Jolas-orduetan ere bai. ‘Ni hemengoa naiz eta zuk ez didazu hori kenduko’, horrelako zerbait adierazten da, ez dakit” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Euskara ikasgai gisa orokorrean ezartzearekin batera, euskara hutsezko ereduak desagertzea proposatu zuten etorkinen taldeko partaideetako batzuek, gainerako parte-hartzaileen balizko oniritziarekin: “Euskara esaten ari garen moduan lantzeko, euskarazko eredu bananduak desagertu beharko lirateke; bestela, kontua izango da irakaskuntza hemen euskaraz dela eta hemen ez, eta horrek ez du funtzionatzen gaur egun” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Euskara Administrazio publikoetako lanpostuetan: zerbitzua emateko, administrazioa kokatuta dagoen ingurunearen arabera eska daiteke, ez orokorrean

Taldeetan aipatu zutenez, Administrazioak gaitasuna izan behar du zerbitzuak euskaraz emateko hala eskatzen dutenei. Adibidez, Tafallako taldeak hala adierazi zuen: “Euskaraz dakitenei euskaraz eskain diezaietela arreta, eta gaztelaniadunei, gaztelaniaz” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Zerbitzu hori eskaini ahal izateko, Administrazioen kontratazioetako euskara-eskakizunak Administrazioak kokatuta dauden tokien arabera egin beharko liratekeela esan zuten ia talde guztietan. Nolabait, zerbitzua ematen den ingurunean dagoen euskal hiztunen dentsitatearekin lotu zuten euskara-eskakizunen gaia.

Lizarrako taldeak mailaketa-proposamen bat egin zuen: “Euskara eskatzea lanean, eskualdearen arabera, herrien arabera: Baztanen normala da mediku batek euskaraz hitz egitea, jende guztiak euskaraz hitz egiten duelako; Iruñean, berriz, auzoaren arabera; eta Erriberara bazoaz, hor ez” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Antzeko proposamena egin zuten Baztan-Bortzirietako dinamikan: “Euskara eskatzea, segun zer zonalde, Administrazioa kokatuta dagoen tokiaren arabera: Elizondon dudik gabe; Iruñean, euskaldunen proportzioan; Tudela batean ez zait hain beharrezkoa iruditzen”.

Antzera mintzatu ziren Larraungo gazteak ere: “Euskara eskatzea, segun zer eremutan. Hemen iparraldean exijitu; mistoan toki batzuetan bai, beste batzuetan ez; Erriberan, adibidez, ahalegina bakarrik”.

Tuterako gazteen taldeak ere, euskaraz asko hitz egiten den eskualdeetako lanpostuetan “baloratzea” proposatu zuen: “Nire ustez, Elizondora bidaltzen bazaituzte mediku-lanak egitera, euskaraz ez jakitea oztupo izan daiteke zuretzat; Nafarroako zenbait lekutan euskaraz ez badakizu galduta zaude, horregatik uste dut eskatzen dutela” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Euskara gainerako hizkuntzen maila berean puntuatzeko aukera iradoki zen, modu osagarrian. Horrela azaldu zuten Lizarran: “Oposizioetan, euskara gainerako hizkuntzen maila berean baloratzea, ez ditzala puntu gehiago eman” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Gauza bera proposatu zuen Tafallako taldeak: “Hizkuntzek puntuak ematen badituzte, eta horien artean hemengoa badago, argi dago maila berean daudela” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Hala ere, talde batzuetan kexak adierazi zituzten euskarak puntu gehiegi ematen dituelakoan. Iritzi hori azaldu zen, adibidez, Lizarrako taldean: “Euskarak oposizioetan puntu gehiegi ematea adibide bat da: deialdi askotan euskara-eskakizunak sartzea izugarrizko puntuazioarekin, justifikazio handirik gabe” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Beste kexak ere agertu ziren euskara ez dakitenei kalte egiten dien oztopotzat jotzen zutelako euskararen puntuazioa, Tuterako gazteek adierazi bezala.

Etorkizunean euskarak aurrera poliki egingo duelako pertzepzioa

Hizkuntza baten “etorkizuneko bizi-indarrari buruzko pertzepzioa” literatura soziolinguistikoko kontzeptu bat da (Allard eta Landry, 1994), eta oso erabilgarria lan honetarako. Etorkizunean euskarak gizartean izango duen bizi-indarrari buruzko pertzepzioa (aurrera egingo duen, mantendu egingo den edo atzera egingo duen) elementu diskurtsibo garrantzitsua da, pertzepzio horren esparruan kokatzen baita euskara sustatzearen inguruko jarrera, edo gizarteak eta norbanakoak hizkuntzari eskaini beharreko ahaleginari buruzko iritzia. Askotariko bizipen pertsonalak edo kolektiboak ere esparru horretan kokatzen dira; esaterako, eskaera jakin batzuen aurrean norberak sentitzen duen lasaitasuna edo premia, edo zenbait jardueraren aurrean sentitzen den gogobetetze- edo mehatxu-maila.

Etorkizunean euskarak Nafarroan izango duen bizi-indarrari buruzko pertzepzioak diskurtso-bilbe guztietan azaldu ziren. Laburbilduz, uste horien arabera, euskarak poliki egingo du aurrera (edo mantendu egingo da, edo poliki egingo du atzera, iritziak iritzi); hau da, ez du ez gorakada handirik ez gainbehera nabarmenik izango. Era berean, hainbat taldek aipatu zuten euskaldunen komunitateak jarrera aktiboa izatearen garrantzia. Horren adibide da Lizarrako taldeak adierazitakoa: “Euskarak hobera egiten jarraituko du, baina oso poliki” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Aldi berean, talde horrek jarrera aktiboaren garrantzia nabarmendu zuen: “Erritmoari eutsi behar zaio” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Antzerako iritzia azaldu zuen Tafallako taldeak: “Poliki-poliki gora egingo du. Aurrera egingo du. Gizartean errotuta dago, gobernatzen ari dena edozein dela ere” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Larraungo taldeak euskaraz adierazi zuenez, bailaran jende gehienak euskaraz daki, eta euskaraz bizitzeko aukera dago bertan: “Gure zonaldean gehienak euskaldunak dira, eta euskeraz bizi gaitezke, baita zerbitzuetan (udaletxea, medikua, tabernak, eskola) ere”. Halaber, euskarak Nafarroan aurrera egingo duelakoan zeuden talde horretako partaideak: “Aurrera joango da euskera, nik uste dut baietz”. Aldi berean, hiztunen jarrera aktiboa beharrezkoa dela azpimarratu zuten: “Transmisioa eta erabilera mantentzea guk egin behar dugun zerbaite da”. Nolanahi ere, Larraungo taldearen aburuz, euskararen erabilera kontu kezkagarria da, ahul ikusten baitzuten; transmisioa, aldiz, sendo dagoela uste zuten. Larraungo egoeraz gain, Iruñekoa ere baikor ikusten zuten: “Iruñean nik uste gero eta gehiago entzuten dela euskera, eta hor dugu abiapuntua eta igotzeko aukera”.

Baztan-Bortzirietako taldeak Larraungoaren antzeko iritzia adierazi zuen: “Hemen zona honetan ongi ohituta gaude euskerarekin, ordun ez duzu falta botatzen. Hemen, orokorrean, Administrazioak ematen duen edozein zerbitzu euskeraz hartzen duzu. Hemen ez dugu arazorik euskeraz bizitzeko”.

Gainera, Baztan-Bortzirietako taldeak ikuspegi positiboa adierazi zuen euskararen etorkizuneko bizi-indarrari buruz. Bere eskualdeari dagokionez: “Etorkizuna hemen, zonalde honetan, ikuspegi positiboa dugu, ez dela galduko”. Eta baita Nafarroa osoari dagokionez ere: “Jarrera aldetik, ez zait iruditzen jendeak gaizki begiratzen dizunik euskeraz egiteagatik. Gurasoak saiatzen dira haurrekin euskeraz, batzuetan ez dira trebeak, baina saiatzen ari dira. Eskertzekoa da esfortzu hori”. Aldi berean, gizartearen bultzada aktiboaren beharra nabarmendu zuten: “Ez ginateke akomodatu beharko, segitu behar da euskara bultzatzen”. Bestalde, eskualdeko euskararen eta euskalkien naturaltasuna eta kalitate linguistikoa zaindu beharra aipatu zuten; gai horrekiko kezka agertu zuten.

Iruñeko gazteen taldean zalantza agertu zen, euskarak apur bat gora edo apur bat behera egingo ote zuen, edo egungo egoerari eutsiko ote zion: “Agian gora egingo duela uste dut, baina ez asko. Nire iritziz, euskarak ez du nabarmen gora egiteko indarrik, bide horretan saiatzen ari diren arren. Beharbada mantendu egingo da, edo apur bat behera egingo du” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Etorkinen taldean, uste zuten euskarak ez duela ez atzera ez aurrera egingo: “Bere horretan jarraituko du, geldi, orain arte bezala eztabaidatua, eta ez hain integratuta” [jatorrizkoa gaztelaniaz]; eta erabilerak behera egingo duela aurreikusi zuten: “Duela urte batzuk gehiago entzuten zen, baina gaur egun indarra galdu du” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Egoera hori ulergaitza iruditzen zitzaien, “ez dakit erabilerak zergatik egin duen behera horrenbeste” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Azkenik, Tuterako taldeak honako hau adierazi zuen euskarak Erriberan duen etorkizunari buruz:

“Egoera ez da aldatuko Erriberan, ingurune honetan inoiz ez baita euskaraz hitz egin. Tuterako gizarteak ez du euskararik eskatzen. Hemen gutxiengo batek bakarrik eramaten ditu seme-alabak ikastolara. Ez dakigu hori guztia etorkizunean aldatuko den edo ez, ez dago gure esku. Euskararen aldeko alderdi batek gobernatzen badu eta inposatu egiten badigu, ikusiko dugu zer egingo dugun” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

2.1.2. Euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsibo horien banaketa soziala

Atal honetan, euskararen sustapenari buruz taldeetan antzera aipatu diren elementu diskurtsiboen banaketa soziala aztertzen da (elementu diskurtsibo horiek aurreko atalean azaldu dira).

Identifikatutako elementu diskurtsibo guztiak ia talde guztietan azaldu ziren, eta hori da garrantzitsuena (bederatzi talde dira, Nafarroako aniztasun linguistiko, sozial eta geografikoaren adierazgarri, “1.7 Metodologia” atalean azaltzen denez). Beraz, elementu diskurtsiboen oinarritzko banaketa soziala nahiko homogeneoa da. Antzeko iritziak adierazi zituzten euskara Nafarroako gizartean garatzeko oinarritzko irizpideei dagokienez.

Era berean, aipagarria da talde-dinamiketan ez zela desadostasun espliziturik azaldu, ez jasotako elementu diskurtsiboen inguruan, ez aipatu ez ziren beste batzuei buruz, ez taldeen barruan ez haien artean. Alde edo desadostasun txikiak besterik ez ziren azaldu (hala ere, parte-hartzaile batzuek aipatu zuten kanpo-polarizazioa nabaritzen zutela gizartean, euskararen erabilera alderdikoiarekin lotuta, 2.1.1 atalean “Euskara eta politika” zatian ikusi denez; dena den, talde-dinamiketan ez zen horrelako polarizaziorik agertu). Generoen artean ere ez zen alde nabarmenik agertu. Posizio sozialari dagokionez ere, ez zen desberdintasun aipagarrik azaldu Iruñeko estatus handiko taldearen eta gainerakoen artean.

Talde bakoitzaren testuinguru linguistikoaren, geografikoaren edo sozialaren arabera, berriz, desberdintasun eta antzekotasun nabarmenak azaldu ziren taldeek euskararen inguruan adierazitako sentimenduetan edo emozioetan, “2.1.1 Euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsiboak” atalean aipatu direnez; nolana ere, lehenago ere esan denez, edukietan ez dago desberdintasun handirik.

Adibidez, sentimenduari dagokionez, alde handia zegoen Larraun eta Baztan-Bortzirietako taldeen eta Tuterako taldearen artean: lehenengo bietako kideek euskaldun gisa hitz egin zuten beren hizkuntzari buruz, eta Tuterakoek, berriz, Erriberako gaztelaniadun gisa hitz egin zuten, beren burua sentimenduz eta geografikoki euskararekiko urrun ikusita —euskara Nafarroako biztanleriaren zati baten hizkuntza propioa dela onartu arren—. Maiz erdibideko sentimendua agertu zen taldeetan. Adibidez, Iruñeko helduen taldeko kideak euskara balioestearen alde azaldu ziren, “nahiz eta guk ez dugun hitz egiten, eta ez dugun sentitzen gure eta gure gurasoen nortasunaren parte denik” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

2.1.3. Bestelako elementu diskurtsiboak

Atal honetan, ikerketan parte hartu zuten lagunen artean azaldutako hainbat elementu diskurtsibo bildu dira, talde guztietan agertu ez baziren ere; izan ere, uste da gizartean euskararen inguruan egon daitezkeen pertzepzio batzuk islatzen dituztela, dagoeneko gauzatuta daudenak edo azaleratzen ari direnak. Elementu diskurtsibo horiek aurkeztean ez da bereizi ea euskara sustatzeko ekimenei buruzko ikuspegi positiboa edo kritikoa adierazten duten.

Euskaraz hitz egiten dutenen arteko elkarrekiko laguntza

Bi taldetan ideia bera azaldu zen: euskaraz mintzo den komunitatean asko laguntzen diote elkarri, asko mobilizatzen dira. Eta jokabide hori positibotzat jotzen zuten. Hala adierazi zuen, esaterako, Tuterako gazteen taldeak: “Komunitate horretan asko laguntzen diote elkarri. Hori positiboa da. Agian euskararen aldeko mundua gehiago mobilizatzen da euskararen aldekoa ez dena baino. Haien artean elkartzen dira. Oso komunitate sendoa dute, eta nik onartzen dut” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Iruñeko taldeak antzeko ikuspegia zuen:

“Beti uste izan dut euskaraz hitz egiten dutenen komunitatea elkartu egiten dela gauzak egiteko. Denerako! Lankidetzan musu truk jarduteaz ari naiz; zazpi edo zortzi lagun elkartzen dira, eta esaten dute: ‘egin dezagun zerbait haurrentzat’. Eta egin egiten dute. Elkarlanean aritzekoak direla iruditzen zait. Bai, nik ere hala uste dut. Agian hizkuntzari indarra emateko egiten dute” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Euskararen aldekoek hesia eraikitzen dute, banantzeko

Talde batzuetan (etorkinak, Tuterako gazteak, Iruñeko estatus handikoak) argi eta garbi aipatu zituzten hesia, banantzea, segregazioa eta antzeko hitzak, euskaldunen komunitateak sustatutako zenbait jarduerari buruz hitz egitean, hala nola euskarazko murgiltze-ereduez, lanpostuetarako euskara-eskakizunez edota euskaldunak ez direnen aurrean euskaraz mintzatzeaz.

Tuterako gazteen taldeak erabilitako hitzak dira hesia, banantzea, mugatzea, botere-ikurra, eskusio-ikurra edo bereiztea.

Etorkinen taldeak ere antzeko ideiak adierazi zituen: hesia, bereizketa, zatiketa, segregazioa, harresia, banantzea. Eta, alde horretatik, honela agertu zituzten beren pertzepzioak: “Galdetzen baduzu ‘zergatik ezin dut horretan parte hartu?’, erantzuten dizute ‘ez, horiek euskara taldekoak dira’, eta ez zaitez hor sartu! Horrela, 4 urte dituzunetik esaten dizute hor ez sartzeko” [jatorrizkoa gaztelaniaz]; “desberdinak txikitatik, hori akatsa da”; “segregatzea, hau da, ‘ni euskalduna naiz eta, beraz, euskaraz bakarrik hitz egiten dut’”; “norbaitek zure aurrean euskaraz hitz egiten badu badirudi ez duela zurekin hitz egin nahi”; “honelako zerbait adierazten da: ‘ni hemengoa naiz eta zuk ez didazu hori kenduko’, ez dakit” [jatorrizko esaldiak gaztelaniaz].

Iruñeko estatus handiko taldean, antzeko iritziak azaldu zituzten: “Euskaraz mintzatzen direnak segregatu egiten dira; irudizko lerro bat dago eskolan, jolas-orduan, patioan, ikas-bidaletan” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Euskaldunak, Nafarroako gizarteko talde pribilegiatua

Talderen batean —ez guztietan eta ez aho batez— talde pribilegiatutzat (edo oso babestutzat, edo diruduntzat, edo elitekotzat) jo zuten euskaldunen komunitatea. Hala, Iruñeko estatus handiko taldean aipatu zenaren arabera, bereiztea xede duen elitea dira euskaldunak: “Nire ustez, hor zaudela esateko erabiltzen da euskara, beste elite bateko kide zarela adierazteko, hau da, ‘ni euskara naiz’ eta horrek gainerakoengandik bereizten nau” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Gainera, talde horren arabera, euskararen aldekoak “boterean daude” orain [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Etorkinen taldean antzeko iritzia azaldu zen: “Euskaraz ikasten dutenek botere handiagoa dute, Gobernuaren laguntza handiagoa, diru gehiago, beti dute aurrekontu handiagoa, haien ikastetxeko bidaiaak hobeak izaten dira, apoteosikoak gaztelaniazko ikasleek egiten dituztenekin alderatuta” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

Tuterako gazteen taldeak, berriz, Gobernuak euskara asko laguntzen duela eta euskara “botere-ikurra” dela iritzi arren, agertu zuen euskararen aldeko taldeak mobilizatu egiten direla eta berez dutela indarra, Gobernuaren laguntzarik gabe. Lizarrako taldeko kideen arabera ere euskarazko irakaskuntzak baliabide gehiago ditu, baina orokorrean ez zuten uste euskaldunen komunitatea talde pribilegiatua denik.

“Familiei azaltzea euskara zer den eta zer hezkuntza-aukera dituzten; izan ere, familia askok ez dituzte seme-alabak euskarazko irakaskuntzan apuntatzen horren guztiaren berririk ez dutelako”.

Etorkinen taldeak informazioa eskatu zuen familientzat, bai euskarari buruz eta bai hezkuntza-sistemak eskaintzen dituen aukera linguistikoei buruz jakin dezaten, bereziki Nafarroako gizartera iritsi berri direnean. Familien ezjakintasunaren aurrean hezkuntza-sistemak informazio egokia eman behar duela adierazi zuten: “Nire ustez, gurasoei azaldu beharko liekete, batez ere, euskara zer den. Guraso askok ez dituzte seme-alabak euskarazko hezkuntzan apuntatzen, ez dakitelako hori zer den. Horrelako guraso asko ezagutu ditut. Gure eskolan nazio guztietako jendea dago, eta ‘euskararik ez’ esaten dute” [jatorrizkoa gaztelaniaz]. Honela laburbildu zuten beren esperientzia:

“Beste herrialde batzuetatik datorren jendeari, iristen denean, ez diote hezkuntza-sistemari buruzko informaziorik ematen, inolaz ere. Lehen sentipena zatiketarena da; ikastetxera zoaz seme-alaba inskribatzera eta esaten dizuten lehenengo gauza da ‘ez, hau euskarazko irakaskuntza da’. Baina, iristen zarenean, ez dakizu zatiketa nondik norakoa den. Ez dago informaziorik. Ez dago azalpenik, nolabait esateko, ez duzu euskararen berririk; nik, iristean, ‘euskara? zer da hori?’ galdetu nuen. Baina informaziorik ere ez dago” [jatorrizkoa gaztelaniaz].

2.1.4. Begirada sintetikoa eta gogoetatsua

Atal honetan, azterlan honen egileek fase kualitatiboko talde-saioei buruz egindako zenbait ohar aurkeztu dira.

Euskarari buruz tentsiorik gabe hitz egin ahal izan da.

Talde-saioen garapenaren inguruan, hau da nabarmentzekoa: posible izan da euskarari buruz tentsiorik gabe hitz egitea, baita jarrera oso desberdineko pertsonak bildu dituzten taldeetan ere, non fenomeno berri hori oso argi agertu den. Talde guztietan normaltasunez azaldu da euskararen gaia. Ez da gaiei buruzko eztabaidarik saihestu beldurragatik. Gairen bat agertu ez bada, edo garrantzi gutxi eman bazaio, taldekideentzat garrantzitsua ez zelako izan da. Adibidez, euskara-ETA-gatazka lotura (edo antzeko loturak); horrelakoak asko gutxitu dira beste garai batzuekin alderatuta.

Orokorrean, jendeak ez daki Nafarroa osoko irakaskuntza publikoan legez aukera dagoela euskaraz ikasteko edo euskara ikasteko.

Parte-hartzaileen artean inork edo ia inork ez zekien Nafarroa osoko sare publikoan —baita Erriberan ere— euskaraz edo euskara ikasteko aukera dagoela, Euskararen Legearen arabera; horretarako aukerarik ez dagoela uste zuen askok. Larraungo gazteen taldean, adibidez, honako hau adierazi zuen kide batek:

“Esan zidatenez, zonalde ez-euskaldun izatearekin Gobernua ez dago behartuta ikastetxe publikoak jartzeko Erriberan edo zonalde hortan. Erriberan, euskaraz ikasteko ikastetxe pribatueta joan beharra dute, ordaindu behar dute”.

Eta harritu egin ziren baten batek aipatu zuenean legez posible dela sare publikoan euskaraz ikastea Nafarroa hegoaldean: “Hegoaldean posible dute publikoan euskaraz ikastea? Nik hori bai ez nekiela. Ni ez nago oso jantzita holako gauzatan”.

Euskararen oinarritzko egoera sozialari buruzko informazio falta

Taldeetan agerian geratu zen ez dagoela oinarritzko datu errealean inguruko informaziorik euskarak Nafarroako gizartean duen egoerari buruz. Oro har, taldeek altuago kalkulatu zituzten euskal hiztunen ehunekoak errealitatean direnak baino, nahiz eta parte-hartzaile batzuek zuzentzat jo daitezkeen datuak aipatu zituzten. Askok adierazi zuten ez zituztela ezagutzen irakaskuntzako hizkuntza-ereduak. Gehientsuenek —baita Larraungo eta Baztan-Bortzirietako euskaldunen taldeek ere— ez zekiten zein den euskararen legezko egoera, eta ez zuten horren inplikazioen berri; eta gai horri buruzko kezkarik ere ez zuten adierazi.

Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko ezagutza kulturala sartzea eskola-programetan

Nafarroako euskarari buruz dagoen informazio faltaz jabetuta, eskola-programetan euskarari buruzko oinarritzko ezagutza kulturala sartzea proposatu zuten talde batean: euskararen historia, hizkuntza-ezaugarriak, literatura edo gizarte-egoera, besteak beste. Kontua ez litzateke euskara ikastea izango, irakaskuntza-prozesua amaitzean ikasleek hizkuntzari buruzko kultur nozioak izatea baizik.

Euskara hizkuntza zailtzat hartzea

Talde guztietan azaldu zen euskara hizkuntza zaila delako pertzepzioa. Euskararen zailtasunarekin lotuta, guraso gisa sentitzen zuten ezingo zietela seme-alabei lagundu eskolako kontuetan, eta irizpide horrek eragin handia zuen hezkuntza-eredua aukeratzeko orduan. Euskarara hurbiltzeko edo euskaratik urruntzeko eman zitzakeen pausoen azalpen gisa ere eragina izan zuen pertzepzio horrek.

Haurrentzako eta familientzako euskarazko kultur jarduerak eskaintzea

Zenbait taldetan, haurrei eta familiei zuzendutako euskarazko kultur jarduera gehiago eskatu zituzten. Baztan-Bortzirietako taldeak, etorkinenak eta Iruñeko helduenak egin zuten proposamena, eta euskararen gaineko ezagutza eta sinpatia soziala zabaltzeko bidea litzatekeela adierazi zuten.


2.2. Txosten kuantitatiboa

2.2.1. Populazioaren tipologia

Galdetegiaren hasierako atalean, zenbait informazio eskatzen zen, oinarrizko aldagaiak ezagutzeko, eta, aldagai horien gainean, aztergai den unibertsoaren tipologia soziodemografikoa zehazteko. Lehen atal honetan, aldagai independenteak ere jaso dira, aldagai biko analisiaren oinarrizko kontingentzia-taulen goiburuak eraikitzeko erabili direnak.


Galdetegiari euskaraz edo gaztelaniaz erantzuteko aukera eskaintzean, gehienek (% 92,6k) gaztelaniaz betetzea erabaki zuten, eta gainerakoek (% 7,4k) euskaraz.

3. grafikoa. Generoa




Generoari dagokionez (3. grafikoa), emakumeen presentzia ugariagoa izan da, elkarriketatuen % 50,9 izan baitira; gizonak, berriz, % 48,8 izan dira. Elkarriketatuen % 0,3k kategoria ez-bitarrean kokatu du bere burua.

4. grafikoa. Adina




Hurrengo galdera adinari buruzkoa zen (4. grafikoa). Gehienak (% 34,2) berrogeita sei eta hirurogeita lau urte bitartekoak izan dira. Laurden batek (% 25,2k) hirurogeita bost urte baino gehiago ditu, eta laginaren % 17,8 hogeita hamar urtetik beherakoa da. Beraz, adinaren batezbesteko aritmetikoa 51,7 urtekoa da, 17,9ko desbideratzearekin.

5. grafikoa. Jaioterria




Seigarren itimean jaioterriaz galdetzen zen (5. grafikoa). Hala, elkarrizketatuen % 77 Nafarroako Foru Erkidegokoa da. Beste autonomia-erkidego batzuetatik dator % 17,7 (% 6,3 EAEtik), eta beste herrialde batzuetan jaiotakoa da laginaren gainerako % 5,2a.

6. grafikoa. Amaitutako ikasketa-maila



Amaitutako ikasketa-maila kontuan hartuta (6. grafikoa), ikertutako biztanleen % 38,7k unibertsitate-mailako ikasketak ditu. Lehen hezkuntza % 12,7k du amaituta. Bestalde, Lanbide Heziketako ikasketak (maila guztietakoak) egin dituztenek % 28,5eko balio metatua dute.


7. grafikoa. Erakundeetako kide izatea



Erakunde bateko kide izateari buruz galdetuta (7. grafikoa), aztertutako biztanleriaren % 38,7 da, guztira, erakunde bateko kide. Hauek dira erakunde-mota nagusiak: kulturakoak, kiroltakoak, GGKEak, talde politikoak, sindikatuak eta ikasle-mugimenduak. Galdetutako pertsonen % 61,3 ez da erakundeetako edo entitate komunitarioetako kide.

Kultur elkarteekiko eta kirol-taldeekiko lotura ugariagoa da gizonezkoen kolektiboan eta 45 eta 64 urte bitartekoen artean. GGKE-ek babes handiagoa dute Iruñerrian bizi diren eta unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen artean. Erakunde profesionaletarako atxikimenduaren ehunekoa handiagoa da Pirinioaldean eta unibertsitate-prestakuntza dutenen artean. Azkenik, erakunde politikoetako, sindikaletako eta ikasle-mugimenduetako presentzia handiagoa da Goi Erriberan.

8. grafikoa. Nafartar, euskal herritar eta espainiar izatearekiko identifikazio-maila



8. grafikoa, jasotzen da elkarrizketatutako pertsonak zenbateraino sentitzen diren identifikatuta nafartar, euskal herritar edo espainiar izatearekin. Nafartar izatearekin identifikatzen da gehiengoa: % 85,1 “oso” edo “nahiko” nafartar sentitzen da. Aldiz, “oso” eta “nahiko” espainiar sentitzen direnak % 51 dira, eta % 48,2, berriz, euskal herritar izatearekin identifikatzen direnak.

Batezbesteko aritmetikoko balioetan, eta zenbakizko eskalan, emaitza hauek lortu dira (identifikazio-mailarik handiena hamar puntu izanik, eta txikiena puntu bat): 8,7 puntu lortu ditu nafartar izatearen sentimenduak, 6,3 espainiar sentitzeak, eta 5,7 euskal herritar sentitzeak.

Identitate-sentimendua eta lurraldea baliagarriak izan daitezke, kultura-, politika- edo hizkuntza-desberdintasunekiko herritarrek zer jarrera dituzten hobeto jakiten laguntzeko. Hurrengo tauletan, nafartar, euskal herritar eta espainiar kontzeptuekiko identifikazio-mailak aurkeztu dira, Nafarroako eskualdeen arabera.

Jarraian aurkeztutako tauletako gelaxketan ageri diren </> ikurrek adierazten dute zenbaterainokoa den Khi-karratuarekiko adierazgarritasuna, guztirakoen goitik egoteagatik nahiz behetik egoteagatik.

4. taula. Nafartarra izatearekiko identifikazio-maila, Nafarroako eskualdeen arabera

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
% Khi ² -rekin		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Batere ez	3	2,8	3,8	3,1	4,4	2,3	2,7	2,4
Gutxi	1,3	0,8	-	1,1	1,5	2,3	2,7	1,6
Apur bat	10,4	14,1	3,8	12,3	8,8	6,8	9,5	<4,0
Nahiko	17,1	15,3	19,4	17,9	22,3	15,3	10,8	16,8
Oso	68	66,9	73,1	65,4	63	73,3	74,3	75,2
ED/EE	0,1	-	-	0,2	-	-	-	-
BATEZBESTEKOA	8,7	8,6	8,8	8,6	8,4	8,9	8,8	9

Nafartar izatearen sentimendua (4. taula) antzekoa da ehunekoetan Foru Erkidegoko eskualde guztietan, eta jasotako erantzunetan ez dago nabarmentzeko asoziazio estatistikorik. Batezbesteko aritmetikoaren balioak guztizkoaren batezbestekotik hurbil daude aztertutako kasu guztietan; baliorik handiena (9 puntu) Behe Erriberan lortu da.

5. taula. Euskal herritarra izatearekiko identifikazio-maila, Nafarroako eskualdeen arabera

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
% Khi ² -rekin		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Batere ez	30,4	<7,6	29,4	26,4	22,4	31	40,5	>61,6
Gutxi	6,1	<0,8	-	6,4	7,7	6,6	>12,2	5,6
Apur bat	14,9	19,3	19,4	13,6	17,6	11,2	>24,3	10,4
Nahiko	19,2	21,8	25,6	21,8	17,9	20	12,2	<10,4
Asko	29	>50,4	25,6	31,3	34,4	31,2	<10,8	<11,2
ED/EE	0,3	-	-	0,4	-	-	-	0,8
BATEZBESTEKOA	5,7	7,8	5,8	6	6,2	5,8	4,1	3,3

Euskal herritar kontzeptuarekiko identifikazio-maila aztertzean (5. taula), alde nabarmenak daude erantzunetan, Khi-karratu estatistikoa aplikatzean. Ipar-mendebaldeko eskualdean, galdekatutakoen % 50,4 “oso identifikatuta” dago euskal herritar kontzeptuarekin; aitzitik, % 7,6k soilik dio ez dela “batere identifikatuta” sentitzen identitate horrekin (aukera horrek biztanleria osoan lortutako balioa baino 22,8 puntu gutxiago ditu). Goi Erriberan, % 24,3 “apur bat identifikatuta” dago kontzeptu horrekin, eta Behe Erriberan, berriz, gehienek (% 61,6k) adierazi dute ez daudela “batere identifikatuta” kontzeptu horrekin (Khi2). Batezbesteko aritmetikoaren balioetan, desberdintasunak ikus daitezke Goi Erribera eta Behe Erribera eskualdeen (4,1 eta 3,3 puntu, hurrenez hurren) eta Ipar-mendebaldeko eskualdearen (7,8 punturaino heltzen da) artean.

6. taula. Espainiarra izatearekiko identifikazio-maila, Nafarroako eskualdeen arabera

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
% Khi ² -rekin		Ipar-mendebalde	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Batere ez	18,7	>34,3	20	20,3	19,2	20,3	<8,1	<5,6
Gutxi	9,3	6	5	11,9	12,6	8,9	2,7	4
Apur bat	20,5	>33,5	25	20,7	27,5	8,9	17,6	<12,0
Nahiko	16,3	11,7	18,7	17,2	9	15,3	17,6	19,2
Asko	34,7	<14,5	31,2	<29,5	28,8	46,7	>54,1	>58,4
Ed/Ee	0,6	-	-	0,4	>2,9	-	-	0,8
BATEZBESTEKOA	6,3	4,7	6,3	6	5,7	6,8	7,8	8,1


Espainiar sentimenduarekiko identifikazio-mailari dagokionez (6. taula), Ipar-mendebaldeko eskualdean % 34,3 ez dago “batere identifikatuta” espainiar kontzeptuarekin; aitzitik, ikus daiteke bai Behe Erriberan (% 58,4) bai Goi Erriberan (% 54,1) “oso espainiar” sentitzeak lortu dituela ehuneko handienak (Khi2, kasu horietan). Batezbesteko aritmetikoek ehunekoen antzeko emaitzak erakusten dituzte.

2.2.2. Euskararen ezagutza

Galdetegiaren hurrengo atalean, definitzen eta aztertzen da Nafarroan bizi diren hamasei urtetik gorako biztanleek zenbateraino dakiten euskaraz (9. grafikoa).

9. grafikoa. Euskararen ezagutza

Ikerketa honen xede den biztanleriaren % 61,8k ez daki euskaraz, eta % 40,3k dio euskarazko hitz batzuk dakizkiela. Galdetutakoen % 22,6k “nahiko ongi” edo “oso ongi” daki euskaraz, eta gainerako % 15,6ak dio “zeozer” dakiela.



Interesgarria da zenbait aldagai independentek euskaraz dakiten pertsonen profilean duten eraginean sakontzea. Kontingentzia-taula hauek lagungarriak dira analisi-lan horretarako:

7. taula. Euskararen ezagutza, sexuaren eta adinaren arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA			
% Khi ² -rekin		Gizona	Emakumea	- 30	31-45	46-64	65 eta +
Ez daki	21,5	17,2	25,5	22,7	23,3	17,2	24,9
Hitz batzuk	40,3	41,4	39,5	<25,9	42,2	42,4	45,7
Zeoz ¹⁸	15,6	16,8	14,4	13,5	13,2	>20,1	13,2
Nahiko ongi	10	10,7	9,5	9,6	8,4	10,4	11,4
Oso ongi	12,6	14	11,1	>28,3	12,9	10	<4,7

7. taulan ikusten denez, euskararen ezagutza dauden aldeek ez dute ia garrantzi estatistikorik sexuaren aldagaiaren arabera; nolanahi ere, gizonen artean ezagutza % 4,1 handiagoa da. Adin-taldearen arabera, alde esanguratsuak ikusten dira Khi-karratuarekiko asoziazio estatistikoa aplikatzean. Hogeita hamar urtetik beherakoen artean, % 28,3k esan du “oso ongi” dakiela euskaraz, eta “nahiko ongi” erantzun dutenekin batuta, % 37,9 dira. Hirurogeita bost urte baino gehiago dituztenen artean, euskaraz “oso ongi” dakitenen ehunekoa (ezagutza-balio handiena) % 4,7raino jaisten da (Khi²-a aplikatzean).

8. taula. Euskararen ezagutza, bizi diren eskualdearen arabera

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
% Khi ² -rekin		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Ez daki	21,5	<4,8	20	17,6	14,3	27,1	>32,4	>44,8
Hitz batzuk	40,3	<22,1	41,3	40,9	40,9	43,7	48,6	44
Zeoz ¹⁸	15,6	12,1	8,8	17,8	22,8	13,2	16,2	<7,2
Nahiko ongi	10	>18,2	20,5	11,7	10,6	9,1	<1,4	<0,8
Oso ongi	12,6	>42,8	9,3	11,9	11,3	6,8	<1,4	<3,2

Euskararen presentziak lotura nabarmena du Nafarroako lurraldeekin (8. taula). Hala, Ipar-mendebaldean, % 61ek du euskara-maila altua; aitzitik, % 4,8k soilik dio ez dakiela. Behe Erriberan eta Goi Erriberan, berriz, % 44,8k eta % 32,4k, hurrenez hurren, ez dakite euskaraz (Khi²). Azkenik, gainerako eskualdeetan, erantzunek guztizko balioen antzeko ehunekoak izan dituzte.

¹⁸ Euskararen ezagutzari dagokionez, “zeoz¹⁸”, “zerbait”, “partzialki” edo “hartzaile moduan” terminoak sinonimo gisa erabiltzen dira txosten honetan. Galdetegian “zeoz¹⁸” aukera erabili zen.

9. taula. Euskararen ezagutza, hizkuntza-eremuaren arabera

	GUZTIRA	HIKUNTZA-EREMUA		
% Khi ² -rekin		Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Ez daki	21,5	<4,3	18,2	>33,9
Hitz batzuk	40,3	<15,7	40,6	47,2
Partziala	15,6	12,2	17,4	12,9
Nahiko ongi	10	>19,1	12,2	<2,6
Oso ongi	12,6	>48,7	11,6	<3,3


Hizkuntza-eremuei dagokienez (9. taula), eremu euskaldunean, euskara (nahiko ongi eta oso ongi) dakiten pertsonak gehiengoa dira, % 67,8ko ehuneko metatua baitute (Khi²). Bestalde, euskaraz ez dakiela erantzun du eremu ez-euskaldunean aztertutako biztanleriaren % 33,9k. Eremu mistoan, berriz, ehunekoak guztizko emaitzen antzekoak dira.

Azkenik, aipatu behar da hizkuntzaren ezagutza-maila handiagoa dela Euskal Autonomia Erkidegotik datozenen eta unibertsitate-ikasketak dituztenen artean, eta, era berean, egiaztatu da identitate-lotura handiagoa dutela euskal herritar kontzeptuarekin. Bestalde, hizkuntza ez dakitenen artean, handiagoa da beren burua espainiarizat jotzen dutenen ehunekoak.

Euskaraz ez dakitela erantzun zutenei galdetu zitzaien ea gustatuko zitzaien euskara ikasi ahal izan balute; galdera horren erantzunak, hain zuzen, 10. grafikoan ikus daitezke.

10. grafikoa. Euskara ikasi ahal izana gustatuko litzaeieke

Euskaraz ez dakiten biztanleen hiru laurdeni (% 65,4) gustatuko zitzaien euskara ikasteko aukera izan balute. Beste heren batek (% 33,9k) ezetz erantzun du. Eta gainerako % 0,8a euskara ikasten ari da gaur egun.



10. taula. "Euskara ikasi ahal izana gustatuko litzaieke", sexuaren eta adinaren arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA			
% Khi ² -rekin		Gizona	Emakumea	- 30	31-45	46-64	65 eta +
Bai	65,4	66,8	64,4	<46,5	64,2	72,2	67,7
Bai, ikasten ari da	0,8	0,4	1	-	0,7	1,2	0,7
Ez	33,0	32,8	34,6	>53,5	35	26,7	31,6

Euskara ikasi izana nahi izateari dagokionez, sexuaren aldagaia kontuan hartuta ia ez dago alderik gizonen eta emakumeen erantzunen ehunekoak artean (10. taula). Adina kontuan hartuta, berriz, ezezko erantzuna batezbestekoa baino 20,5 puntu handiagoa da, eta % 53,5era iristen da (Khi²). Bestalde, amaitutako ikasketa akademikoen mailak ez du desberdintasun esanguratsurik eragiten estatistikoki.

Eskualdeen arabera, batezbesteko balioen antzeko ehunekoak izan dira erantzunetan, Behe Erriberan salbu; izan ere, eskualde horretan, euskaraz ez dakitela adierazi dutenen % 54,1ek ezetz erantzun du euskara ikasi izana gustatuko litzaiokeen galdetu zaionean (ehuneko altua, batezbestekoa baino 21,1 puntu handiagoa). Eremu ez-euskaldunean, % 44,1ek egin du ezezko aukeraren alde (Khi²).

11. kontingentzia-taulan, euskaraz ez dakitenek hizkuntza hori jakiteko gogo handiagoa edo txikiagoa izatean boto-joerak zer eragin duen azter daiteke:

11. taula. "Euskara ikasi izana gustatuko litzaieke", 2023ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren eta boto multzokatuaren arabera

	GUZTIRA	BOTOA 2023						
% Khi ² -rekin		UPN	PSN	EH Bildu	Geroa Bai	PPN	Vox	Contigo Zurekin
Bai	65,4	52,7	69,9	>94,9	100	<40,2	31,1	86,4
Bai, ikasten ari da	0,8	>4,8	-	2,7	-	-	-	-
Ez	33,0	42,4	30,1	<2,4	-	>59,8	>68,9	13,6

	GUZTIRA	BOTO MULTZOKATUA	
% Khi ² -rekin		Gobernua	Oposizioa
Bai	65,4	>79,5	<43,5
Bai, ikasten ari da	0,8	0,5	1,8
Ez	33,0	<20,0	>54,7

Khi-karratua ageriko asoziazioarekin azaltzen den datuak nabarmenduz, baiezeko erantzunak —hau da, euskara ikasi izana gustatuko litzaiekeela adierazteak— babes handia lortu du Geroa Baien eta EH Bilduren hautesleen artean, % 100ekoa eta % 94,9koa, hurrenez hurren. Ezezko aukeraren aldekoak, berriz, % 68,9 izan dira Voxen boto-emaileen artean, eta % 59,8 PPNren hautesleen artean. Egungo Nafarroako Gobernua babesten duten alderdi politikoen (PSN, Geroa Bai, Contigo-Zurekin eta EH Bildu) boto-emaileak elkartuz, % 79,5ek erantzun du baietz, eta oposizioko alderdietako (UPN, PPN eta Vox) boto-emaileak batuz, baiezekoak behera egiten du, % 43,5 arte (bi erantzunak Khi2-rekin).


Euskaraz ikasi ahal izana gustatuko litzaiekeen nahiz gustatuko ez litzaiekeen pertsonen profilak ezagutzeko, item hau galdetegiko hasierako aldagaiekin gurutzatu da (izaera soziodemografiko nabarmeneko aldagaiak dira). Khi-karratuarekiko asoziazio estatistikoa kontuan hartuta, laburbildu daiteke euskaraz jakitea gustatuko litzaiekeen pertsonak aztertutako biztanleriaren ezaugarri nagusiekiko profil homogeneoa dutela. Aitzitik, ezezkoa adierazi duten pertsonen artean, balio nagusietatik bereizten diren ehunekoak daude. Gehienak eremu ez-euskaldunean eta Behe Erriberan bizi dira, eskuineko alderdietako boto-emaileak dira, gutxi identifikatzen dira euskal herritar kontzeptuarekin eta, ostera, oso identifikatuta daude espainiartasun kontzeptuarekin, eta, horrez gain, haien seme-alabek ere ez dute euskaraz hitz egiten.

Euskaraz jakitea zehazki zergatik gustatuko litzaiekeen galdetzean erantzundakoak kontuan hartuta, eta erantzunen irakurketa kualitatiboagoa eginez, esan daiteke argudio gehienak ideia hauen inguruan eraikitzen direla [jatorrizko hitzak gaztelaniaz]: “Euskara Nafarroako hizkuntza eta haien arbaso eta senide zuzenak hitz egin zuten hizkuntza izatea”; “euskaraz hitz egin eta euskaraz harremanak eduki nahi izatea”; “Nafarroako gizartean integratu ahal izatea”; “euskarazko kultur adierazpenez gozatu ahal izatea”; “kultur ezagutza zabaltzea eta hizkuntzekiko zaletasunean sakontzea”; “Nafarroako kulturaren funtsezko elementutzat hartzea”; “lan-munduan sartzea erraztuko duen baliabide bat izatea”; “euskal herritar sentitzea”; eta “gaztetan euskara ikasi ezin izana, aukera faltagatik, hautatutako ikastetxeengatik eta/edo Nafarroa hegoaldeko eskualdeetan euskara ikastea erraza ez izateagatik”.

Bestalde, euskara ikasteko interesik ez dutela erantzun zutenei, hizkuntzarekiko jarrera hori izatearen arrazoiez galdetu zitzairen. Hona hemen gehien aipatu zituzten erantzunak [jatorrizko hitzak gaztelaniaz]: “Zaila da hizkuntza ikastea eta ez dut ikasteko gogorik”; “ez diot erabilgarritasunik ikusten”; “gaztelania jakinda, ez dut arazorik harremanik izateko”; “bizi naizen lekuan ez da euskaraz hitz egiten”; “ez dut lan-mundurako balio gisa ikusten”; “ahalegin pertsonal handia eskatzen du, eta nahiago dut beste hizkuntza batzuk ikasi”; “gehiegi politizatuta dago”; edo “ez dut euskararekiko kultur sustrairik”.

Galdetegiko hamaseigarren galderan, elkarrizketatuei galdetu zaie ea beren seme-alabek euskaraz hitz egiten ote duten (11. grafikoa). Herenak (% 31,6k) erantzun du ez duela ondorengorik; % 33,6k dio seme-alabetako bakar batek ere ez dakielako euskaraz; eta gainerako % 34,5ak dio seme-alabaren batek badakielako (“Norbaitek bai” eta “Gehienek bai” erantzunak).

11. grafikoa. Seme-alabek euskaraz hitz egitea



12. kontingentzia-taulan, gurasoengandik ondorengoenganako hizkuntza-transmisioa aztertzen da, baita hizkuntza-eremuak hizkuntzaren ezagutza duen eragina ere.

12. taula. Seme-alabek euskaraz hitz egitea, euskararen ezagutzaren eta hizkuntza-eremuaren arabera

	GUZTIRA	EUSKARA			HIKUNTZA-EREMUA		
% Khi ² -rekin		Ez daki	Zeozer	Ongi daki	Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Ez dut seme-alabarik	31,6	28	32,3	>41,0	27,8	34	27,7
Ez dute euskaraz hitz egiten	33,8	>48,3	<18,6	<4,8	<3,5	29,8	>52,0
Baten batek bai	5,4	6,9	3,1	2,9	5,2	5,4	5,5
Gehienek bai	29,1	<16,7	>46,0	>51,3	>63,5	30,8	<14,8

Goiko taulan ikus daitekeenez, euskaraz ez dakiten gurasoen multzoan dago ondorengoek euskaraz ez dakitela dioten ehuneko handiena: % 48,3 (Khi²). Euskaraz hitz egiten duten seme-alaba gehienek gurasoek euskaraz “partzialki” dakite (% 46) edo “ongi” dakite (% 51,3). “Ez dute euskaraz hitz egiten” erantzuna % 52raino igotzen da eremu ez-euskaldunean, eta, osteratzen, % 14,8ra jaisten da “gehienek bai” erantzunaren ehunekoa (guztizkoaren batezbestekoan baino 14,3 puntu baxuagoa). Eremu euskaldunean, elkarrizketatuen % 63,5ek (Khi²) erantzun du beren seme-alabek euskaraz hitz egiten dutela.

13. taula. Seme-alabek euskaraz hitz egitea, Nafarroako eskualdeen arabera

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
% Khi ² -rekin		Ipar-mendebalde	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Ez dut seme-alabarik	29,4	22,4	34,4	19,9	31,2	39,2	25,6	>44,8
Ez dute euskaraz hitz egiten	<6,4	23,7	29,1	30,1	44,6	44,6	>66,4	44
Baten batek bai	5,2	9,3	5,7	6	2,1	5,4	4,8	<7,2
Gehienek bai	>58,9	44,5	30,8	>43,9	22,1	<10,8	<3,2	<0,8
Muy bien	12,6	>42,8	9,3	11,9	11,3	6,8	<1,4	<3,2

Emaitzak Nafarroako eskualdekako lurralde-antolaketaren arabera aztertzean ere (13. taula), alde nabarmenak ikusten dira Khi-karratuarekiko asoziazio estatistikoa aplikatzean. Hala, Ipar-mendebaldeko eskualdean, seme-alaba gehienek euskaraz hitz egiten dutela erantzun dute (% 58,9k); Estellerrian ere ehuneko garrantzitsua lortu du erantzun horrek (% 43,9), baina ehunekoak nabarmen egiten du behera Behe Erriberan, % 3,2raino, hain zuzen (Khi²). Azken eskualde horretan, “ez dute euskaraz hitz egiten” da erantzun nagusia (% 66,4).

Azkenik, aztertu da ea Nafarroako Parlamenturako azken hauteskundeetan (2023) emandako botoak zer eragin duen elkarriketatutako pertsonen seme-alabek euskaraz jakitean edo ez jakitean (14. taula).

14. taula. Seme-alabek euskaraz hitz egitea, 2023an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren eta boto multzokatuaren arabera

	GUZTIRA	BOTOA 2023						
% Khi ² -rekin		UPN	PSN	EH Bildu	Geroa Bai	PPN	Vox	Contigo Zurekin
Ez dut seme-alabarik	31,6	30,1	28,5	32,4	23,5	20,6	50	37,8
Ez dute euskaraz hitz egiten	33,8	>62,1	>46,4	<6,1	<4,3	>71,3	44,7	28,5
Baten batek bai	5,4	4,3	8	4	6,5	4,9	-	7,5
Gehienek bai	29,1	<3,5	<17,1	>57,5	>65,8	<3,3	<5,3	26,2


	GUZTIRA	BOTO MULTZOKATUA	
% Khi ² -rekin		Gobernua	Oposizioa
Ez dut seme-alabarik	31,6	30,6	28,5
Ez dute euskaraz hitz egiten	33,8	<24,1	>63,9
Baten batek bai	5,4	6,2	3,9
Gehienek bai	29,1	>39,0	<3,7

Goiko taulan ikus daitekeenez, lotura handia dago azterlan honetan elkarriketatutako pertsonen emandako botoaren eta haien ondorengoek euskaraz jakitearen edo ez jakitearen artean, eta horrek eragin handia du ehunekoetan. UPNren boto-emaileen artean, haien seme-alabek ez dutela euskaraz hitz egiten izan da erantzun nagusia (% 62,1), eta “gehienek bai” erantzun dutenen ehunekoak nabarmen egiten du behera, % 3,5era arte jaisten baita. PSNren hautesleen kasuan, % 46,4k dio beren seme-alabek ez dutela euskaraz hitz egiten. EH Bilduri botoa eman ziotenen artean, berriz, haien ondorengo gehienek hitz egiten dute euskaraz, % 57,5ek. Geroa Bairen boto-emaileen artean, % 65,8k erantzun dute seme-alaba gehienek euskaraz hitz egiten dutela. Bestalde, seme-alabek ez dutela euskaraz hitz egiten erantzun dutenen ehunekoa nabarmen igotzen da, % 71,3raino, PPNren boto-emaileen artean, Khi-karratuaren arabera. Aipatzekoa da Voxen boto-emaileen erdiek seme-alabarik ez dutela erantzun izana. Azkenik, Contigo-Zurekin aukera hautatu zutenei dagokienez, erantzunak guztizkoen batezbestekoetara hurbiltzen dira, aurreko taulan ikus daitekeen bezala.

Zer pertzepzio dute Nafarroako biztanleek Foru Erkidegoan dauden euskal hiztunen¹⁹ ehunekoari buruz? Hau da, zenbat euskaldun daude Nafarroan, haien ustez? 12. grafikoan eta 15. taulan, azterlanean kontsultatutako pertsonen iritzira emandako ehunekoak jaso dira.

12. grafikoa. “Zure ustez, zenbat nafarrek dakite euskaraz? (% __)”.

% 38,6ren arabera, % 25etik behera dira euskaldunak, eta beste % 45,7ren arabera, % 26 eta % 50 artean. Bestalde, % 6k ez daki zein den Nafarroan euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoa. Batezbesteko aritmetikoaren balioetan, % 31,2 da emaitza, eta desbideratzea, 16,7 puntukoa.



¹⁹ Nafarroako Estatistika Institutuak (Nastat) (2024a), 2022an Nafarroan hiru urteko edo gehiagoko biztanleek euskaraz duten hizkuntza-konpetentziari buruz egindako ikerketa batean, aipatzen da biztanleen % 26,7k badakiela partzialki euskaraz. VII. Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera (Nafarroako Gobernua et al., 2024), hamasei urtetik gorakoek % 24,7k daki euskaraz (euskal hiztunak eta euskaldun hartzaileak batuta).

15. taula. "Zure ustez, zenbat nafarrek dakite euskaraz? (% __)" galdera, sexuaren eta adinaren arabera


	GUZTIRA	SEXUA		ADINA			
% Khi ² -ekin		Gizona	Emakumea	- 30	31-45	46-64	65 eta +
< % 25	38,6	>45,2	<32,1	<29,0	33	45,3	41,4
% 26-50	45,7	46,6	44,9	52,4	>55,1	41,8	37,8
% 51-75	8,9	<5,5	>12,3	>14,6	10,5	7,2	5,7
> % 76	0,8	-	1,6	>2,3	0,4	0,6	0,5
Ed/Ee	6	<2,8	>9,1	<1,7	<1,0	5,1	>14,6
BATEZBESTEKOAK	31,2	28,4	34,1	36,1	32,9	29,3	28,2

Batezbesteko aritmetikoak lortzen dituen ehunekoak kontuan hartuta, ikus daiteke gizonezkoak (% 28,4) eta hirurogeita bost urtetik gorakoak (% 28,2) hurbiltzen direla gehien Nafarroan euskara dakiten pertsonen benetako ehunekora.


Nafarroako eskualdeen arabeko emaitzak kontuan hartuta, guztizko balioekiko gorabehera txikiak baino ez dira hauteman ehunekoetan. Eskuineko alderdietako boto-emaileak gehiago gerturatzen dira Nafarroako euskaldun-kopuruaren zenbateko errealelara. Azkenik, azterlaneko aldagai guztiak kontuan hartuta, aipatzekoa da unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak hurbiltzen direla gehien Foru Erkidegoan euskara benetan dakiten pertsonen ehunkoa aipatzera.

Hurrengo galderaren xedea zen jakitea elkarrizketatutako pertsonen zer iritzi duten Nafarroan euskara dakiten pertsonen kopuruak etorkizunean izango duen joeraz (hau da, gora edo behera egingo duen). Lehen itemean, etorkizunean gerta litekeenari buruzko iritzia aztertzen da (13. grafikoa), eta bigarrenean, Nafarroako euskaldunen etorkizuneko unibertsoa nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen (14. grafikoa). Hona hemen lortutako emaitzak:

13. grafikoa. "Datozen urteetan Nafarroan euskara dakitenen ehunekoak uste duzu...?"



14. grafikoa. "Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...?"



Bi irudikapen grafikoetan ikusten denez, antzeko emaitzak izan dira bi galderetan. Gehiengoak (% 64,8k) uste du etorkizunean gora egingo duela euskara dakiten pertsonen ehunekoak; laurden batek baino apur bat gehiagok (% 26,6k) pentsatzen du egungo ehunekoetan jarraituko duela; eta, azkenik, % 8,7k uste du ehunekoak behera egingo duela. Ehunekoak ia ez dira aldatzen etorkizunean zer gertatzea nahi luketen galdetzean (ikusi aurreko grafikoak).

Hurrengo taulan (16. taula), Nafarroako euskaldunen kopuruarekin etorkizunean zer gertatzea gustatuko litzaiekeen erakusten da, eskualde desberdinen arabera:

16. taula. "Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...?" galdera, Nafarroako eskualdeen arabera

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
% Khi ² -rekin		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Igotzea	64,1	>86,7	59,4	67,2	67,2	66,3	52,7	<40,0
Berdin jarraitzea	28,2	<11,3	40,6	25,8	26,9	27,1	37,8	>44,0
Jaistea	7,7	2	-	7	5,9	6,6	9,5	>16,0

Aurreko kontingentzia-taulan ikus daitekeenez, Nafarroaren Ipar-mendebaldean biltzen da Nafarroan euskararen ezagutzak gora egitea gustatuko litzaiekeen pertsonen ehuneko handiena, % 86,7, zehazki. Behe Erriberan, % 44k nahiago du berdin jarraitzea, eta beste % 16k erantzun du datozen urteetan euskarak presentzia txikiagoa izatea nahi lukeela (biak Khi²-aren arabera).

17. taula. "Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...?" galdera, euskararen ezagutzaren eta hizkuntza-eremuaren arabera

	GUZTIRA	EUSKARA			HIZKUNTZA-EREMUA		
% Khi ² -rekin		Ez daki	Zeozer	Ongi daki	Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Igotzea	64,1	<50,2	>77,5	>92,9	>84,3	67,3	<50,9
Berdin jarraitzea	28,2	>39,0	<18,2	<5,6	<14,8	26,1	>36,9
Jaistea	7,7	>10,8	4,3	<1,5	<0,9	6,6	>12,2

17. taulari erreparatuta, euskararen ezagutzaren aldagaiari dagokionez aldeak nabarmenak dira. Hala, euskara (zeozer eta ongi) dakitenek adierazi dute datozen urteetan euskarak Nafarroan presentzia handiagoa izatea nahiko luketela; euskaraz ongi dakitenen % 92,9k adierazi du ideia hori. Hizkuntza-eremuen arabera, etorkizunean euskararen presentzia handiagoa izatea nahiko luketela adierazi dutenen kopurua handiagoa da eremu euskaldunean (% 84,3), eta eremu ez-euskaldunean % 50,9raino jaisten da.

18. taulan ikusten denez, hauteskundeetako botoak eragin nabarmena du euskarak datozen urteetan Foru Erkidegoan zer presentzia izatea gustatuko litzaiekeen galderari elkarriketatuek emandako erantzunetan.

18. taula. “Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...?” galdera, 2023an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren eta boto multzokatuaren arabera.

	GUZTIRA	BOTOA 2023						
% Khi ² -rekin		UPN	PSN	EH Bildu	Geroa Bai	PPN	Vox	Contigo Zurekin
Igotzea	64,1	<33,7	52,9	>98,6	>100,0	<18,6	<15,3	82,8
Berdin jarraitzea	28,2	>51,9	>42,0	<1,4	-	>51,5	40,5	17,2
Jaistea	7,7	14,5	5,1	-	-	>29,9	>44,2	-


	GUZTIRA	BOTO MULTZOKATUA	
% Khi ² -rekin		Gobernua	Oposizioa
Igotzea	64,1	>79,4	<23,7
Berdin jarraitzea	28,2	<18,7	>50,0
Jaistea	7,7	<1,9	>26,3

Gaur egungo Nafarroako Gobernua babesten duten alderdiei botoa eman zieten pertsona gehienek (% 79,4k) erantzun dute datozen urteetan euskara dakiten pertsonen ehunekoak gora egitea gustatuko litzaiekeela. Ezagutza handitzea nahi luketela adierazi dutenak gehiengoa dira Geroa Bai, EH Bildu eta Contigo-Zurekin alderdietako boto-emaileen artean, baina ehunekoak behera egiten du PSNren hautesleen artean (% 52,9). Etorkizunean euskaldun gehiago egoteko nahia adierazi dutenen ehunekoak nabarmen egiten du behera oposizioan dauden alderdien artean (% 23,7ra arte); multzo horretan, hain zuzen ere, % 26,3k adierazi du etorkizunean euskararen presentzia murriztea nahiko lukeela (Voxen boto-emaileen % 44,2k eta PPNren boto-emaileen % 29,9k adierazi dute ideia hori).

Elkarriketatutako pertsonen jatorriari dagokionez, ezagutza berdin mantentzearen alde egin dutenen ehunekoa handiagoa da beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen pertsonen artean eta beste herrialde batzuetan jaiotakoen artean, % 38,9 eta % 49,3, hurrenez hurren (bi kasu horien ehunekoak adierazgarriak dira Khi-karratuaren arabera). Amaitutako ikasketen aldagaia aintzat hartuta, berriz, ez da alde nabarmenik hauteman.

Galdetutako pertsonen % 45,7k adierazi du euskararen presentzia gutxienekoa dela haien eguneroko ingurunean, eta beste % 30,1ek esan du euskara ez dela existitzen (15. grafikoa). Gainerako % 24,2ak erantzun du euskararen presentzia gaztelaniarena bezainbestekoa dela edo gehienekoa dela.

Gráfico 15. “Presencia del euskera en su entorno cotidiano”



19. taula. Euskararen presentzia eguneroko ingurunean, euskararen ezagutzaren eta hizkuntza-eremuaren arabera

	GUZTIRA	EUSKARA			HIZKUNTZA-EREMUA		
% Khi ² -rekin		Ez daki	Zeozer	Ongi daki	Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Gehienekoa	9,2	<2,8	9,7	>26,3	>53,9	<6,4	<1,1
Gaztelania bezain-beste	15	<7,8	17,3	>33,2	>25,2	16,2	<9,2
Gutxiengoa	45,7	45,3	>58,8	37,5	<15,7	>53,6	38,4
Ez da existitzen	30,1	>44,0	<14,2	<3,1	<5,2	<23,8	>51,3

Euskararen ezagutza-mailak eta hizkuntza-eremuak lotura handia dute euskarak presentzia handiagoa edo txikiagoa izatearekin ikerketa honetarako elkarrizketatutako pertsonen eguneroko ingurunean (19. taula); hain zuzen ere, ideia hori berresten da, aurreko taulan ikusten baita Khi-karratuko asoziazio estatistikoa handia dela. Hizkuntza ongi dakitenen taldearen arabera, haien egunerokoan euskararen presentzia gehienekoa edo gaztelaniarena bezainbestekoa da (% 59,5). Bestalde, euskaraz ez dakitenen % 44k uste du euskara ez dela existitzen beren eguneroko ingurunean.

Hizkuntza-eremuak kontuan hartuta, eremu euskaldunean, % 53,9k uste du gehienak euskaraz aritzen direla, eta beste % 25,2k dio gaztelaniaz bezainbeste hitz egiten dela euskaraz; bestalde, eremu mistoan, elkarrizketatutakoen % 53,6k uste du euskaraz gutxiengoan egiten dela; eta azkenik, eremu ez-euskaldunean, % 51,3k iritzi dio euskarak ez duela ia presentziarik beren ingurune hurbilean.

Beren ingurunean euskara ez dela existitzen erantzun dutenen ehunekoa (Khi² aplikatzean) nabarmen handiagoa da alderdi hauetako boto-emaleen artean: UPN (% 64,2), PPN (% 70,1) eta Vox (% 75,3).


2.2.3. Hezkuntza sistema

Galdetegiaren hogeita batgarren itema honela dago adierazita: “Uste duzu Euskararen Legeak aukera ematen diela Nafarroako haur guztiei, nahi izanez gero, euskaraz ikasteko?”. Komeni da gogoan izatea Euskararen Foru Legeak (18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa) hau dioela “Irakaskuntza eremu ez-euskaldunean” izeneko 26. artikuluan:

1. Euskara irakaskuntzan sartuko da pixkanaka-pixkanaka, progresiboki eta nahikotasunez, egun dauden ikastetxe publikoetan euskaraz irakasten duten lerroak sortuz eskariaren arabera.
2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie eskaera egiten duten ikasle guztiei, halako moduan non euskararen ezagutza behar adinakoa izan ahalko baitute eskolatzearen bukaeran.
3. Eskariari sare publikoan erantzun ahal izan dakion, honako gutxieneko ikasle kopuru hau hartuko da aintzat: eskola-unitate bat taxutze aldera Hezkuntza Administrazioak irizpide objektiboek jarraituz ezein irakaskuntza-eredutan baliatutakoa.

16. grafikoa. "Uste duzu Euskararen Legeak aukera ematen diela Nafarroako haur guztiei, nahi izanez gero, euskaraz ikasteko (haien bizilekua zeinahi dela-ere)?"

Erantzunetan (16. grafikoa), baiezko erantzuna ugariagoa izan arren (% 47,2), beste % 39,5 hori nabarmendu behar da, hau da, uste dutenak Euskararen Legeak ez diela uzten Nafarroako haur guztiei euskaraz ikasten. Gainerako % 13,2ak ez daki gai horren berri.



Ikerketan erabili diren aldagaiak aztertuta ikus daitekeenez, ia emaitza guztiak guztizko balioetatik hurbil daude, eta ia ez dago adierazgarritasun estatistikorik aldagai independente horietan. Behe Erriberan, % 21,6k adierazi du ez dakiela ezer planteatutako gaiari buruz. Euskararen ezagutzari eta Nafarroako Parlamenturako azken hauteskundeetan (2023) emandako botoari erreparatuta, berriz, aldeak daude ehunekoetan (20. taula):

20. taula. "Uste duzu Euskararen Legeak aukera ematen diela Nafarroako haur guztiei, nahi izanez gero, euskaraz ikasteko (haien bizilekua zeinahi dela-ere)?" galdera, 2023an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren eta euskararen ezagutzaren arabera


	GUZTIRA	BOTOA 2023						
% Khi ² -rekin		UPN	PSN	EH Bildu	Geroa Bai	PPN	Vox	Contigo Zurekin
Bai	47,2	>67,5	>60,5	<20,3	<20,2	>65,7	>80,5	40,4
Ez	39,5	<15,9	<25,8	>78,3	>76,2	<14,2	<10,0	47,6
Ez daki	13,2	16,6	13,7	<1,4	3,6	>20,1	9,5	12

	GUZTIRA	EUSKARA		
% Khi ² -rekin		Ez daki	Zeozer	Ongi daki
Bai	47,2	>55,6	37,2	<31,2
Ez	39,5	<26,3	>53,4	>66,0
Ez daki	13,2	>18,0	9,4	<2,8

Euskararen Legeak Nafarroako haur guztiei euskaraz ikasteko aukera ematen diela erantzun dute alderdi hauetako boto-emaile gehienek: UPN (% 67,5ek), PSN (% 60,5ek), PPN (% 65,7k) eta Vox (% 80,5ek). Aitzitik, ezezko erantzuna adierazgarria da Khi-karratuaren arabera alderdi hauetako hautesleen artean: EH Bildu (% 78,3), Geroa Bai (% 76,2) eta Contigo-Zurekin (% 47,6). Bestalde, elkarrizketatuek euskaraz jakiteak lege horri buruzko erantzunean zer-nolako eragina duen aztertuta, aurreko kontingentzia-taulan ikus daiteke hizkuntzaren ezagutzak gora egin ahala ezezko erantzunak ere gora egiten duela; hain zuzen ere, galderari ezetz erantzun diote euskaraz partzialki dakitenen % 53,4k eta euskaraz ongi dakitenen % 66k. Euskaraz ez dakiten pertsonen dagokienez, % 55,6k erantzun du baietz. Azkenik, aipatu behar da amaitutako ikasketa akademikoen aldagaiak ez duela alde esanguratsurik erakusten hezkuntzarekin eta euskararekin loturiko gai horretan.

Hezkuntza-arloaren dimentsio linguistikoarekin jarraituz, elkarrizketan planteatutako hurrengo gaian galdera honi erantzutea eskatu da: “Egokia irudituko litzaizuke eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea?”. Lortutako erantzunak 17. grafikoa jaso dira:

17. grafikoa. “Egokia irudituko litzaizuke eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea?”




Elkarrizketatutako pertsona gehienak (% 82) eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko prestakuntza txertatzearen alde agertu dira. % 16k ez du egoki ikusten, eta gainerako % 2,1ak ez du gai horri buruzko iritzirik.

Ez erantzun dutenen ehunekoa nabarmen handiagoa da, eta adierazgarritasun estatistikoa du, eremu ez-euskaldunean (% 25,5), Behe Erriberan (% 36,8), euskaraz ez dakitenen artean (% 22,9) eta oposizioan dauden alderdietako (UPN, PPN eta Vox) boto-emaileen artean (% 43).

Galdetegiko hogeita hirugarren galderan honako gai hau planteatu da: “Garrantzitsua iruditzen zaizu, Nafarroako hezkuntza-sisteman, harrera- eta azalpen-protokolo linguistikoak ezartzea familia etorkinentzako euskarari eta hezkuntza-ereduei buruz, batez ere seme-alabak lehen aldiz matrikulatzen dituztenean?” (18. grafikoa).

18. grafikoa. “Garrantzitsua iruditzen zaizu, Nafarroako hezkuntza-sisteman, harrera- eta azalpen-protokolo linguistikoak ezartzea familia etorkinentzako euskarari eta dauden hezkuntza-ereduei buruz, batez ere seme-alabak lehen aldiz matrikulatzen dituztenean?”



“Garrantzitsua”, “oso garrantzi-tsua” eta “nahiko” erantzunak batuta, laginaren % 65,2k uste du egokia litzatekeela Nafarroako hezkuntza-sisteman harrerako hizkuntza-protokoloak ezartzea eta euskarari eta egungo hezkuntza-ereduei buruzko azalpenak ematea. Aitzitik, metatutako % 34,8k ez dio garrantzirik eman aipatutako hizkuntza-protokoloak ezartzeari (“ez da garrantzitsua” eta “gutxi”).

Adinaren eta generoaren aldagai independenteen gurutzaketak aztertuta, ia ez da alderik hauteman gutzizko balioekiko.

21. taula. “Garrantzitsua iruditzen zaizu, Nafarroako hezkuntza-sisteman, harrera- eta azalpen-protokolo linguistikoak ezartzea familia etorkinentzako euskarari eta dauden hezkuntza-ereduei buruz, batez ere seme-alabak lehen aldiz matrikulatzen dituztenean?” galdera, eskualdeen arabera

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
% Khi ² -rekin		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Ez da garrantzitsua	17,2	<4,8	8,8	13,9	11,8	20,3	18,9	>41,6
Gutxi	17,6	<5,6	24,3	16,5	13,4	19,6	>33,8	21,6
Garrantzitsua	30,9	40,7	34,4	28,9	41,1	33,3	37,8	<20,8
Nahiko	11,1	12,9	3,8	14,1	10,3	8,9	<2,7	5,6
Oso garrantzitsua	23,2	>35,9	28,8	26,7	23,4	18	<6,8	<10,4

Eskualdeka (21. taula), Nafarroako hezkuntza-sisteman euskarari buruzko hizkuntza-harrerarako protokoloak ezartzea Ipar-mendebaldeko eskualdean kontsultatutako pertsonen % 35,9ri “oso garrantzitsua” iruditzen zaio; hain zuzen ere, horri maila batean edo bestean garrantzia ematen dietenen batura % 89,5 da eskualde horretan. Bestalde, Behe Erriberan, % 10,4ra jaisten da “oso garrantzitsutzat” jotzen dutenen ehunekoa, eta % 41,6k uste du “ez dela garrantzitsua”. Hizkuntza-eremuen arabera, protokolo horren balizko ezarpenak babes handiagoa du eremu euskaldunean; eremu ez-euskaldunean, berriz, ehunekoak behera egiten du.

Hizkuntza-protokolo horiek ezartzea garrantzitsutzat jotzen dutenen erantzunak batuz, % 81,5eko babesia eman diote egungo Nafarroako Gobernua sostengatzen duten alderdien boto-emailleek; bestalde, oposizioko alderdiei botoa eman zieten erreparatuta, % 26,3ra jaisten da babesia.

22. taula. “Garrantzitsua iruditzen zaizu, Nafarroako hezkuntza-sisteman, harrera- eta azalpen-protokolo linguistikoak ezartzea familia etorkinentzako euskarari eta dauden hezkuntza-ereduei buruz, batez ere seme-alabak lehen aldiz matrikulatzen dituztenean?” galdera, euskararen ezagutzaren arabera

	GUZTIRA	EUSKARA		
		Ez daki	Zeozer	Ongi daki
% Khi ² -rekin				
Ez da garrantzitsua	17,2	>25,7	<5,2	<2,2
Gutxi	17,6	>22,7	13,3	<6,5
Garrantzitsua	30,9	30,8	32,6	30,2
Nahiko	11,1	8,4	>16,8	14,7
Oso garrantzitsua	23,2	<12,4	>32,0	>46,3

Azkenik, euskararen ezagutzaren aldagai independentea aztertuta (22. taula), ikusten da hizkuntza ez dakiten elkarrizketatuek garrantzi txikiagoa eman diotela protokoloaren ezarpenari, eta, oster, nabarmen handitzen dela gai horri ematen zaion garrantzia (Khi-karratuaren arabera) hizkuntza ezagutzen dutenen artean. Ehuneko datuak, Khi²-aren arabera, xehetasun handiagoz kontsulta daitezke aurreko taulan.

Galdetegiko hogeita laugarren galderan, Nafarroako hezkuntza-sistema ofizialean euskarak presentzia izateari buruz norberak zer iritzi duen adierazi behar izan dute kontsultatutako pertsonak, beren iritzia ondoen adierazten duen esaldia aukeratuta; zehazki, hiru esaldi izan dituzte aukeran. Galderaren emaitzak 23. taulan jaso dira:

23. taula. Nafarroako hezkuntza-sistema ofizialean euskarak presentzia izateari buruz norberak duen iritzia ondoen adierazten duen esaldia

	GUZTIRA
Nafarroako haur guztiek ikasi beharko lukete euskara	17,2
Euskara ikastea aukerakoa izan beharko litzateke nahi duten haurrentzat	17,6
Euskarak ez luke Nafarroako hezkuntza sisteman egon behar	30,9

Argi eta garbi, gehienek uste dute hezkuntza-sistema ofizialean euskara ikasteak aukerakoa izan beharko lukeela, % 75ek, zehazki. Haur guztiek ikasi beharko luketela hautatu du % 21,2k. Eta ehuneko txiki batek, % 3,8k, adierazi du euskarak ez lukeela hezkuntza-sisteman egon behar.

Adinaren eta sexuaren aldagaiak kontuan hartuta ere, erantzunak guztizko emaitzetan lortutakoen antzekoak izan dira. Eremu euskaldunean, % 40,9k (Khi²) uste du haur guztiek ikasi beharko luketela euskara, eta, Nafarroako Ipar-mendebaldeko eskualdean, % 43,5ek babesten du ideia hori. Bestalde, eremu ez-euskaldunean, % 82,3k iritzi dio aukerakoa izan beharko litzatekeela. Euskararen ezagutzaren aldagaiak ere eragina du erantzunetan; izan ere, hizkuntza zenbat eta gehiago jakin, orduan eta handiagoa da haur guztiek euskara jakin behar luketela uste dutenen ehunekoa (% 41,3). Kasu honetan, eta erabilitako aldagai independente guztietan, hautazkoa izatearen aukerak lortu du babesik handiena.

24. taula honetan ikusten da Nafarroako Parlamenturako azken hauteskundeetan emandako botoak zer nolako eragina duen Foru Erkidegoko hezkuntza-sisteman euskara irakastearekin edo ez irakastearekin lotutako jarreretan:


24. taula. Nafarroako hezkuntza-sistema ofizialean euskarak presentzia izateari buruz norberak duen iritzia ondoen adierazten duen esaldia, 2023an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren arabera

	GUZTIRA	BOTOA 2023						
% Khi ² -rekin		UPN	PSN	EH Bildu	Geroa Bai	PPN	Vox	Contigo Zurekin
Nafarroako haur guztiek ikasi beharko lukete euskara.	21,2	<4,3	<5,8	>50,7	>47,0	<1,5	-	24,3
Euskara ikastea aukerakoa izan beharko litzateke nahi duten haurrentzat.	75	87,9	>91,1	<49,3	53	84,5	74,7	75,7
Euskarak ez luke Nafarroako hezkuntza sisteman egon behar.	3,8	7,9	3,1	-	-	>14,0	>25,3	-

Euskara ikastea aukerakoa izatearen alde egin zuten PSNri botoa eman ziotenen % 91,1ek; EH Bilduri dagokionez, antzera banatzen dira haur guztiek ikasi behar luketela uste dutenak eta aukerakoa izan behar lukeela uste dutenak; eta Voxeko hautesleen artean soilik handitzen da euskarak ez lukeela Nafarroako hezkuntza-sisteman egon behar erantzun dutenen ehunekoa (% 25,3).

“Nafarroan euskarazko kultur jarduera gehiago eskaini beharko lirateke haur eta familientzat?”. Galdera hori galdetegiko hogeita bosgarren itemEAN planteatu da. 19. grafiko honetan jaso dira ikerketa distributibo honetan kontsultatutako pertsonen emandako erantzunak.

19. grafikoa. "Nafarroan, euskarazko kultur jarduera gehiago eskaini beharko lirateke haurrentzat eta familientzat?"



% 62,8k adierazi du Nafarroan haurrentzako eta familientzako euskarazko jarduera gehiago eskaintzearen alde dagoela. Ezetz erantzun du % 29,2k, eta gainerako % 8ak ez du gaiari buruzko iritzirik.

Bai Ez Ez dakit

25. taula. "Nafarroan, euskarazko kultur jarduera gehiago eskaini beharko lirateke haurrentzat eta familientzat?" galdera, sexuaren eta adinaren arabera

	GUZTIRA	SEXaUA		ADINA			
% Khi ² -rekin		Gizona	Emakumea	- 30	31-45	46-64	65 eta +
Bai	62,8	62,4	63,3	64,9	59,8	63,8	62,6
Ez	29,2	28,3	29,8	30,1	32,6	27,4	28
Ez daki	8	9,3	6,8	5	7,6	8,8	9,4

25. kontingentzia-taulan, sexuaren eta adinaren aldagaiak kontuan harturik, ez dago estatistikoki alde esanguratsurik ehunekoetan; dena dela, euskarazko kultur jarduera gehiago eskaintzeari dagokionez zehar-adostasuna dagoela ikusten da.

26. taula. "Nafarroan, euskarazko kultur jarduera gehiago eskaini beharko lirateke haurrentzat eta familientzat?" galdera, euskararen ezagutzaren eta hizkuntza-eremuaren arabera

	GUZTIRA	EUSKARA			HIZKUNTZA-EREMUA		
% Khi ² -rekin		Ez daki	Zeozer	Ongi daki	Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Bai	62,8	<50,7	74,2	>87,8	>81,7	65,4	<51,3
Ez	29,2	>39,0	<19,4	<9,3	<12,2	26,9	>39,5
Ez daki	8	10,3	6,4	<2,8	6,1	7,7	9,2

26. taulan jasotako kasu guztietan baiezko erantzuna da nagusi, bai euskararen ezagutza kontuan hartzen denean, bai hizkuntza-eremuak kontuan hartzen direnean. Ikus daitekeen moduan, babes hori nabarmenagoa da ehunekoetan euskara ondo dakiten pertsonen artean eta eremu euskalduneko biztanleen artean (% 87,8 eta % 81,7, hurrenez hurren). Bestalde, ezezko erantzuna ugariagoa da hizkuntza ez dakiten pertsonen artean (% 39) eta eremu ez-euskaldunean bizi direnen artean (% 39,5).

Nafarroan haur eta familientzako euskarazko kultur jarduera gehiago ez liratekeela eskaini behar kasu bakar batean da nagusi (% 68,6): gaur egun Nafarroako Gobernuan oposizioan dauden hiru alderdien (UPN, PPN eta Vox) erantzunak kontuan hartzean.

2.2.4. Euskara Administrazioen lanpostuetan

Txostenaren atal honetan, jasotzen dira aztertutako unibertsoaren iritzia euskarak Nafarroako administrazioetako lanpostuetan presentzia izateari buruz. Horretarako, galdekatutako pertsonen proposatu zaie beren iritzia hobekien islatzen duen adierazpena hautatzeko, mailakatutako lau esaldiz osatutako sorta batetik. Emaitzak 27. taula honetan jaso dira:

27. taula. "Nafarroako administrazioetan lan egin nahi duten pertsonen iritzia, zein esaldik islatzen du ondoen zure iritzia?"

	GUZTIRA
Administrazioan lanean hasteko, euskara eskatu beharko litzateke pertsona guztiei	17,4
Administrazioan lanean hasteko, lanpostu jakin batzuetan bakarrik eskatu beharko litzateke euskara	29,6
Administrazioan lanean hasteko, eremu jakin batzuetan bakarrik eskatu beharko litzateke euskara	26,7
Administrazioan lanean hasteko, ez litzateke inori euskara eskatu behar	26,3

La primera cuestión para resaltar es que el 73,7% de las personas se muestra favorable a una presencia del euskera en el espacio laboral de las administraciones navarras, ya sea para todas las personas o ya sea en determinados puestos o zonas. Que en las administraciones de la Comunidad foral no se pida a nadie el euskera lo refrenda un 26,3%.

Tabla 28. "Respecto a las personas que optan a trabajar en las diferentes administraciones de Navarra, ¿qué frase refleja mejor su opinión?", según zonas lingüísticas

	GUZTIRA	ZONA LINGÜÍSTICA		
% con Jhi ²		Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Para entrar a trabajar en la Administración, se debería pedir euskera a todas las personas	17,4	>35,7	19	<8,5
Para entrar a trabajar en la Administración, solo se debería pedir euskera en determinados puestos	29,6	28,7	>34,4	<19,6
Para entrar a trabajar en la Administración, solo se debería pedir euskera en determinadas zonas	26,7	27,8	25,1	29,5
Para entrar a trabajar en la Administración, no se debería pedir euskera a nadie	26,3	<7,8	<21,5	>42,4

Hizkuntza-eremuak kontuan hartuta aztertzean (28. taula), esangura handiko iritzi-desberdintasunak ikusten dira. Hala, eremu euskalduna deritzon, % 35,7k uste du Administrazioan lan egiteko pertsona guztiei eskatu beharko litzaiekeela euskara. Eremu mistoan, berriz, handiagoa da euskara lanpostu jakin batzuetarako soilik jakin behar litzatekeela uste dutenen ehunekoa (% 34,4). Azkenik, eremu ez-euskaldunean, % 42,4k uste du ez litzaiokeela euskara jakitea eskatu behar Foru Erkidegoko administrazioetan lan egin nahi duen inori. Aurreko kontingentzia-taulan ikus daitekeenez, erantzun horiek guztiek dute asoziazio estatistikoa Khi-karratuaren arabera.

29. taula. "Nafarroako administrazioetan lan egin nahi duten pertsonen dagokienez, zein esaldik islatzen du ondoen zure iritzia?" galdera, euskararen ezagutzaren arabera

% Khi ² -rekin	GUZTIRA	EUSKARA		
		Ez daki	Zeozer	Ongi daki
Administrazioan lanean hasteko, euskara eskatu beharko litzaieke pertsona guztiei	17,4	<8,6	18,4	>40,8
Administrazioan lanean hasteko, lanpostu jakin batzuetan bakarrik eskatu beharko litzateke euskara	29,6	<24,3	>45,4	33
Administrazioan lanean hasteko, eremu jakin batzuetan bakarrik eskatu beharko litzateke euskara	26,7	30,9	21,2	<18,8
Administrazioan lanean hasteko, ez litzaioke inori euskara eskatu behar	26,3	>36,1	<15,0	<7,3

Aztertutako pertsonen euskararen ezagutza-mailak, era berean, nabarmendu beharreko asoziazio estatistikoak erakusten ditu (29. taula). Hizkuntza ez dakitenen % 36,1 administrazioetako lanpostuetan euskara jakitea ez eskatzearen alde dago. Euskaraz partzialki dakitela dioten artean, % 45,4k lanpostu jakin batzuetan bakarrik eskatzea aukeratu du. Hizkuntza hobekiago dakitenak, berriz, gehiago agertu dira Foru Erkidegoko administrazioetan lanean hasten diren pertsona guztiei euskara eskatzearen alde: % 40,8 (Khi²).

Bestalde, Administrazioan lanean hasteko euskara ez litzaiokeela inori eskatu behar defendatzen dutenak gehiengo dira 2023ko foru-hauteskundeetan Nafarroako Gobernuko oposizio alderdiei botoa eman zieten herritarren artean: % 51,4 (Khi²-aren arabera).


2.2.5. Euskararen sustapena

Galdetegiaren hogeita zazpigarren galderak honela dio: “Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du?”.

20. grafikoan, Gobernuak hizkuntza sustatzeari buruz elkarrizketatuek emandako erantzunak ageri dira, ideia horrekiko babes-maila hirutan banatuta: “orain baino gehiago”, “berdin jarraitu behar du” edo “gutxiago”.

20. grafikoa. “Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du?”

Galdetutakoen erdiek (% 49,6k) uste dute Nafarroako Gobernuak euskara orain baino gehiago sustatu behar duela. Bigarren erantzun nagusia (% 34,4) berdin jarraitu behar duela izan da. Azkenik, galdetutakoen % 13,3k hautatu du Nafarroan euskara gutxiago sustatu behar delako ideia.



30. taula. “Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du?” galdera, sexuaren eta adinaren arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA			
% Khi ² -rekin		Gizona	Emakumea	- 30	31-45	46-64	65 eta +
Orain baino gehiago	49,6	50,2	49,2	51,5	42,5	52,4	51
Berdin jarraitu	34,4	34	34,9	35,2	37,2	33,7	32,4
Gutxiago	13,3	12,2	14,2	11,6	17,8	11,4	13
Ed/Ee	2,7	3,6	1,8	1,7	2,5	2,6	3,6

Sexuaren eta adinaren aldagai independenteak kontuan hartuta (30. taula), ia ez da nabarmentzeko moduko alderik hauteman ehunekoetan; izan ere, emaitzak guztizko balioetatik hurbil daude kategoria guztietan.

31. taula. "Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du?" galdera, eskualdeen arabera

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
% Khi ² -rekin		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Orain baino gehiago	49,6	>66,1	50,6	54,9	54	46,9	<29,7	<26,4
Berdin jarraitu	34,4	29,4	45,6	30,5	34,2	39,9	>52,7	39,2
Gutxiago	13,3	<2,8	3,8	12,1	7,4	11,2	14,9	>30,4
Ed/Ee	2,7	1,6	-	2,4	4,4	2,1	2,7	4

Eskualdeka aztertuz (31. taula), eskualde hauetako biztanleek adierazi dute neurri handiagoan Nafarroako Gobernuak euskara orain baino gehiago sustatu beharko lukeela: Ipar-mendebaldea (% 66,1ek), Pirinioaldea (% 50,6k), Iruñerria (% 54,9k) eta Estellerria (% 54k). Goi Erriberan, beste eskualdeetan baino neurri handiagoan babestu dute orain bezala jarraitzeko ideia (% 52,7k); eta Behe Erriberakoak izan dira euskara gutxiago sustatzea beste inon baino neurri handiagoan eskatu dutenak (% 30,4k).

32. taula. "Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du?" galdera, euskararen ezagutzaren eta hizkuntza-eremuaren arabera

	GUZTIRA	EUSKARA			HIZKUNTZA-EREMUA		
% Khi ² -rekin		Ez daki	Zeozer	Ongi daki	Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Orain baino gehiago	49,6	<33,2	>66,7	>82,5	61,7	>55,9	<32,5
Berdin jarraitu	34,4	>44,0	25,2	<14,7	33,9	30,6	>42,8
Gutxiago	13,3	>19,1	7,4	<1,5	<2,6	11,4	>20,7
Ed/Ee	2,7	3,7	0,7	1,2	1,7	2,1	4,1

Euskararen ezagutza zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ugariagoa da Nafarroako Gobernuak hizkuntza orain baino gehiago sustatu behar duela dioen erantzuna (32. taula): euskara ondo dakiten pertsonen % 82,5ek adierazi du ideia hori. Eremu ez-euskaldunean, % 20,7ra igotzen dira euskara gutxiago sustatzearen aldekoak; dena den, eremu guztietan gehiengoa dira sustapen handiagoa edo oraingo egoerari eustea eskatzen dutenak: % 95,6 eremu euskaldunean, % 86,4 eremu mistoan eta % 75,3 eremu ez-euskaldunean (orain baino gehiago sustatzearen eta berdin sustatzen jarraitzearen alde egin dutenen ehunekoak batuta).

Nafarroako Gobernuak babesten duten alderdi guztien boto-emaeleen artean, % 95 Foru Erkidegoan euskara gehiago sustatzearen edo berdin jarraitzearen aldekoak dira. Oposizioan dauden taldeei dagokienez, bi ideia horien aldekoak % 53,6 dira (Voxen boto-emaeleak soilik agertzen dira nabarmen hizkuntza gutxiago sustatzearen alde: % 60,5).

Beste aldagai batzuei dagokienez, hala nola kontsultatutako pertsonen jatorria eta amaitutako ikasketen maila, balio nagusien joerari eutsi zaio, eta Nafarroan euskara gutxiago sustatzearen aldekoek lortu dituzte ehuneko txikienak.

Nafarroako Gobernuak eta/edo toki-administrazioek zehazki zer sustapen-ekintza mota egin behar dituzten galdetzean, pertsonen % 82,4k iradoki du esku-hartzeren bat. Aipatuenean artean, hauek nabarmendu daitezke [jatorrizko hitzak gaztelaniaz]: “Eskola-sisteman eta helduen artean euskara ikasteko aukera erraztea Nafarroa osoan”; “Foru Erkidego osoan askotariko kultura-, kirol- eta jolas-jarduerak sustatzea”; “euskararen erabilera pribatu eta publikoa sustatzea eta indartzea”; “euskara ikasteko eta hedatzeko laguntza ekonomikoa ematea”; “Euskararen Legean aldaketak egitea”; “despolitizatzea eta ez inposatzea”; “benetako elebitasun handiagoa izatea”; “euskaraz dakiten pertsonen arreta hizkuntza horretan ematea erakunde publikoetan”; “administrazioetan lan egiten duten pertsonen artean euskararen ikaskuntza laguntzea”; “Nafarroako hizkuntzari eta haren balio kultural eta identitarioari buruzko heziketa-kanpainak egitea”; edo “administrazioetan eta komunikabideetan euskararen presentzia handitzea”.

2.2.6. Hizkuntza-komunitatea

Jarrerarekin lotutako hamar mailako eskala baten bidez (non 1 balioak desadostasunik handiena adierazten duen eta 10 balioak adostasunik handiena), elkarrizketatutako pertsonen eskatu zaie adierazteko zer iritzi duten euskaldunen unibertsoarekiko iruditeri sozialari buruzko esaldi-sorta baten inguruan. Azalpena argiagoa izan dadin, eskala bost tartetara murriztu da. 33. taulan, galdetegiko hogeita bederatzigarren galderan proposatutako bost ideien inguruan lortutako balorazioak aurkeztu dira. Batezbesteko aritmetikoak hamar puntuko eskala batean kalkulatu aurkeztu dira.

33. taula. Esaldiekiko adostasun-maila

	ADOSTASUN MAILA (%)						
	Oso Aurka	Nahiko aurka	Ez alde ez aurka	Nahiko ados	Oso ados	ED/EE	BATEZBESTEKOAK
Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da.	9,1	5,1	24	31,5	26,9	3,4	6,8
Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko.	46,6	13,1	17,2	11,1	10,8	1,2	3,8
Euskara dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartean.	38,5	12	22,8	14,1	11,2	1,4	4,3
Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari.	18,1	6,7	26	26,4	21,2	1,6	6
Euskara dakiten pertsonak gutxiengoa dira, eta presentzia txikia dute Nafarroako gizarte-bizitzan.	24,5	17,1	30,1	17,6	9,3	1,4	4,8

Batezbesteko aritmetikoaren balioei erreparatuta, bi ideia hauetan lortu da adostasun handiena: “Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da” ideia (6,8 puntu), eta “Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari” ideia (6 puntu). “Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko” ideari dagokionez, desadostasuna handia izan da (3,8 puntu). Bestalde, eskalaren tarteko mailetan daude bi esaldi hauek: “Euskara dakiten pertsonak gutxiengoa dira, eta presentzia txikia dute Nafarroako gizarte-bizitzan” (4,8 puntu) eta “Euskara dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartearen” (4,3 puntu).

34. taula. Esaldiekiko adostasun-maila, sexuaren eta adinaren arabera (balioak batezbesteko aritmetikoetan)

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA			
		Gizona	Emakumea	- 30	31-45	46-64	65 eta +
Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da.	6,8	6,9	6,8	7,1	6,4	6,7	7,1
Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko.	3,8	3,6	4,1	3,8	4	3,9	3,7
Euskara dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartearen.	4,3	3,9	4,7	5,2	4,2	3,8	4,4
Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari.	6	3,6	1,8	1,7	2,5	2,6	3,6
Euskara dakiten pertsonak gutxiengoa dira, eta presentzia txikia dute Nafarroako gizarte-bizitzan.	4,8	4,7	4,9	4,8	4,6	4,7	5,3

Sexuaren eta adinaren arabera (34. taula): “Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da” ideiak babes handiagoa du gazteenen eta hirurogeita bost urtetik gorakoen artean (7,1 puntu). “Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko” ideiak, berriz, batezbestekoa gaitzen du emakumeen artean eta hogeita hamaika eta berrogeita bost urte bitarteko pertsonen artean (4,1 puntu eta 4 puntu, hurrenez hurren). “Euskara dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartearen” ideari dagokionez, batezbestekoaren gainetik dauden balioak lortu dira hogeita hamar urtetik beherakoen artean eta emakumeen artean. Bestalde, “Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari” esaldiak batezbestekotik gertuen dauden balioak lortu ditu sexuaren eta adinaren bi aldagai independenteetan. Azkenik, “Euskara dakiten pertsonak gutxiengoa dira, eta presentzia txikia dute Nafarroako gizarte-bizitzan” ideia batezbestekoa baino 0,5 puntu handiagoa da adin nagusieneko taldean.

35. taula. Esaldiekiko adostasun-maila, eskualdeen arabera (balioak batezbesteko aritmetikoetan)

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdialdea	Goi Erribera	Behe Erribera
Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da.	6,8	7,4	6,5	6,9	7,2	6,8	6,4	6
Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko.	3,8	2,8	2,4	3	2,9	3,4	3	3,3
Euskara dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartean.	4,3	4,2	4,8	4,1	4,4	4,8	4,6	4,6
Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari.	6	7,1	6,4	6,3	6,7	5,6	5,2	4,4
Euskara dakiten pertsonak gutxiengoa dira, eta presentzia txikia dute Nafarroako gizarte-bizitzan.	4,8	4,5	3,9	4,8	4,4	4,3	5,1	5,6

35. kontingentzia-taulari erreparatuta, ikus daiteke, eskualde gehienetan, batezbestekoen balioak erdiko balioen ingurukoak direla. Horregatik, kontraste handiena duten ideiak baino ez dira zehaztu, lehen esaldia, adibidez. Euskaraz dakiten pertsonak elkar babesten dutela eta hori ona dela uste izateak babes handiagoa du Ipar-mendebaldeko eta Estellerriko eskualdeetan; oster, balioak behera egiten du Behe Erriberan. Pirinioaldean eta Ipar-mendebaldean, berriz, batezbestekoa baino balio txikiagoak lortu ditu euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen dituelako ideiak. Bestalde, Ipar-mendebaldean bertan, neurri handiagoan babestu da euskaraz dakiten pertsonak Nafarroako gizarteari dinamismoa ematen diotelako ideia, eta, oster, ideia horrek babes txikiagoa lortu du Goi Erriberan.

36. taula. Esaldiekiko adostasun-maila, euskararen ezagutzaren eta hizkuntza-eremuaren arabera (balioak batezbesteko aritmetikoetan)

	GUZTIRA	EUSKARA			HIZKUNTZA-EREMUA		
		Ez daki	Zeozer	Ongi daki	Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da.	6,8	5,4	6,8	7,8	7,4	7	6,3
Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko.	3,8	3,1	2,7	2,3	2,7	3,8	4,4
Euskara dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartean.	4,3	4,5	3,9	4	4,5	4,2	4,4

	GUZTIRA	EUSKARA			HIZKUNTZA-EREMUA		
		Ez daki	Zeozer	Ongi daki	Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari.	6	5,2	6,7	7,7	7,2	6,3	5
Euskara dakiten pertsonak gutxiengoa dira, eta presentzia txikia dute Nafarroako gizarte-bizitzan.	4,8	5,1	4,4	4,2	4,5	4,7	5,1

Euskararen ezagutza-mailaren eta hizkuntza-eremuen arabera (36. taula), euskaraz ondo dakitenek neurri handiagoan babesten dituzte bi ideia hauek: “Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da” (7,8 puntu), eta “Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari” (7,7 puntu). Antzeko joera ikusten da eremu euskaldunean ere, arestian aipatutako bi proposamen horien inguruan.

2.2.7. Euskarari buruzko jarreraren inguruko aldagaiak

Galdetegiaren azken kapituluan, euskararekiko jarrera jakin batzuen inguruan galdetu zaio ikerketa kuantitatiboaren xede den unibertsoari. Horretarako, elkarrizketatutako pertsonen lau esaldi aurkeztu zaizkie, hamar mailako eskala baten arabera baloratzeko; eskala horretan, 1 balioak desadostasun handiena adierazten du, eta 10 balioak, berriz, adostasun handiena. Errazago interpretatu ahal izateko, bost kategoriatarako murriztutako eskala batean aurkeztu dira adostasunaren/desadostasunaren emaitzak. Aldagai biko analisiaren taula hauetan, hamar puntuko eskalarekiko batezbesteko aritmetikoak lortu dira.

37. taula. Esaldiekiko adostasun-maila

	ADOSTASUN MAILA (%)						
	Oso aurka	Nahiko aurka	Ez alde ez aurka	Nahiko ados	Oso ados	Ed/Ee	BATEZBESTEKOAK
Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartearen eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak.	7,2	6,4	23,2	29,3	31,4	2,6	7,1
Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da.	3,8	1,8	8,1	15,6	69,8	0,8	8,7
Euskararen erabilera alderdikoa kaltegarria da hizkuntzarentzat.	17,8	5	11,6	14	48,2	3,4	7,1
Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirake euskararen eta gaztelaniaren eta haien hitzunen artean.	1,3	0,3	4,2	11,6	81,1	1,5	9,3

37. taulan, lehen irakurketa sintetiko bat eginda, eta proposatutako lau esaldietako bakoitzean lortzen diren batezbesteko aritmetikoetatik abiatuta, balio guztiak zazpitik gorakoak direla ikusten da, hau da, “nahiko ados” balioetatik hurbil. Nahiko ados eta oso ados dauden ehunekoak batuz gero, balio hauek lortzen dira: “Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartean eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak” esaldiak % 60,7 lortu du; “Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da” esaldiak % 85,4; “Euskararen erabilera alderdikoia kaltegarria da hizkuntzarentzat” esaldiak % 62,2; eta “Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean” esaldiak % 92,7.

38. taula. Esaldiekiko adostasun-maila, sexuaren eta adinaren arabera (balioak batezbesteko aritmetikoetan)

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA			
		Gizona	Emakumea	- 30	31-45	46-64	65 eta +
Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartean eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak.	7,1	7,3	6,9	7,1	7	7,1	7
Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da.	8,7	8,8	8,6	8,5	8,6	8,9	8,6
Euskararen erabilera alderdikoia kaltegarria da hizkuntzarentzat.	7,1	7,3	6,9	6,4	7,3	7,8	6,3
Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean.	9,3	9,3	9,3	9,3	9,6	9,5	8,9

Sexuaren eta adinaren aldagai independenteen arabera lortutako erantzunei dagokienez, esangura gutxiko alde txikiak hauteman dira ehunekoetan bi kasuetan (ikus aurreko 38. taula, batezbesteko aritmetikoaren balioetan).

39. taula. Esaldiekiko adostasun-maila, eskualdeen arabera (balioak batezbesteko aritmetikoetan)

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdial-dea	Goi Erribera	Behe Erribera
Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartean eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak.	7,1	6,9	7,5	7,3	7	6,9	6,6	6,3

	GUZTIRA	NAFARROAKO ESKUALDEAK						
		Ipar-mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñerria	Estellerria	Erdial-dea	Goi Erribera	Behe Erribera
Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da.	8,7	9,5	9,5	8,8	9,1	8,5	8,4	7,5
Euskararen erabilera alderdikoia kaltegarria da hizkuntzarentzat.	7,1	6,6	6,3	7,4	6,6	6,7	6,5	6,6
Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean.	9,3	9,1	9,1	9,4	9,2	9	9,5	9,1

Batezbesteko aritmetikoak eta Nafarroako eskualdeetan duten posizioa aintzat hartuta (39. taula), alde txikiak hautematen dira. Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala dela dioen bigarren proposamena aztertzean, Ipar-mendebaldeko eta Pirinioaldeko eskualdeetan ageri dira batezbesteko balio altuenak (9,5 puntu); Behe Erriberan, berriz, 7,5 punturaino jaisten da. Gainerako proposamenetan, eskualdeek desbideratze sotilagoak dituzte guztizko batezbesteko aritmetikoaren balioekiko.

40. taula. Esaldiekiko adostasun-maila, euskararen ezagutzaren eta hizkuntza-eremuaren arabera (balioak batezbesteko aritmetikoetan)

	GUZTIRA	EUSKARA			HIZKUNTZA-EREMUA		
		Ez daki	Zeozer	Ongi daki	Euskalduna	Mistoa	Ez-euskalduna
Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartearen eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak.	7,1	6,9	7,2	7,4	7,1	7,3	6,5
Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da.	8,7	8,2	9,2	9,8	9,5	8,8	8,1
Euskararen erabilera alderdikoia kaltegarria da hizkuntzarentzat.	7,1	7,1	7,3	6,9	6,2	7,3	7
Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean.	9,3	9,3	9,2	9,5	9,1	9,4	9,2

Euskararen ezagutza eta hizkuntza-eremua kontuan hartuta (40. taula), desberdintasun hauek nabarmendu behar dira: “Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartean eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak” esaldiarekiko adostasun-maila handiagoa da zenbat eta euskara gehiago jakin; eta esaldi horrekiko adostasun-mailaren batezbesteko aritmetikoa ere handiagoa da hizkuntza-eremu mistoan eta euskaldunean. Euskara babestu beharreko aberastasun kulturaltzat hartzeak oso balio altuak lortu ditu aipatutako bi aldagai horietan (euskararen ezagutza eta hizkuntza-eremua); nolanahi ere, euskara ondo dakitenen artean eta hizkuntza-eremu euskaldunean du babesik handiena, 9,8 puntu eta 9,5 puntu lortu baitira, hurrenez hurren, aukera horietan. Azkenik, “euskararen erabilera alderdikoia kaltegarria da hizkuntzarentzat” eta “errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean” esaldiek babes handia lortu dute elkarriketatuen artean, haien euskararen ezagutza-maila edo hizkuntza-eremua alde batera utzita.

41. taula. Esaldiekiko adostasun-maila, 2023an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren arabera

	GUZTIRA	BOTOA 2023						
		UPN	PSN	EH Bildu	Geroa Bai	PPN	Vox	Contigo Zurekin
Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartean eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak.	7,1	7,5	7,2	7,4	7,6	6,7	4,8	6,5
Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da.	8,7	7,3	8,7	9,8	9,8	6,8	4,7	9,5
Euskararen erabilera alderdikoia kaltegarria da hizkuntzarentzat.	7,1	8,6	7,5	6,1	7,8	8	7,5	7,4
Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean.	9,3	9,3	9,5	9,4	9,7	9,2	8,3	9,4

41. kontingentzia-taulan, euskararekiko zer jarrera dauden jaso da, 2023an Nafarroako Parlamenturako azken hauteskundeetan emandako botoaren arabera. Proposatutako lau ideiek babes handia lortu dute aztertutako aukera politiko guztietan, Voxen boto-emaeleen artean salbu; horien artean, 4,8 puntu eta 4,7 puntu lortu dira, hurrenez hurren, bi esaldi hauetan: (i) “Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartean eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak” eta (ii) “Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da”. Bigarren ideia hori EH Bilduren, Geroa Bairen eta Contigo-Zurekin koalizioaren hautesleek babestu dute gehien. “Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean” azken esaldiak lortu du babesik handiena batezbesteko aritmetikoaren balioetan, baita Voxen boto-emaeleen artean ere (8,3 puntu).

2.2.8. Euskarari buruzko jarrerak: analisi faktoriala

Zenbakizko datuak sinplifikatzeko eta Nafarroako biztanleek euskararekiko zer jarrera dituzten neurtzeko, egokitasun-analisi sinplea (ACS) erabili da (egokitasun-analisi faktoriala ere esaten zaio). Analisia zenbaki positiboen matrize batetik abiatzen da; kontingentzia-taula batetik, normalean. Behaketaren helburu nagusia da aztertu beharreko aldagaien artean, aipatutako tabulazioko errenkadetako eta zutabeetako erantzunen artean, zer erlazio dauden detektatzea (antzekotasunak nahiz desberdintasunak). Datuak grafikoki aurkeztu dira, X eta Y koordenatuen mapa baten bidez. Mapa horri esker, neurri handi batean, azkar hautematen dira aldagaien eta horien kategorien arteko loturak eta aldeak. Normalean, analisirako garrantzi handiena duten bi faktoreen gainean aurkezten da mapa, hau da, berezko balio handiena duten faktoreen gainean.

Egokitasun-analisi sinplearen azterketarako hautatutako mendeko hiru aldagaiak galdetegian jasotakoak dira, 19., 22. eta 27. galderetan, zehazki:

- | | |
|--------|---|
| 19. G. | Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...? Hauek dira erantzun-aukerak: Gora egitea; Berdin geratzea; eta Behera egitea. |
| 22. G. | Egokia irudituko litzaizuke eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarrizko kultur nozio batzuk sartzea? Hauek dira erantzun-aukerak: Bai; Ez; eta Ez dakit. |
| 27. G. | Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du? Eta erantzun-aukerak: Orain baino gehiago; Berdin jarraitu; eta Gutxiago. |

Adierazitako mendeko hiru aldagaiak, kasu guztietan, aldagai independente hauekin gurutzatu dira: adina, hizkuntza-eremua, euskararen ezagutza, 2023ko foru-hauteskundeetan emandako botoa, eta elkarriketatutako pertsonen jatorria. Lehenik eta behin, dimentsioen berezko balioak eta bariantza metatuaren ehunekoak erakusten dira, eta, ondoren, aztertutako aldagaien arteko loturen mapa.

2.2.8.1 Euskararen presentzia etorkizunean Nafarroan


Aurrez aipatu bezala, hau da azterketako 19. galdera: “Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...?”. 1. eta 2. dimentsioek adierazten dituzten balio metatuak bariantza metatuaren ehuneko ehun dira (42. taula).

42. taula. “Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...?": dimentsioen balioak eta bariantzaren ehunekoa

	Balio propioa	Bariantza (%)	Bariantza metatua (%)
1. dimentsioa	10,4	90,06	90,06
2. dimentsioa	1,2	9,94	100,00
3. dimentsioa			100,00

Egokitasun-analisi sinplea (ACS) egitean, erlazio-taula hau sortzen da (21. grafikoa) aurreko atalean adierazitako aldagai independenteen eta mendeko aldagaiaren artean; adierazpen grafiko honetan jaso da erlazio hori:

21. grafikoa. (ACS) “Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...?”, adinaren, hizkuntza-eremuaren, euskararen ezagutzaren, 2023ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren eta jatorriaren arabera



Hauek dira etorkizunean Nafarroan euskararen presentziak gora egin dezan nahi dutenak, ageriko asoziazio eta hurbiltasunaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) jaiotako pertsonak, euskaraz partzialki dakitela adierazten dutenak, eremu euskaldunean bizi direnak, eta Contigo-Zurekin taldeko boto-emaileak. Bigarren hurbiltasun-mailan, hauek kokatzen dira: eremu mistoan bizi direnak, berrogeita sei urtetik gorakoak, Nafarroan jaiotakoak, eta gazteenak. Hirugarren multzoa, berriz, euskara ondo dakitenek eta EH Bilduren eta Geroa Bairen boto-emaileek osatzen dute.

Euskararen presentziak berdin jarraitzeko nahiari dagokionez, talde hauekiko loturak ageri dira: euskaraz ez dakitenak, beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoak, 31 eta 45 urte bitartekoak, eta eremu ez-euskaldunean bizi direnak. Urrunago daude PSNren eta UPNren boto-emaileak. Azkenik, etorkizunean euskararen presentzia murrizteko nahiaren aldeko erantzunetik gertuago daude PPN eta Vox alderdien boto-emaileak; dena den, azken alderdi hori mapatik kanpo geratzen da (+2.5eko desbideratzea erdigunetik).

2.2.8.2 Euskarari buruzko kultur nozioak eskola-programetan


Jarraian, galdera honen emaitzak aztertuko ditugu: “Egokia irudituko litzaizuke eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea?”. Hauek dira erantzun-aukerak: Bai; Ez; eta Ez dakit. 43. taula honetan ikus daitekeenez, 1. eta 2. dimentsioek bariantzaren % 99,98 azaltzen dute.

43. taula. “Egokia irudituko litzaizuke eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea?”: dimentsioen balioak eta bariantzaren ehunekoa

	Balio propioa	Bariantza (%)	Bariantza metatua (%)
1. dimentsioa	5,7	95,79	95,79
2. dimentsioa	0,3	4,19	99,98
3. dimentsioa		0,01	99,99
1. dimentsioa			99,99
2. dimentsioa			100,00
6. dimentsioa			100,00

Hurrengo mapan (22. grafikoa), bi dimentsio nagusiak jasotzen dira, eta hemen aztertutako aldagai independenteen kategorietan zenbateko aldea dagoen erakusten du.

22. grafikoa. (ACS) "Egokia irudituko litzaizuke eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea?", adinaren, hizkuntza-eremuaren, euskararen ezagutzaren, 2023ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren eta jatorriaren arabera



Baiezko erantzuna aztertuz gero —hau da, eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko ezagutza kulturalak sartzearen aldeko erantzunak—, eta taularen goiko ezkerreko koadranteari erreparatuta, multzo hauekin egin daitezke asoziazioak: berrogeita sei eta hirurogeita lau urte bitarteko pertsonak, euskaraz zerbait dakitenak, Nafarroako eremu mistoan bizi direnak, eta jatorriz nafarrak direnak. Bigarren tartean, pertsona-multzo hauek ageri dira: euskaraz ondo dakitenak, Geroa Bairen eta EH Bilduren boto-emaileak, eremu euskaldunean bizi direnak, Contigo-Zurekin taldearen boto-emaileak, eta EAEn jaiotakoak.

Ezezko erantzuna, nolabaiteko distantziarekin, pertsona hauekin dago lotuta: UPNren edo PPNren boto-emaileak, Estatuko gainerako erkidegoetatik etorritakoak, eremu ez-euskaldunean bizi direnak, eta euskaraz ez dakitenak.

Azkenik, aztertutako galderari buruzko iritzirik ez dutenak eta Voxeko boto-emaileak disoziatuta ageri dira, maparen erdigunetik 2.5etik gorako desbideratzearekin.

2.2.8.3 Euskararen sustapena

Hirugarrenik, galdetegiko hogeita zazpigarren galdera aztertu da egokitasun-analisi sinplea erabiliz; zehazki, hau izan da galdera: “Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du...?”.


Bi dimentsioek lortzen dituzten ehunekoak eta bariantza metatua % 100 dira, 44. taulan ikus daitekeen moduan:

44. taula. “Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du?”, dimentsioen balioak eta bariantzaren ehunekoak

	Valor propio	% de varianza	% de varianza acumulado
1. dimentsioa	13,0	89,93	89,93
2. dimentsioa	1,5	10,07	100,00

Hona hemen D1 eta D2 dimentsioen grafikoa, galdetegiko hogeita zazpigarren aldagaiaren asoziazio-emaizak erakusten dituena (23. grafikoa):

23. grafikoa. (ACS) “Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du?”, adinaren, hizkuntza-eremuaren, euskararen ezagutzaren, 2023ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan emandako botoaren eta jatorriaren arabera



Nafarroako Gobernuak euskara gaur egun baino gehiago sustatu behar duela uste dutenak talde hauetakoak dira: euskaraz partzialki dakiten pertsonak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, eremu mistoan eta euskaldunean bizi direnak, berrogeita sei urtetik gorakoak eta hogeita hamar urtetik beherakoak, eta jatorriz Nafarroakoak direnak. Urrunago ageri dira beste pertsona hauek: euskaraz ondo dakitenak, eta Contigo-Zurekin, Geroa Bai eta EH Bilduren boto-emaileak.

Nafarroako Gobernuak euskararen sustapenean berdin jarraitu behar lukeelako erantzunari dagokionez, talde hauetakoak dira gehienbat: beste autonomia-erkidego batzuetako pertsonak, euskaraz ez dakitenak, PSNren boto-emaileak, eta eremu ez-euskaldunean bizi direnak.

Azkenik, nolabaiteko distantziara, pertsona hauekin lotzen da Gobernuaren esku-hartze txikiagoa nahi izatea: 2023ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan UPN, PPN eta Vox alderdien aldeko botoa eman zuten pertsonekin (Voxeko boto-emaileak mapatik kanpo ageri dira, hala ere).

3. Sintesi moduan



3. SINTESI MODUAN

Atal hau ikerketaren helburuen arabera egituratu da batez ere, baina beste emaitza batzuk ere erantsi dira, garrantzitsutzat jotzen baitira:

1. % 50etik gorako babesa lortu duten elementu diskurtsiboak (Nafarroako biztanlerian erresonantzia positiboak eragiteko aukera handiagoak dituztenak), eta horien banaketa soziala eta geografikoa.
2. % 50etik beherako babesa duten elementu diskurtsiboak (biztanlerian erresonantziak lortzeko aukera gutxiago dituztenak, edo disonantziak eragin ditzaketenak), eta horien banaketa soziala eta geografikoa.

(Bi kasu horietan, adierazitako ehunekoak lagindutako biztanleria osoari dagozkio. Guztirako datuak azterlanaren aldagai independenteekin kontrastatu nahi izanez gero —hala nola adina, sexua, bizilekuaren eskualdea eta euskararen ezagutza—, azterketa kuantitatiboari buruzko 2.2 atalera jo dezake irakurleak).
3. Biztanleriak euskara sustatzearen alde duen jarrera.
4. Euskal komunitatearen erreferentzia positiboa Nafarroako gizartean.

3.1. Biztanleriaren % 50etik gorako babesa duten elementu diskurtsiboak

Biztanleriaren % 50etik gorako babesa izan duten zenbait elementu diskurtsibo identifikatu dira (erresonantzia positiboak sortzeko aukera handiagoak dituztenak). Honako hauek dira (galdetegiko zein galderarekin lotzen diren adierazita):

- 30.4. G. Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean: % **93**.
- 30.2. G. Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da: % **85**²⁰.
22. G. Egokia irudituko litzaioke hezkuntza programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea: % **82**.
24. G. Euskara ikastea aukerakoa izan beharko litzateke nahi duten haurrentzat: % **75**.
13. G. Euskara ikasi ahal izana gustatuko litzaioke: % **66**.
18. G. Datozen urteetan Nafarroan euskara dakitenen ehunekoak gora egingo duela uste du: % **65**.
19. G. Datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentziak gora egitea gustatuko litzaioke: % **64**.
25. G. Nafarroan euskarazko kultur jarduera gehiago eskaini beharko lirateke haurrentzat eta familientzat: % **63**.

²⁰ 1.4 atalean adierazi den bezala, Europar Batasunean biztanleriaren % 84 ados dago “eskualdeetako eta eremu urriko” hizkuntzak babestu egin beharko liratekeela esatean (European Union, 2024), eta balio hori ikerketa honetan Nafarroarentzat lortutakoaren oso antzekoa da.

- 30.3. G. Euskararen erabilera alderdikoia kaltegarria da hizkuntzarentzat: % 62.
- 30.1. G. Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartean eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak: % 61.
- 29.2. G. Euskaraz dakitenen komunitateak ez du oztoporik sortzen ez dakitenengandik bereizteko (hau da, ez dago ados “oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko” enuntziatuarekin): % 60.
- 29.1. G. Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da: % 58.
26. G. Administrazioan lanean hasteko, lanpostu edo eremu jakin batzuetan bakarrik eskatu beharko litzateke euskara: % 56.
21. G. Ez du uste Euskararen Foru Legeak aukera ematen dienik Nafarroako haur guztiei euskaraz ikasteko, nahi izanez gero (eta haien bizilekua zeinahi dela-ere): % 53 (% 40ren ezezko erantzuna eta % 13ren ezjakintasuna batuta).
- [Euskararen Foru Legeak Nafarroako euskaraz ikasteko aukera haur guztiei ematen dienez, nahi izanez gero, haien bizilekua zeinahi dela-ere, galdera horren erantzunak inplikazio bikoitza dute: alde batetik, gizarteak errealitate horretaz duen ezagutza edo ezezagutza kontrastatzeko balio objektiboa dute; baina, bestetik, sinesmenari edo diskurtsoari lotutako inplikazioa ere badute, sinesmen hori errealitatearekin bat datorren edo ez alde batera utzita (ikus 2.2.3 atala)].
- Datuek adierazten dute Nafarroako biztanleen erdiek baino gehiagok ez dutela errealitate horren berri, eta, horren ondorioz, desinformazioan oinarritutako sinesmen edo diskurtsoak eratu daitezke.
- 29.3. G. Euskaraz dakitenen komunitatea ez da talde pribilegiatua Nafarroako gizartean. Hau da, adostasunik ez “talde pribilegiatua da” adierazpenarekin (alegia, EZ dira talde pribilegiatua): % 51.
27. G. Nafarroako Gobernuak orain baino gehiago sustatu behar du euskara: % 50.

% 50etik gorako babesa lortu duten elementu diskurtsiboei buruzko iruzkinak:

Badira Nafarroako herritarren % 50eko babesa edo babes handiagoa lortzen duten garrantzi handiko elementu diskurtsibo batzuk, biztanlerian erresonantzia positiboak sortzeko aukera handiagoak dituztenak eta, horrez gain, euskara sustatzearen aldekotzat jo daitezkeenak.

Elementu diskurtsibo horietako gehienek gehiengoaren babesa lortu dute, ez bakarrik biztanleria osoan, baita Nafarroako sektore soziodemografiko edo eskualde gehienetan ere. Babesaren aldeko ehunekorik txikiak Behe Erriberan izan dira, batez ere; batzuetan, gainera, % 50etik beherakoak izan dira.

3.2. Biztanleriaren % 50etik beherako babesa duten elementu diskurtsiboak

% 50etik beherako babesa duten elementu diskurtsiboak ere identifikatu dira (biztanlerian erresonantziak lortzeko aukera gutxiago dituztenak, edo disonantziak eragin ditzaketenak). Honako hauek dira:

- 29.4 G. Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari: % 48 (gehiengoaren erantzuna da, baina ez da % 50era iristen).
- 21. G. Uste du Euskararen Legeak aukera ematen diela Nafarroako haur guztiei, nahi izanez gero, euskaraz ikasteko (haien bizilekua zeinahi dela-ere): % 47.
- 25. G. Nafarroan ez lirateke euskarazko kultur jarduera gehiago eskaini beharko haurrentzat eta familientzat: % 29.
- 26. G. Administrazioan lanean hasteko, ez litzaioke inori euskara eskatu behar: % 26.
- 29.3 G. Euskaraz dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartean. Ados (hau da, talde pribilegiatua da): % 25.
- 29.2 G. Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko. Ados (hau da, bai, oztopoak sortzen dituzte): % 22.
- 24. G. Nafarroako haur guztiek ikasi beharko lukete euskara: % 21.
- 26. G. Administrazioan lanean hasteko, euskara eskatu behar litzaieke pertsona guztiei: % 17.
- 22. G. Ez litzaioke egokia irudituko eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea: % 16.
- 29.1 G. “Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da” enuntziatuarekin ez dago ados: % 14.
- 27. G. Nafarroako Gobernuak orain baino gutxiago sustatu behar du euskara: % 13.
- 19. G. Datozen urteetan Nafarroan euskararen presentziak behera egitea gustatuko litzaioke: % 8.
- 24. G. Euskarak ez luke Nafarroako hezkuntza-sisteman egon behar: % 4.

% 50etik beherako babesa duten elementu diskurtsiboak buruzko iruzkinak (biztanlerian erresonantziak sortzeko aukera gutxiago dituztenak):

Euskara sustatzearekiko edo haren presentziarekiko desadostasuna adierazten duten ia elementu diskurtsibo guztiek % 50etik beherako babesa dute Nafarroako biztanleen artean. Gainera, elementu diskurtsibo horietako gehienak Nafarroako segmentu soziodemografiko eta eskualde guztietan geratu dira % 50etik behera.

3.3. Biztanleriak euskara sustatzearen alde duen jarrera

Hizkuntzarekin loturiko diskurtsoak (elementu diskurtsiboak) eta jarrerak, bistan denez, oso hurbileko faktoreak dira, eta elkarren artean nahiz praktika linguistikoekin lotuta daude, biztanleriaren portaera linguistikoen arrazoi subjektibotzat har daitezkeen barruan (Erize, 2016).

Horregatik, ikerketa honen berezko aldagai multzo batetik abiatuta, adierazle sintetiko edo agregatu²¹ bat sortu dugu, Nafarroako biztanleek euskararen sustapenaren inguruan dituzten jarrerak kuantifikatzeko. Kontuan izan behar da ez direla aurrez zehaztutako aldagaiak; hau da, ikerlan honen fase kualitatiboko talde-saioetan azaleratu diren elementu diskurtsiboetatik abiatuta egin da atal kuantitatiboaren galdetegia, “1.7 Metodologia” atalean adierazi den bezala.

Kuantifikazio horren arabera, Nafarroako biztanleen % 63 euskara sustatzearen aldekoa edo oso aldekoa da; % 20 ez dago ez alde ez aurka; eta % 17 aurka edo oso aurka dago.

Erabilitako aldagaiak 45. taulan aurkeztu dira, galdetegian enuntziatu diren bezala transkribatuta (“6 Eranskina” atala):

45. taula. Nafarroako biztanleek euskararen sustapenaren inguruan dituzten jarreraren adierazle sintetikoa edo agregatua kalkulatzeko erabilitako aldagaiak

- | |
|---|
| 19. G. “Zuri gustatuko litzaizuke datozen urteetan euskarak Nafarroan izango duen presentzia(k)...?": Gora egitea / Berdin geratzea / Behera egitea. |
| 22. G. “Egokia irudituko litzaizuke eskolako programetan Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea?": Bai / Ez / Ez dakit. |
| 25. G. “Nafarroan euskarazko kultur jarduera gehiago eskaini beharko lirateke haur eta familientzat?": Bai / Ez / Ez dakit. |
| 27. G. “Nafarroako Gobernuak euskara sustatu behar du?": Orain baino gehiago / Berdin jarraitu / Gutxiago. |
| 29.1 G. “Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da”: Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. |

21 Beste diziplina batzuetan adierazle sintetikoak edo agregatuak erabiltzeari dagokionez, ikusi adibide hau: European Commission. Directorate-General for Economic and Financial Affairs (2016), edo Ministerio de Industria, Comercio y Turismo (2012).

- 29.2 G. "Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. (Erantzuna alderantziz baloratzen da: adierazpenarekin zenbat eta neurri handiagoan egon ados, orduan eta kontrakoagoa izango da euskara sustatzeari buruzko jarrera).
- 29.3 G. "Euskara dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartean": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. (Erantzuna alderantziz baloratzen da: adierazpenarekin zenbat eta neurri handiagoan egon ados, orduan eta kontrakoagoa izango da euskara sustatzeari buruzko jarrera).
- 29.4 G. "Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia.
- 29.5 G. "Euskara dakiten pertsonak gutxiengoa dira, eta presentzia txikia dute Nafarroako gizarte-bizitzan": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. (Erantzuna alderantziz baloratzen da: adierazpenarekin zenbat eta neurri handiagoan egon ados, orduan eta kontrakoagoa izango da euskara sustatzeari buruzko jarrera).
- 30.2 G. "Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia.
- 30.4 G. "Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hiztunen artean": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia.

3.4. Euskal hiztunen komunitatearen erreferentzia positiboa Nafarroako gizartean

Adierazle agregatu bat ere sortu dugu ikerketa honetan, kuantifikatzeko zer neurritan den erreferentzia (positiboa nahiz negatiboa) euskal hiztunen komunitatea Nafarroako biztanleentzat. Horretarako, ikerlan honen berezko bost aldagai erabili dira.

Kuantifikazio horren arabera, Nafarroako biztanleen % 52rentzat euskal hiztunen komunitatearen erreferentzia positiboa da; % 26rentzat erreferentzia neutroa da; eta % 23rentzat negatiboa.

Erabilitako aldagaiak 46. taulan jaso dira:

46. taula. Euskal hiztunen komunitateak Nafarroako biztanleentzat duen erreferentzialtasunaren adierazle sintetikoa edo agregatua kalkulatzeko erabilitako aldagaiak

- | |
|--|
| 29.1 G. "Euskaraz dakiten pertsonak asko laguntzen dira haien artean, eta hori positiboa da": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. |
| 29.2 G. "Euskaraz dakitenen komunitateak oztopoak sortzen ditu ez dakitenengandik bereizteko": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. (Erantzuna alderantziz baloratzen da: adierazpenarekin zenbat eta neurri handiagoan egon ados, orduan eta negatiboagoa izango da euskal hiztunen komunitatearen erreferentzia). |
| 29.3 G. "Euskara dakitenen komunitatea talde pribilegiatua da Nafarroako gizartean": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. (Erantzuna alderantziz baloratzen da: adierazpenarekin zenbat eta neurri handiagoan egon ados, orduan eta negatiboagoa izango da euskal hiztunen komunitatearen erreferentzia). |
| 29.4 G. "Euskaraz dakiten pertsonak dinamismoa ematen diote Nafarroako gizarteari": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. |
| 29.5 G. "Euskara dakiten pertsonak gutxiengoa dira, eta presentzia txikia dute Nafarroako gizarte-bizitzan": Oso adostasun handia / Nahiko adostasun handia / Adostasun apur bat eta desadostasun apur bat / Nahiko desadostasun handia / Oso desadostasun handia. (Erantzuna alderantziz baloratzen da: adierazpenarekin zenbat eta neurri handiagoan egon ados, orduan eta negatiboagoa izango da euskal hiztunen komunitatearen erreferentzia). |

4. Ondorioak eta eztabaida



4. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

4.1. Laburpena eta emaitzen interpretazioa

Metodologia mistoko ikerketa honetan (kualitatiboa eta kuantitatiboa), Nafarroako biztanleriaren profil soziodemografiko nagusi guztiak biltzen dituzten bederatzi talderekin egin da fase kualitatiboa, eta taldeen eta taldeetako parte-hartzaileen artean gehien aipatu diren elementu diskurtsiboak identifikatu dira (“2.1 Txosten kualitatiboa” atala). Ondoren, fase kualitatiboan egindako aurkikuntzetatik abiatuta, fase kuantitatibo bat egin da, euskaraz eta gaztelaniaz inkestatutako 903 pertsonarekin; fase horretan, hain zuzen, kuantitatiboki baliozkotu dira aurreko aurkikuntzak (“2.2 Txosten kuantitatiboa”).

% 50etik gorako babesa duten elementu diskurtsiboen multzo bat identifikatu da, eta, beraz, elementu horiek aukera handiagoa dute herritarren artean erresonantzia positiboak sortzeko (“3.1 Biztanleriaren % 50etik gorako babesa duten elementu diskurtsiboak”). Elementu horiek euskararen sustapenaren aldekotzat jo daitezke. Horrez gain, % 50etik beherako babesa duten beste elementu diskurtsibo batzuk ere identifikatu dira, biztanlerian erresonantziak sortzeko aukera gutxiago dituztenak, edo disonantziak eragiteko aukera dutenak (“3.2 Biztanleriaren % 50etik beherako babesa duten elementu diskurtsiboak”).

Era berean, ikerketa honen berezko aldagai-multzo batetik abiatuta, Nafarroako biztanleek euskararen sustapenaren inguruan dituzten jarrerak kuantifikatu dira, eta, horrenbestez, ondorioztatu da Nafarroako biztanleriaren % 63 euskara sustatzearen aldekoa edo oso aldekoa dela (“3.3 Biztanleriak euskara sustatzearen alde duen jarrera” atala). Era berean, azterlan honen berezko beste aldagai-multzo batetik abiatuta, kuantifikatu da euskal hiztunen komunitatea zer-nolako erreferentzia den Nafarroako biztanleentzat; hala, ondorioztatu da euskal hiztunen komunitatea erreferentzia positiboa dela Nafarroako biztanleriaren % 52rentzat (“3.4 Euskal komunitatea erreferentzia Nafarroako gizartean” atala).

Aldeko jarrerak % 63 izateak kontraste argia egiten du VII. Inkesta Soziolinguistikoan jasotakoarekin, bertan % 30ekoa dela adierazten baita (“1.4 Gaiari buruzko lanen egoera” atala). Nola interpretatu desberdintasun hori? Ziurrenik, erabilitako galdetegien arteko desberdintasunen ondorio izango da. Horri dagokionez, soilik adieraz daiteke ikerketa honetan erabilitako galdetegia fase kualitatiboko aurkikuntzetan oinarrituta dagoela, eta ikerketa osoarekiko koherentzia metodologiko osoa duela (“1.7 Metodologia” atala). Galdetegia “6 Eranskina” atalean dago.

Era berean, Nafarroako biztanleen % 52rentzat euskal hiztunen komunitatea erreferentzia positiboa izatea aldeko jarreraren pare interpreta daiteke; izan ere, ez da harritzekoa euskal komunitatea erreferentzia nagusiki positiboa izatea, gehiengoa euskara sustatzearen aldekoa baita. Bestalde, ez dago gaiari buruzko aurreko neurketarik, azterlan honetan lortutakoa kontrastatzeko aukera ematen duenik.

Nafarroan euskara inposatzearen aurkako diskurtsoari dagokionez, azpimarratzekoa da elementu hori bera aipatzen dela beste hizkuntza gutxitu batzuei buruzko literaturan ere, hala nola Balear Uharteetako katalanaren kasuan (Castell et al., d. g.) eta Irlandako Errepublikako irlandararen kasuan (Murray et al., 2023).

“1.2 Testuinguru soziolinguistikoa” atalean azalduetakoa kontuan hartuta, emaitzak bereziki garrantzitsuak dira Nafarroako gizartean, euskararen sustapenaren inguruko akordio eta desadostasun sozialen maila berezia baita bertan. Baina, era berean, emaitzak esanguratsuak dira euskaraz hitz egiten den gainerako lurraldeentzat, eta baita eskualdeetako edo eremu urriko beste hizkuntzentzat ere; izan ere, hizkuntza horiek beren babesaren eta sustapenaren zilegitasunaren oinarri diren diskurtsoen erresonantzia sozialari eutsi beharra edo berritu beharra izaten dute beti.

4.2. Helburuen eta hipotesiaren betetze-maila

Helburuen betetze-maila oso handia izan da, Nafarroan euskara sustatzeari buruzko elementu diskurtsibo garrantzitsuak identifikatu eta aztertu direlako. Elementu diskurtsibo horiek elkarriketatu gehienek babesarekin agertu dira ikerketan, eta, beraz, erresonantzia soziala lor dezakete biztanleen artean ere; ildo horretatik, Nafarroan euskara sustatzeko aukera eman lezakete. Halaber, elementu diskurtsibo horien oinarritzko banaketa soziala aztertu da.

Hipotesiaren berreste-maila ere oso handia da.

4.3. Ikerketaren indarguneak eta mugak

“1.4 Gaiari buruzko lanen egoera” atalean adierazitakoa kontuan hartuta, ikerketa honen hainbat indargune eta ekarpen bereizgarri adieraz daitezke:

- Ikerketaren berritasuna, dimentsio zabala eta metodologia; izan ere, ikerketa misto kualitatibo eta kuantitatibo osoa da, Nafarroako gizartearen errealitate plural soziala, linguistikoa eta geografikoa behar bezala hautemateko gai dena. Ikerketaren diseinua oso egokia izan da, eta bete egin da praktikan. Hain zuzen ere, fase kualitatiboan identifikatutako elementu diskurtsiboen egiazko pisua eta banaketa soziala kontrastatu dira fase kuantitatiboan.
- Galdetegi desberdin bat erabili izana, ikerketa honen fase kualitatibotik bertatik sortua; horrek, hain zuzen, aurreko beste azterlan batzuetan ez bezalako emaitzak ekarri ditu.
- Nafarroako gizarte osoaren eta bertako sektore desberdinen ikuspuntua aintzat hartzeko asmoa, ez bakarrik euskal hiztunena edo euskararen inguruko erakundeena, beste hainbat ikerlanetan gertatzen den bezala: ikerketaren unibertsoa Nafarroako biztanleria osoa izan da.
- Erabilitako kontzeptuak, “erresonantzia” batez ere.
- Jasotako eta aztertutako informazioaren kalitatea, zabaltasuna eta fidagarritasuna.

- Nafarroan euskara sustatzeari buruzko elementu diskurtsiboak identifikatu eta aztertu izana (3.1 atala), biztanleriaren % 50etik gorako babesa dutenak eta gizartearen sektore zabaletan ere erresonantziak eragiteko modukoak direnak.
- % 50etik beherako babesa duten elementu diskurtsiboak identifikatu izana (biztanlerian erresonantziak lortzeko aukera gutxiago dituztenak, edo disonantziak eragin ditzaketenak) (3.2 atala).
- Biztanle gehienek euskara sustatzeari aldeko edo oso aldeko jarrera dutelako emaitza (3.3 atala).
- Biztanle gehienek euskal hiztunen komunitatearen erreferentzia positiboa dutelako emaitza (3.4 atala).
- Emaitzen kanpo-koherentzia orokorra gaiari buruz aurretik egindako azterlanetako emaitzekin alderatuta (1.4 atala), nahiz eta aurreko azterlan horiek metodologia edo unibertso desberdinekin eginak izan.

Bestalde, ikerketak ez du muga nabarmenik, ez metodologiari ez jasotako informazioari dagokienez.

4.4. Inplikazio praktikoak eta etorkizunari begirakoak

Ikerlanak askotariko inplikazio praktikoak ditu, baita etorkizunera begira ere, jarraian azalduko den moduan:

- Ikerlan honen emaitzak erabilgarriak izan daitezke Nafarroan euskararen sustapenean eta horren ondorioetan interesa duten pertsonentzat edo erakundeentzat (eragile, onuradun edo kaltetu diren aldetik); izan ere, hala nahi izanez gero, erresonantzia soziala duten elementu diskurtsiboak aurkitu ahal izango dituzte azterlanean, oso erabilgarriak beren zereginetarako, bai eta elkarren arteko lankidetzarako ere hala nahiko balute.
- Sustapena + Borondatezkotasuna elementu diskurtsiboak gizartean aurkitzen duen erresonantzia. Elementu hau bi ardatz kontzeptual hauetan kokatu daiteke: euskara Sustatzea/Oztopatzea eta euskararen Borondatezkotasuna/Inposizioa. Bi ardatz horiek ikerketaren emaitzak zeharkatzen dituzte neurri handi batean, eta erresonantzia edo disonantzia asko egituratzen dituzte.

Ikerketaren emaitzen arabera, erresonantzia soziala lor dezaketen elementuetan bat egiten dute sustapenaren eta borondatezkotasunaren ezaugarriek (euskara borondatez sustatzea), eta polo horietatik gertu kokatzen dira dagozkien ardatzetan. Aldiz, inposiziotik edo oztopatzetik hurbilekotzat hartzen diren edukiek ez dute erresonantzia sozialik lortzen, disonantziak baizik: dela euskara inposizio bidez sustatzeak, dela inposizioz euskara oztopatzeak, dela borondatez euskara oztopatzeak.

Beste gomendio praktiko batzuk

Aurrekoez gain, ikerlan honetatik gomendio praktikoak atera daitezke, bereziki Nafarroako hizkuntza-politikan edo -plangintzan diharduten eragileentzat: instituzionalak, sozialak, hezkuntzaren alorrekoak edo norbanakoak.

- Hezkuntzako hizkuntza-ereduak ezagutzera ematea herritarren artean. Eta, halaber, zabaltzea Nafarroako legediak euskaraz ikasteko eskubidea babesten duela hezkuntza-sistema osoan. Ikerlan honek erakusten duenez, herritar gehienek ez dute errealitate horren berri.
- Nafarroako araudi eta antolaketa soziolinguistikoari buruzko oinarritzko informazioa ematea herritarrei, hori ere ez baitakite.
- Nafarroako euskarari buruzko oinarritzko kultur nozio batzuk sartzea hezkuntza programetan.
- Hezkuntza-sisteman, familia etorkinentzako hizkuntza-programak ezartzea, harrerarako eta euskarari buruzko azalpenak emateko, bereziki seme-alabak lehenengoz matrikulatzen dituztenean.

Interesa euskararen lurralde guztientzat eta eskualdeetako edo eremu urriko beste hizkuntza batzuentzat

Nafarroako egoera soziolinguistikoa berezia bada ere, alderdi asko berdinak ditu euskaraz mintzo diren gainerako lurraldeekin eta eskualdeetako edo eremu urriko beste hizkuntza batzuekin ere. Beraz, Nafarroako kasuaren azterketa honetatik ateratako analisiak, zuzenean orokortu ezin badira ere, interesgarriak izan daitezke haientzat, batez ere hizkuntza horiek sustatzeko lana erresonantzia zabaleko elementu diskurtsiboetan oinarrituta egiteari buruzkoa, eta erresonantzien ordez disonantziak eragin ditzaketen beste elementu batzuk saihesteari buruzkoa.

5. Erreferentziak



5. ERREFERENTZIAK

- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa. (1986, abenduaren 17a). *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 154. (azken aldaketa: 2017). <https://www.navarra.es/NR/exeres/80CF3F15-A9C6-40B2-867B-F7C50905CCD6.htm>
- Allard, R., eta Landry, R. (1994). Subjective ethnolinguistic vitality: a comparison of two measures. *International Journal of the Sociology of Language*, 108, 117-144.
- Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I., eta Barreña, A. (2009). *Erdaldunen Euskararekiko Aurreiritziak eta Jarrerak*. Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ikerketa_soziolinguistikoak/eu_def/adjuntos/erdaldunen-aurreiritziak-2009.pdf
- Azcona, J. (1985). *Límites geográfico-sociales del euskera en Navarra*. Autorea. <https://www.euskarabidea.es/euskara/argitalpenak/limites-geografico-sociales-del-euskera-en-navarra-1985?q1=&q2=&q3=10>
- Benford, R., eta Snow, D. (2000). Framing Processes and Social Movements: An Overview and Assessment. *Annual Review of Sociology*, 26, 611-639.
- Berlin, I. (1995). *Antología de ensayos* (J. Abellán, Ed.). Espasa Calpe.
- Campos, C. (2023, abuztuaren 20a). ¿Para qué sirven el euskera, el catalán y el gallego? *El Español*. https://www.elespanol.com/opinion/columnas/20230820/sirven-euskera-catalan-gallego/788051190_13.html
- Castell, X., Cremades, E., eta Vanrell, M. M. (Koord.). (2023). *Actituds i usos lingüístics dels joves de les Illes Balears*. Govern Illes Balears eta Universitat de les Illes Balears.
- CIES. (1990). *Nafarren euskararekiko jarreraren azterketa*. Nafarroako Gobernua-Lehendakaritza eta Barne Departamentua.
- Conde, F. (2008). Los grupos triangulares como «espacios transicionales» para la producción discursiva: un estudio sobre la vivienda en Huelva. In A. J. Gordo eta A. Serrano (Ed.), *Estrategias y prácticas cualitativas de investigación social* (155-188. or). Pearson Educación.
- Dragojevic, M., Fasoli, F., Cramer, J., eta Rakić T. (2021). Toward a Century of Language Attitudes Research: Looking Back and Moving Forward. *Journal of Language and Social Psychology*, 40(1), 60-79.
- Erize, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. Nafarroako Gobernua/ Gobierno de Navarra.
- Erize, X. (1999). *Vascohablantes y castellano hablantes en la historia del euskera de Navarra*. Gobierno de Navarra/Nafarroako Gobernua.
- Erize, X. (2001). El discurso contrario a la "normalización" de la lengua vasca en Navarra (1997-2002). *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 46(2), 661-682.
- Erize, X. (2016). Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 99, 113-177.
- Erize, X. (2018). Nuevos consensos sociales plurales para el fomento de la lengua vasca en Navarra. *Príncipe de Viana*, 271, 741-777.
- Erize, X. (2022). Diálogo con la población castellano hablante navarra sobre el fomento de la lengua vasca. *Príncipe de Viana*, 284, 761-787. <https://doi.org/10.35462/pv.284.9>

- Europako Kontseilua. (1992). *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*. https://www.euskarabidea.es/fitxategiak/ckfinder/files/celrm_02101992_eu-2.pdf
- European Commission. Directorate-General for Economic and Financial Affairs. (2016). *The Joint Harmonised EU Programme of Business and Consumer Surveys*. Autorea. https://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/documents/bcs_user_guide_en.pdf
- European Union. (2024). *Europeans and their languages* [Special Eurobarometer 540]. Autorea. <https://europa.eu/eurobarometer/surveys/detail/2979>
- *Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027)*. Zirriborroa. (2021). https://www.navarra.es/documents/48192/11364273/EPE_Euskararen+II.+Plana_eus.pdf
- Eusko Ikaskuntza, eta Gobierno de Navarra-Nafarroako Gobernua. (2022). *Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: Gazteriaren begirada (2022)*. Autorea. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/AKDN_2022_Txostena_eusk.pdf
- Fishman, J. (Ed.). (2001). *Can threatened languages be saved? Multilingual Matters*.
- Freeman, R. E. (2010). *Strategic management: A stakeholder approach*. Cambridge University Press (1. ed.: 1984).
- Garabide Kultur Elkartea. (2023). *Hizkuntza gutxiak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* (Euskal Herriko Unibertsitateko uda ikastaroa). <https://www.uik.eus/eu/jarduera/hizkuntza-gutxiak-globalizazio-testuinguruan-zergatik-zertarako>
- Gazzola, M., Grin, F., Cardinal, L., eta Heugh, K. (2024). Language Policy and Planning. From theory to practice. In M. Gazzola, F. Grin, L. Cardinal eta K. Heugh (Ed.), *The Routledge Handbook of Language Policy and Planning* (1.-31. or.). Routledge.
- Gimeno, F., eta Rodrigo, J. (2018). [Liburu honen erreseina: Buzón García, J. M., Gómez Devís, M. B., eta Gómez Molina, J. R. (2017). *Actitudes lingüísticas en Valencia y su área metropolitana. Estudio longitudinal y análisis de tendencias*. Valencia: Tirant Humanidades]. *ELUA*, 32, 375-379. <http://dx.doi.org/10.14198/ELUA2018.32.18>
- Goffman, E. (1974). *Frame analysis: An essay on the organization of experience*. Harvard University Press.
- Gomashie, G. A. (2023). Language Attitudes as Insights into Indigenous Language Shift and Maintenance. *Journal of Language, Identity & Education*, DOI: 10.1080/15348458.2023.2185782
- Ianos, M. A., Hinostroza-Castillo, U., Senar, F., eta Petreñas, C. (2023). Predicting language use in Catalonia (Spain): the role of implicit and explicit language attitudes. *International Journal of Multilingualism*. DOI: 10.1080/14790718.2023.2170382.
- Ibáñez, J. (1992). *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: técnica y crítica* (3. ed.). Siglo XXI.
- Instituto de Estadística de Cataluña. (2019). *Población en opinión de la lengua que le gustaría hablar en el futuro*. Bisitatua: 2024ko abuztuaren 23an, helbide honetan: <https://www.idescat.cat/pub/?id=eulp&n=3674>
- Instituto de Estadística de Navarra (Nastat). (2024a). *Estadística de población según conocimiento de euskera. Año 2022*. Bisitatua: 2024ko abuztuaren 26an, helbide honetan: <https://nastat.navarra.es/es/desarrollo-nota-estadistica/-/tag/perfil-euskera>

- Instituto de Estadística de Navarra (Nastat). (2024b). *Población. Censos de población. 1 de enero de 2023*. Bisitatua: 2024ko abuztuaren 24a, helbide honetan: <https://nastat.navarra.es/es/operacion-estadistica/-/tag/censos-poblacion>
- Instituto de Estadística de Navarra (Nastat). (2024c). *Población. Poblaciones suavizadas. 1 de julio de 2024*. Bisitatua: 2024ko abuztuaren 24an, helbide honetan: <https://nastat.navarra.es/es/operacion-estadistica/-/tag/estimaciones-intercensales-padronales>
- Jefatura del Estado. (2001, irailaren 15ekoa). Instrumento de ratificación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, hecha en Estrasburgo el 5 de noviembre de 1992. *BOE*, 222, 34733-34749.
- Jimeno, R. (Koord.). (2000). *El euskera en tiempo de los éuskaros*. Gobierno de Navarra/Nafarroako Gobernua eta Ateneo Navarro/Nafar Ateneoa.
- Jimeno Jurío, J. M. (1997). *Navarra. Historia del euskera*. Txalaparta.
- Jimeno Jurío, J. M. (1998). *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*. Pamiela.
- Johnstone, B. eta Andrus, J. (2024). Introduction. In B. Johnstone eta J. Andrus, *Discourse Analysis* (4. ed., 1.-34. or.). Wiley Blackwell.
- Martínez de Luna, I., Erize, X., Akizu, B., Etxaniz, J., eta Elizagarate, A. (2016). *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa*. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.
- Massaguer, M. (2022). *No-catalanoparlants a Catalunya: identitats socials, desigualtats i llengua catalana* [doktorego tesia, Universitat Oberta de Catalunya]. https://openaccess.uoc.edu/bitstream/10609/147203/1/MarinaMassaguer_TesiDoctoral.pdf
- Medda-Windischer, R., eta Carlà, A. (2022). At the intersection of language, conflict, and security. *Language Problems and Language Planning*, 46:2, 113-130.
- Merriam-Webster. (s.f). Discourse. In *Merriam-Webster.com Dictionary*. Bisitatua: 2024ko abuztuaren 23an, helbide honetan: <https://www.merriam-webster.com/dictionary/discourse>
- Ministerio de Industria, Turismo y Comercio. Subdirección General de Estudios, Análisis y Planes de Actuación. (2012). *Encuesta de Coyuntura Industrial (ECI): Metodología*. Autorea. <https://industria.gob.es/es-ES/estadisticas/Documents/Encuesta%20Coyuntura%20Industrial/Metodologia-ECI.pdf>
- Múria, J. eta Gil, R. (1998). *Preparación, tabulación y análisis de encuestas para directivos*. ESIC editorial.
- Murray, C., Lynch, A., Flynn, N., eta Davitt, E. (2023). Articulating Minority Language Value in Diverse Communities: The Case of Compulsory Irish Language Education. *Journal of Language, Identity & Education*, 22:3, 247-261. DOI: 10.1080/15348458.2020.1871354
- Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra. (2017). *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)*. [euskararen_i_plan_estrategikoa_2016-2019._nafarroako_gobernua.pdf](https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/euskararen-adierazle-sistema)
- Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, eta Euskararen Erakunde Publikoa. (2024). *Euskararen Adierazle Sistema (EAS)*. <https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/euskararen-adierazle-sistema>

- Nausia, A., Zabalo, J., eta Mateos, T. (d. g.). *Aniztasuna eta bizikidetza Nafarroan*. Eusko Ikaskuntza eta Gobierno de Navarra-Nafarroako Gobernua. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/EUS_Aniztasuna_liburua.pdf
- Parlamento de Navarra-Nafarroako Parlamentua. (d. g.). *Gobernurako programa-akordioa*. Bisitatua: 2024.08.22an, helbide honetan: <https://parlamentodenavarra.es/eu/contenido/gobernurako-programa-akordioa>
- Ruiz, J. (2012). El grupo triangular: reflexiones metodológicas en torno a dos experiencias de investigación. *EMPIRIA. Revista de Metodología de las Ciencias Sociales*, 24, 141-162.
- Sánchez Carrión, J. M. "Txepetx". (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Autorea.
- Snow, D. A., eta Benford, R. D. (1988). Ideology, Frame Resonance, and Participant Mobilization. In B. Klandermans, H. Kriesi, eta S. Tarrow (Ed.), *International Social Movement Research* (197.-217. or.). Jai Press Inc.
- Snow, D. A., Vliegenthart, R., eta Ketelaars, P. (2019). The framing perspective on social movements: Its conceptual roots and architecture. In D. A. Snow, S. A. Soule, H. Kriesi, eta H. J. McCammon (Ed.), *The Wiley Blackwell Companion to Social Movements* (2. ed., 392-410. or.). Wiley Blackwell. <https://doi.org/10.1002/9781119168577.ch22>
- Spradley, J. P. (2016). *The ethnographic interview*. Waveland Press. (1. ed.: 1979).
- Ugalde, M. (Zuz.). (1977). *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca.
- Urmeneta, B. (1996). *Navarra ante el vascuence: actitudes y actuaciones (1876-1919)*. Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra.
- Vilches, C. (2002). *Evolución de las actitudes ante el euskera de los universitarios de Navarra 1992-2002*. Universidad Pública de Navarra-Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Vilches, C., eta Cosín, J. (1995). *Euskara Nafarroan zertan den-Investigación sociológica sobre el euskera en Navarra*. Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra.
- Weinstock, D. (2015). The complex normative foundations of language policy. In T. Ricento, Y. Peled, eta P. Ives (Ed.), *Language Policy and Political Theory*, 23.-39. or. Springer.
- Welsh Government-Llywodraeth Cymru. (2018). *Welsh language confidence and attitudes (National Survey for Wales): April 2017 to March 2018*. <https://www.gov.wales/welsh-language-confidence-and-attitudes-national-survey-wales-april-2017-march-2018>

6. Eranskina: fase kuantitatiboan erabilitako galdetegia



6. ERANSKINA: FASE KUANTITATIBOAN ERABILITAKO GALDETEGIA

Erize y Vilches. Cuestionario para la investigación: "Fomento del euskera en Navarra a partir de elementos discursivos con resonancia social". 2024

Buenos días/tardes. Le llamo de la empresa.... Estamos realizando una encuesta para un estudio sociológico al objeto de conocer distintas cuestiones relativas a la lengua vasca en Navarra y nos gustaría conocer sus opiniones. La entrevista es anónima y le solicitamos que responda con sinceridad. Muchas gracias.

DATOS SOCIODEMOGRÁFICOS

1. Municipio/pueblo de residencia: _____

2. Zona lingüística

Vascófona 1
Míxta 2
No vascófona 3

3. Edad: ____ años

4. Sexo

Hombre 1
Mujer 2
No binario 3

5. ¿En qué lengua prefiere que le haga la entrevista? (Cambiar la codificación si tras empezar en euskera se pasa al castellano)

Euskera 1
Castellano 2

6. ¿Dónde nació usted?

Navarra	1
Comunidad Autónoma Vasca	2
Otra Comunidad de España	3
Otro país	4

Para los nacidos/as en otro País.

7. ¿Cuántos años lleva residiendo en Navarra? ____ años

8. Nivel de estudios finalizados

Educación primaria1
FP grado inicial (FP básica)2
Educación secundaria obligatoria.....3
FP de grado medio4
Bachillerato.....5
FP de grado superior6
Estudios universitarios7

9. ¿Pertenece a alguna organización o movimiento social (ONGDs, AA.VV, Mujeres...), cultural, política o sindical? (Admite varias respuestas)

Sí, organización o movimiento social.....1
Sí, ONGD2
Sí, cultural/deportiva3
Sí política/sindical/estudiantil4
Sí, profesionales5
Sí, a otras organizaciones.....6
No7

10. ¿Podría decirme el nombre del partido o coalición por el que votó en las Elecciones Generales del pasado 23 de julio de 2023?

PSN/PSOE 1
EH Bildu 2
PP 3
UPN 4
Cont_Zurekin 5
Vox 6
Geroa Bai 7
Otros 8
No votó..... 9
En Blanco10
No recuerda..... 11

11. Dígame en una escala donde el 1 significa nada y el diez muy identificado, cómo de navarro/a, vasco/a y/o español/a se siente usted.

Navarro/a 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 .
Vasco/a 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
Español/a 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

CONOCIMIENTO DEL EUSKERA

12. ¿Cuál es su nivel de conocimiento de euskera?

No sabe 1
Solo palabras 2
Algo 3
Bastante bien 4
Muy bien 5

13. Si no sabe euskera (o solo palabras), ¿le gustaría haber podido aprenderlo? OK

Sí 1
Sí, lo está aprendiendo 2
No 3 (Pasa a P15)

14. Por qué motivos le gustaría saber euskera:

15. ¿Por qué motivos no le gustaría saber euskera?:

16. ¿Si tiene hijos o hijas, estos hablan euskera? OK

No tengo hijos/as 1
Ninguno/a habla euskera 2
Alguno sí 3
La mayoría sí 4

PRESENCIA DEL EUSKERA EN NAVARRA

17. ¿Qué porcentaje de la población de Navarra cree usted que sabe el euskera?: ____ %

18. Durante los próximos años el porcentaje de personas que saben euskera en Navarra piensa que...

Aumentará 1
Se mantendrá igual 2
Descenderá 3

19. A usted la presencia del euskera en Navarra en los próximos años le gustaría que...

Aumentara 1
Siguiera igual 2
Disminuyera 3
Me da igual 4

Erize y Vilches. Cuestionario para la investigación: "Fomento del euskera en Navarra a partir de elementos discursivos con resonancia social". 2024

20. En su entorno cotidiano (familia, trabajo, amistades...) la presencia del euskera es:

Mayoritaria	1
Igual que el castellano	2
Minoritaria	3
Inexistente	4

SISTEMA EDUCATIVO

21. ¿Cree usted que la Ley del Euskera permite a todos los niños y niñas en Navarra, al margen de donde residan y si lo desean, estudiar en euskera?

Sí	1
No	2
No sabe	3

22. ¿Le parecería apropiado incluir en los programas escolares unas nociones culturales básicas sobre el euskera de/en Navarra?

Sí	1
No	2
No sabe	3

23. Le parece importante establecer, en el sistema educativo de Navarra, protocolos lingüísticos de acogida y explicación sobre el euskera y los modelos educativos existentes a familias inmigrantes, especialmente cuando matriculan por primera vez a sus hijos o hijas.

Nada importante	1
Poco	2
Importante	3
Bastante	4
Muy importante	5

24. De las siguientes frases dígame la que mejor representa su opinión sobre la presencia del euskera en el sistema educativo oficial de Navarra:

- Todos los niños y niñas de Navarra deberían aprender Euskera1
- Debería ser opcional el aprendizaje del euskera para los niños y niñas que lo deseen2
- El euskera no debería estar presente en el sistema educativo de Navarra3

25. Se deberían ofertar en Navarra más actividades culturales en euskera para los niños y niñas y las familias.

Sí	1
No	2
No sabe	3

TRABAJO EN ADMINISTRACIONES

26. ¿Respecto a las personas que opten a trabajar en las diferentes administraciones de Navarra qué frase refleja mejor su opinión?

- 1. Para entrar a trabajar en la Administración, se debería pedir euskera a todas las personas1
- 2. Para entrar a trabajar en la Administración, solo se debería pedir euskera en determinados puestos2
- 3. Para entrar a trabajar en la Administración, solo se debería pedir euskera en determinadas zonas3
- 4. Para entrar a trabajar en la Administración, no se debería pedir euskera a nadie4

PROMOCION DEL EUSKERA

27. ¿El Gobierno de Navarra debe promocionar el euskera...?

Más que ahora	1
Seguir igual	2
Menos	3

28. ¿Qué tipo de acciones de promoción debe realizar el Gobierno de Navarra y/o las administraciones locales?:

Ninguna	1
---------	---

COMUNIDAD LINGÜISTICA

29. ¿En qué grado está usted de acuerdo o en desacuerdo con las siguientes frases El valor 1 representa el mayor grado de desacuerdo y el 10 el máximo de acuerdo?:

- Las personas que saben euskera se apoyan mucho entre ellas y eso es positivo.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

- La comunidad de los que saben euskera crea barreras para separarse de los que no saben.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

- La comunidad de los que saben euskera son un grupo privilegiado en la sociedad navarra.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

- Las personas que saben euskera aportan dinamismo a la sociedad navarra.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

- Las personas que saben euskera son un grupo minoritario y con poca presencia en la vida social navarra.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

ACTITUDES ANTE EL EUSKERA

30. ¿En qué grado está usted de acuerdo o en desacuerdo con las siguientes frases El valor 1 representa el mayor grado de desacuerdo y el 10 el máximo de acuerdo?:

- El sentimiento de pertenencia a Navarra une a las poblaciones y zonas tan diferentes social y lingüísticamente de esta comunidad.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

- El euskera es una riqueza cultural que es preciso proteger.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

- La utilización partidista del euskera es perjudicial para la lengua.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

- Debería existir respeto y tolerancia mutua entre el euskera y el castellano y sus respectivos hablantes.

Máx. Desacuerdo 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Máx. Acuerdo

Gracias por su colaboración.

Erize eta Vilches. "Euskararen sustapena Nafarroan, erresonantzia soziala duten elementu diskurtsiboetatik abiatuta" ikerketarako galdetegia. 2024

EUSKERAREKIKO JARRERAK

30. Zein mailatan zaude ados edo ez zaude ados esaldi hauekin?

1. balioak desadostasun-maila handiena adierazten du, eta 10.ak, berriz, adostasun handiena

- Nafarroako kide izatearen sentimenduak elkartu egiten ditu gizartean eta hizkuntzan hain desberdinak diren komunitate horretako populazio eta eremuak.

Desadostasun handiena 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Adostasun handiena

- Euskara babestu beharreko aberastasun kulturala da.

Desadostasun handiena 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Adostasun handiena

- Euskararen erabilera alderdikoia kaltegarria da hizkuntzarentzat.

Desadostasun handiena 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Adostasun handiena

- Errespetua eta tolerantzia egon beharko lirateke euskararen eta gaztelaniaren eta haien hitzunen artean.

Desadostasun handiena 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Adostasun handiena

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

